

**puntuak**  
**ULTRA**  
**DISTANTZIA**

Ultra distantzietako lasterketek harrapatuta

Gure Zirkuko Joseba Usabiagari elkarrizketa



## IBILGAILU ELEKTRIKOAK UGARITZEN, BAINA POLIKI-POLIKI

Erregai fosilen mendeko ibilgailuen alternatiba izan daitezke elektrikoak, baina salmenten %5 dira oraindik; etxean kargatzeko aukera dutenek darabilte batik bat / 4


Agurtzane Larrañaga, Bergarako Bolubarri baserrikoa, auto elektrikoa kargatzen, baserrian jarritako kargagailuaren bidez. XABIER URZELAI

## Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia jardunaldiak Bergaran azaroan

Laboratorium erdigunean dela, era askotako ekitaldiak iragarri dituzte bederatzigarrenez antolatu den ZTBn / 20



ZTB jardunaldien aurkezpena, martitzenean, Bergarako alkatea erdian dela. B.U.




Alzola, Udaltxera bidean. MONDRAITZ

**Iñigo Alzola, 40 minutu azpitik, Arrasatetik Udaltxera igotzeko** / 32

**Iñaki Etxabe, Valentin Agiriano eta Maria Angeles Barandiarani aitortza Eusko Jaurlaritzak** / 6

### ORDU ALDAKETA

Neguko orduategia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



**SKODA ENYAQ IV**

**DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!**

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70





Oñatiko Zubikoa kiroldegiko sarreran, greba deialdiko kartelak jarrita. TXOMIN MADINA

## Sektore publikoaren grebak eragina izan du

ELA, LAB, CCOO, SATSE, Steilas eta ESK sindikatuek sektore publikoan diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko 152.000 langile grebara deitu zituzten eguaztenerako, eta lanuzte deialdiak izan du eragina Debagoieneko hainbat zerbitzu eta alorretan

**Imanol Beloki Unamuno** DEBAGOIENA Sektore publikoan diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko 152.000 pertsona zeuden eguaztenerako grebara deituta, eta lanuzte deialdiak eragina izan du Debagoieneko hainbat zerbitzu eta alorretan; herri batzuetan beste batzuetan baino handiagoa. Erantzunari dagokionez, hala-koetan ohi denez, sindikatuek emandako kopuruek eta Jaur-laritzaren ez dute bat egin. Sindikatuen arabera, "oso zabala" izan da; eta Jaur-laritzaren arabera, "apala".

Eskaera zerrenda zehatz batekin irten ziren kalera sindikatuek, eguaztenerako. Nagusiki, sektore publikoaren langileen soldatak eta lan baldintzak "hemen" adostu ahal izatea eska-za. Izan ere, *Zerbitzu publikoa indartzeko, soldata eta enplegua hemen adostu* izan da hiriburuetako manifestazioetan lehen leerroan jarri duten aldarria. Hala, sindikatuek eskatu dutena da sektore publikoan dabilzanen

baldintzak, Madrilen beharrean, hemen negoziatu eta arautzea. Gogorarazi dutenez, Espainiako Gobernuaren erabakiz, 2009ko krisitik Madrilek zehazten ditu soldata igoerak, eta, hori dela eta, azken hamarkadan langile publikoek erosteko ahalmenaren %20 galdu dute. Erabakitze ahalmenean hori berreskuratzea eta soldatak %10 igotzea galdegin dute. Horrekin batera, sektore publikoko lanpostuetan dagoen behin-behinekotasun tasa egungo %49tik %8ra jaitea eskatu dute; eta zerbitzu publikoak pribatizatze joera amaitzeko eta sektorea euskalduntzeko, besteak beste.

### Datu orokorrak, nahasgarriak

Sindikatuen arabera, grebak jarraipen "oso zabala" izan du. Besteak beste, Hezkuntzan langileen %75ek egin dute greba, horien arabera. Bestelako datuak eman ditu Jaur-laritzak, eta adierazi du Administrazio Orokorrean jarraipena %12,07koa izan

dela, %5,72koa Osasunean, eta %3,42koa Segurtasunean (lan-kontratuko langileak, er-tzainak ez direnak), eta %40,6koa Hezkuntzan. Hala, milaka langile publikok lan-baldintzak "hemen negoziatzea eta adostea" exijitu dute. Foru erakundeen datuen arabera, grebaren eragina %15,4koa izan da Araban, %10ekoa Gipuzkoan, eta %6,4koa Bizkaian.

### Eragina bailarako zerbitzuetan

Arrasateko, Bergarako, Antzuolako, Elgetako, Leintz Gatzagako eta Oñatiko udaletako behar-ginek, esate baterako, bat egin dute asteon egin den grebarekin, baina zerbitzu batzuk martxan izan ziren. Oñatin, esaterako,

**PRIBATIZAZIOAK  
SALATZEKO ETA  
ZERBITZU PUBLIKOAK  
INDARTZEKO ESKAERA  
EGIN DUTE**

gutxieneko zerbitzuak agindu zituen Udalak, eta, hori horrela, HAZ bulegoa zabalik izan zen dokumentuen erregistroa egin eta deiak jasotzeko bakarrik, eta udaltzaingo zerbitzua ere izan zen. Hala ere, Zubikoa kiroldegia eta kultur etxea, esaterako, itxita izan ziren. Udalak azpikontratatuak zerbitzuak, aldiz, martxan izan ziren. Arrasaten, udal zerbitzu guztiak itxita izan ziren egun osoan. Bergaran, bestalde, Agorrosin Ekintza Gunea itxita izan zen udaleko langileen grebagatik; Labegarietako kiroldegia eta Udal Pilotalekua, aldiz, zabalik izan ziren. Gainerako udalei dagokionez, Aramaiokoa eta Eskoriatzako ez zituzten itxi, eta Aretxabaletan ez zuten lanuzterako prozesurik abiatu.

Bailarako eskola publikoetan ere eragina izan du grebak, baina ez udaletan bezain bestekoa. Gainera, martitzenean ere greba deituta zegoen hezkuntza publikoan. Elgetako Herri Eskolan eta Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean, adibidez, bat egin zuten grebarekin, eta zerbitzu minimoekin izan ziren lanean; Aramaion %75ek egin zuen bat lanuztearekin, eta Antzuolan, %50 inguruk; eta Oñatiko Urgain ikastetxean eta institutuaren ere bat egin zuten langile batzuek.

Debagoieneko ospitalean eta anbulatorioetan ere ez da jakinekua zenbat langile egin duten lanuztearekin bat; lehen mailako arretan larunbatetako zerbitzu minimoak bermatu zituzten; ospitalean, jaiegunitakoak.

Zaharren egoitza publikoek dagokionez, berriz, Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitza eta eguneko zentroan ohiko lanaldia egin zuten; langile bakar batek ere ez zuela greba egiteko asmorik adierazi esan zuen Eva Maria Dolarak, Jose Arana egoitzako zuzendariak. Arrasateko Iturbide egoitza ere ez zuten grebarik egin.

### Hurrengo greba, abenduan

Sindikatuek deitutako bi greba egunetako lehenengoa burututa, hurrengo abenduaren 19an izango da, eta oraingoan ere EAEko sektore publikoko langile guztiak daude deituta. Horren baitan, "Jaur-laritzak asko aldatu beharko luke jarrera, greba deialdia birplanteatzeko", adierazi dute LAB sindikatutik.

## Gurutze Gorriak ikasleei laguntzeko programa abiatu du

Debagoieneko Gurutze Gorriak bosgarren aldiz abiatu du egoera "ahulean" dauden 8 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dagoen *Eskola arrakasta* izeneko laguntza programa.

"Urte hauetan zehar hainbeste gazteri laguntzeko gai izan gara; horrek erakusten du Debagoieneko Gurutze Gorriaren osasun, gizarte eta elkartasun jardueratan parte hartzen duten boluntarioen indarra eta dinamismoa", azpimarratu du Javier Igartua Debagoieneko Gurutze Gorriko presidentea. Gaineratu duenez, ikastetxeekin "lankidetzan estuan" garatzen da proiektua, eta xedea da parte hartzen duten gazteen "komunikazio gaitasunetan eragitea, hizkuntza menperatzea eta pentsamendua garatzea". Hala ere, gaitasun emozional eta afektiboaren garapenean ere eragin nahi du, eta, horretarako, lehen helburuetako bat "konfiantzazko gune bat sortzea" da.

## Greba feminista orokorrari begira da Deba Bailarako LAB

Euskal Herriko mugimendu feministak deituta, azaroaren 30ean egingo da greba feminista orokorra, eta Deba Bailarako LABeko sektore ezberdinetako delegatuak pasa den astean batzartu ziren gaia lantzeko. Zaintza sistema publiko komunitarioa dute helburutzat.

Sindikatuek ohar bidez azaldu duenez, "zaintza krisia gero eta nabariagoa da", baina horren arrazoia ez da bakarria. "Krisi honen arrazoia nagusia eta bakarra ez da bilakaera demografikoa edo jendartearen zahartzea, hori sinestara nahi diguten arren. Ez dugu ontzat ematen zaintza eredu hau, bidegabea eta sostengaezina baita". Horregatik, denon bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintza sistema aldarrikatu nahi dute. Haren arabera, "premiakoa" da zaintza lanak berrantolatzea eta modu orekatuagoan banatzea. "Hori du helburu LABek defendatzen duen zaintza sistema publiko komunitarioak".

# "Heriotzaren bueltako errituak dira datozenak"

OIER ARAOLAZA ANTROPOLOGOA

Gaba Baltza, Arimen Gaua eta halako errituak zergatik egiten diren adierazteaz batera, ohitura horien berpizte prozesuaren zergatia ere adierazi du Araolazak

**Imanol Beloki Unamuno** DEBAGOIENA  
Gaba Beltza edo Arimen Gaua ospatzea gero eta hedatuago dago Euskal Herrian. Ohitura zaharrak berreskuratuz, urtez urte, jaia berrasmutzen ari dira, baita bailarako herrietan ere. Hildakoak oroitzeko eta negu-ri hasiera emateko tradizioa herri bakoitzak bere erara ospatzen du, betiere, beldurra protagonista izanez, besteak beste.

**Zer da Arimen Gaua, Gaba Baltza... ospatzea?**

Interpretazio ezberdinak daude. Bata da naturaren zikloa; horren arabera, sasoi hau uda bukaera eta neguaren hasiera da, eta hori errepresentatzen da. Gaur egun urtaroak ondo banatzen ditugu, baina, garai batean, urtea bi sasoiatan banatzen zen; uda eta negua. Neguaren hasieran dena aldatzen da; eguzki orduak, tenperatura, eta garai bateko bizimoduari lotuta lur-rrarekin eta naturarekin dagoen harremana. Hau da, lurra eman duena aprobetxatzeko momentua da, uzta batzea...; eta orain lurra lokartu egiten da. Ematen du hil egingo dela; animaliak ukui-luetan sartzen ditugu, eguna mozten da, berotasuna artifizialki egin behar dugu... Eta argia. Argia elementu klabe bat izan-



Oier Araolaza antropologoa. IÑIGO ASTIZ

go da negu osoan. Argi hori modu praktikoan beroa emateko da, baina modu sinbolikoa ere badu.

**Heriotza ere presente dago?**

Heriotza eta baita berpiztea ere. Orain, heriotzaren momentua dela esango genuke, eta egiten diren ekintzak heriotzaren bueltako errituak dira: Arimen Gaua, Domu Santu eguna... Eta bitxia da neguaren bukaeran berriz ere heriotza ere agertuko zaigula, baina berpizte efektu batekin. Jesukristoren berpizteaz gain, Inauterien bukaeran berriz dago

heriotza Mielotxin bezalako pertsonaiekin. Naturak adierazten digu biziartzeko zerbaitek hil egin behar duela lehenbizi. Zorroan ari denak badaki hori. Ez dagoela baratzea biziberritzeko modu hobea, ingurune bati sua ematea baino. Hala, horrek

**"NATURAREN ZIKLOA, HERIOTZA ETA BERPIZTEA; HORIEK BATZEN DITU GABA BELTZAK"**

ekarriko du berrindartzea edo berpiztea.

**Iluntasunak ere garrantzia du, ezta?**

Iluntasunaren eta argiaren joko asko gustatzen zait. Historikoki kalabazak lanpara gisa erabili izan dira, argia emateko. Gero, aurpegi tankera ere ematen zaie horiek hustuz, beldurra emateko, eta horrek heriotzarekin erlazioa du. Kalabazek ere iluntasun egun hauetan argitasun pixka bat ematen dute; batzuek salbazioa eramaten dutela adierazten dute, hildakoek bidea ikus dezaten.

**Ohiturak berpiztea ere balioan jarri behar dela uste duzu, beraz?**

Pozgarria da, baina pena pixka bat ere ezin dut ezkutatu. Izan ere, erritu hauek Euskal Herrian itzalita zeuden, eta orain berpiztu badira, ez da guk, euskaldunok pentsatu dugulako me-rezi zuela berpiztea, kanpotik etorri den indar batengatik izan da. Gure erreakzioa horrekiko erantzun bat izan da, eta, kanpotik etorritako errituek ekonomiarik begiratzen badiote, guk, arropa zaharrekin-eta, gastu gabe erantzuten diogu.

## Bailarako ekintza nabarmenenak

### ARRASATE

• **18:00** Arimen Biltzarra. Biteriko plazan hasi eta Monterronera ibilbide bat egingo dute Ilargitxo eta bere lagun kukumarruekin.

### BERGARA

• **21:30** Erdi Aroko Bautista Leprosuak bisita gidatua egingo du, bere garaiko izurriteak eta kontu ilunak gogora ekartzeko.

### ELGETA

• **20:30** Hilerriko aldapan kontatuko dira beldurrezko ipuinak LH5etik gorako neska-mutikoendako.

### ARETXABALETA

• **20:00** Ekitaldia plazan. *Arimen gaua* ikuskizuna eskainiko dute Jaiki elkartekok, oihal-ikuskizunekok, Loramendi elkartekok eta kantu poteokok.

### ESKORIATZA

• **19:00** Ekitaldia plazan: Beldur Harrapakariak izango dira lehenengoz; Gaba Baltzeko dantzak, sua, zezensuzkoa...

### GATZAGA

• **19:30** Eskea eta afari-merienda Toki-eder elkartean.

### ARAMAIO

• **18:00** Ipuin kontalaria izango da, eta, ostean, kalejira beldurgarria egingo dute.

Oharra. Oñatin eta Antzuolan ez dute ospatuko Gaba Baltza.

Sektoreko zerbitzu  
integral osoena jartzen  
dugu zure eskura

Ab

ARRASATE BERRIA  
HILETA ZERBITZUAK

San Andres auzoa.  
Tel.: 943 79 22 19

AOT

ARETXABALETAKO  
TANATORIOA

Basabe 6, behea.  
Tel.: 943 79 22 19



**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA Ibilgailu elektrikoaren errealitatea da gaur egun, eta gero eta ibilgailu %100 elektriko edo hibrido gehiago ikusten dira kaleetan. Horietako bat da Bergarako Bolubarri baserriko Agurtzane Olabarriak eta familiak apirilean erositako ibilgailu elektriko. Autoa aldatzeko premia zuten: "Bi kamioi eta furgoneta bat dauzkagu; denak dira erregaiekin ibiltzen direnak, eta pentsatu genuen, dirulaguntzak daudenez, elektriko bat erostera animatzea. Momentuz gustura gaude". Automatikoak dira eta bergararrak ohitu egin behar izan du: "Kontu handia izan behar duzu ezkerreko hankarekin. Hasieran ez da erraza. Txarrera ibilgailu zaharretik elektrikorako aldaketa da".

Kargatzeko puntuen kopurua ere hazi egin da, eta gasolindegietan, merkataritza-guneetan edota aparkalekuetan ikus daiteke hori, besteak beste. Gipuzkoan, esaterako, 157 karga-puntu daude, eta datuok Debagoienara ekarrita, gaur-gaurkoz, Arrasaten zortzi daude, Bergaran bost eta Oñatin beste bost. Pribatuak eta publikoak dira puntu horiek. Orokorrean, ordaindu egin behar dira, eta 0,15 eta 0,50 euro bitarteko kostua du kWh-ak. Arrasateko Avia gasolindegian duela zenbait urte jarri zuten karga-puntua eta hango langile baten esanetan, jarri zutenetik nabaritu dute orduan baino jende gehiago geratzen dela ibilgailua kargatzen; batik bat udan, opor garaian atzeritar asko geratzen baita. Dena den, ez da sekula ilararik sortu. Debagoienarren karga ohituretz uste du gehientsuenek karga-puntu pribatua dutela.

Jasangarritasunaren aldeko bidean, ordea, zalantzak sortzen dira halako ibilgailu bat erosteko orduan, eta, hori kontuan hartuta, ibilgailu elektriko eta karga-puntuei buruzko hitzaldia egin dute asteon Oñatin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak eta Debagoieneko Mankomunitateak Oñatiko Udalarekin elkarlanean. Bergaran, azaroaren 7an emango dute hitzaldi bera; 19:00etan, Irizar Jauregian.

#### Zergatik kotxe elektrikoak?

%100 elektrikoak diren ibilgailuek ez dute erregairik behar. Hibrido kasuan, bateria elektriko



Bergarako Agurtzane Olabarria bere baserrian bere auto elektrikoaren kargagailuarekin. XABIER URZELAI

# Isil-isilik, gelditzeko etorri dira ibilgailu elektrikoak

Jasangarritasunaren aldeko bidean, auto berria erosteko orduan ibilgailu elektriko edo hibridoa erosteko zalantza sortzen da; gaian adituak direnen eta ibilgailu elektriko erosi berri duen gidari baten adierazpenak jaso ditu GOIENA-k

txikiagoa dute, baina elektrizitatea gastatzen denean, erregai konbentzionala hasten da lanean –normalean, gasolina-. Aipatzekoa da, kasu horretan, 30-80 kilometro bitartean ibiltzen dela modu elektrikoan. Xabier Lizaur

Ekitermik kooperatibako arduradunak azaldu du zergatik egin behar den ibilgailu elektrikoaren aldeko apustua: "Oso motzean esanda, ikusten duguna da, gaur egun, erregai fosilek duten pisua oso handia dela, eta beste he-

rrialdeekiko dugun dependentzia ere oso handia da. Kontsumoa elektrifikatzeko joera horrek ahalbidetzen diguna da guk hemen bertan sortu ahal dugula elektrizitate hori. Orduan, besteekiko dependentzia gutxitu

egiten da, eta emisioak ere bai". Zuzena izan da Energiaren Euskal Erakundeko (EEE) Garraio Saileko teknikari Monica Diaz: "Garajerik ez baduzu, nire iritziz, elektriko purua ez da soluzioa".

#### Ibilgailu elektrikoaren potentzia

Diazek azaldu du lehen uste zela halako ibilgailuek ezin zutela abiadura handirik hartu, baina hori duela zenbait urtetatik ez dela hala dio, eta erregai-motordun ibilgailuekin alderatu ditu: "Kotxe elektrikoaren potentzia izan daiteke edo ez, baina ibilgailu konbentzionalak bezalaxe. Abiadura har dezake. Motor elektrikoak ez du mugarik zentzu horretan, eta handia izan daiteke. Zenbat eta bateria handiagoa, orduan eta potentzia handiagoa; beste ibilgailuek dituzten zaldiak bezalaxe".

%100 elektrikoek egin ditzaketen kilometroak mugatuagoak dira, eta hori argi du Agurtzane Olabarriak. Horregatik, autoa Debagoienan ibiltzeko erabiltzen dute soilik. "Bidaia motzak egiteko erabiltzen dugu. Baserritik kanpo dauzkagun ortuetara joateko, dendetan banaketa egiteko edo azokara joateko. Ez gara urrun joaten, badakigulako mugatua dela erabilera".

#### Bizi zikloa

Bateriaren biziaren iraupena ere galdera izan ohi da. Ziklotan neurtzen da, eta kontzeptu horren gaineko xehetasunak eman ditu Diazek: "Auto elektriko baten batez besteko bizitza denborak 3.000 karga-ziklo oso hartzen ditu, gutxi gorabehera. Garrantzitsua da karga-ziklo osoaren kontzeptua ulertzea; hau da, bateriaren %0tik %100eraino. Karga bat bateriaren %80tik %100era egiten dugunean, 0,2 zikloren baliokidea da eragiketa hori. Ziklo oso bat gerta dadin, bost karga-eragiketa egin beharko lirakeke bateriaren %80tik %100eraino. Horrenbestez, ibilgailu batek jasan dezakeen kargen kopurua 3.000 baino askoz gehiago da, eta bateria ez da elementu mugatzailerik ibilgailuaren bizitza baliagarria". Karga, gauez, ibilgailua erabat deskargatu gabe dagoenean hastea gomendatu du, baterian kalterik ez eragiteaz gain, egokiagoa delako.

Bateria gastatu edo hondatzen denean aldatu daiteke. Diazen hitzetan, ordea, ez da ohikoena,

## Auto elektrikoaren salmentak

Udalaitz kontzesionarioko Tomas Muñoz merkataritzako aholkulariak adierazi du ibilgailu elektrikoaren salmentak hazi arren, euren salmenten %5 baino gutxiago direla oraindik: "Auto elektrikoaren interesa hazi dela ikusten dugu diesel eta gasolinaren hurrengo urratsa dela ikusten baitute eta etorkizun batean ez direlako erabilgarri egongo".

**Abantailak eta desabantailak** Abantailen artean nabarmendu ditu 0 emisioa, zarata gutxiago egiten dutela, kilometrajea aurrezten dela, mantenu gutxiago dutela, abantaila fiskalak dituztela, hirietako eremu mugatueta sar daitezkeela eta zenbait udaletan udal-zerge ez dela ordaindu behar. Hala ere, bost desabantaila zerrendatu ditu:

prezio altua, karga-azpiegiturak oraindik eskasak, kargatze denbora, autonomia eta bateriaren birziklapena.

Debagoieneko karga-puntuei dagokionez, gutxi daudela irizten dio: "Karga azkarrekoak ere gutxi daude eta horiek erabilera ere urria dela esango nuke; batez ere, oraindik ibilgailu gutxi daudelako eta erabiltzaileek etxebizitza partikularretan bertan kargatzen dituztelako".



elementurik garestiena baita: "Bateria ibilgailu elektrikoaren bizitza baliagarriaren amaiera iristen denean, bigarren bizitza ematen zaio. Esaterako, autokontsumo-sistematako energia-metatzeko".

#### Norbere karga-puntuak

Lau modutako karga-puntuak daude, betiere, potentzien arabera, baina batik bat norberak etxeko garajeen jarri dezakeen puntuari egin diete erreferentzia bi hizlariak; hau da, *wallbox* delakoei. Etxebizitza eraikinetan dauden garaje komunitarioetan, eraikin horretako bizilaguna izanez gero, baimenik ez da eskatu behar. Nahikoa da bizilagunak ohartaraztea. "Eraikinean bizi banaiz eta nire kontagailu propioa badut, etxebizitzako kontagailu horretatik atera dezaket linea eta kontagailu bera erabili karga-puntua jartzeko", dio Ekitermikoko arduradunak.

Dena den, badaude kasuak, garaje komunitarioa izan arren, eraikineko bizilagunak ez diren herritarrek garaje plaza bat dutenak. Kasu horietan, beharrezkoa da baimena eskatzea: "Hornidura-puntu berria eskatu behar da, eta existitzen den kontagailu zentralean lekua aurkitu zure kotxe elektrikoarendako kontagailu berria jarritz".

Bolubarri baserrian jarri dute karga-puntua eta prozesua oso erraza izan zela adierazi du Olabarriak: "Baserrri ondoan lekua eta aterpea dauzkagu, eta hormaren kontra jarri genuen. Elektrikariari deitu eta listo. Erraza izan zen. Aparatuak gainera, aukeran, badauka mugikorrek aplikazio bat eta ikus dezakezu ze gastu duen karga bakoitzak edota zenbat denbora irauten duen".

### "BIDAIA MOTZAK EGITEKO ERABILTZEN DUT AUTO ELEKTRIKOA"

AGURTZANE OLABARRIA, GIDARIA

### "HOBE DA KARGA HASTEA BATERIA GUTZIZ DESKARGATUTA EZ DAGOENEAN"

MONICA DIAZ, EEE-KO TEKNIKARIA

## Ohiko galderak

Oñatin egin zen ibilgailu elektriko eta karga-puntuaren gaineko hitzaldian zenbait galderari erantzunak eman zizkieten.

- **Zer da kotxe elektrikoak?** Ibilgailu entxufagarria da. %100 elektrikoak edo hibrido entxufagarria izan daiteke.
- **Zenbat balio du ibilgailu elektriko batek?** 15.000 euro + BEZetik hasita.
- **Zer nolako potentzia dute?** kWh-ren arabera da.
- **Konplikatu da auto elektrikoak gidatzea?** Ez. Auto automatikoen moduan gidatzen da.
- **Zenbat denbora behar da bateriak kargatzeko?** Ibilgailuaren, bateriak tamainaren eta karga-puntu motaren arabera da.
- **Zenbateko bizitza du bateriak?** Batez beste 3.000 karga-ziklo (azalpena testuan).
- **Baimena eskatu behar zaie bizilagunei karga-puntua garaje komunitarioan jartzeko?** Garaje komunitarioa duen eraikinean etxebizitza izanez gero, ez. Bizilaguna ez bazara, bai.
- **Dirulaguntzak daude?** Bai; ibilgailua erosi eta karga-puntua jartzeko. %100 elektrikoetan, 7.000 eurokoak dira zazpi urte baino gehiagoko ibilgailua txartategira eramanez gero; hibrido entxufagarrietan, 5.000 euro.

#### Dirulaguntzak daude

Ibilgailua erosterakoan, garestiagoak dira ibilgailu elektrikoak konbentzionalak baino. 15.000 euro + BEZetik hasita eros daitezke. Alabaina, EEEko teknikariarentzat "akatsa" da bi ibilgailuen arteko erosketa prezioa alderatzea, etorkizunera begira dirua aurrezteak dakarrelako. Dioenez, bizitza osoan zehar kostatuko dena alderatu behar da: erregai edota karga zenbatekoa eta mantenua -%20 merkeago izan daitekeela dio- bezalako gastuen prezioak. Bestalde, karga-puntu bat jartzea 1.500 eta 2.500 euro bitartean kostatu daiteke. Dena den, badaude dirulaguntzak ibilgailu elektrikoak erosteko eta puntuak jartzeko. 2023ko abenduaren 31ra arte eskatu daitezke. Gomendatu du eskaerak erosketa baino lehen egiteko.

### "DEBAGOIENEAN ORAINDIK KARGA-PUNTU GUTXI DAUDELA USTE DUT"

TOMAS MUÑOZ, UDALAITZ

### "IBILGAILU ELEKTRIKOekin EMISIOAK GUTXITZEN DIRA"

XABIER LIZAUZ, EKITERMIK

Teknikariaren xehetasunen arabera, enpresen kasuan, mugikortasun elektrikoak sartuta dago Eusko Jaurlaritzaren Teknologia Garbien Euskal Zerrendan. Teknologia berritzaileak hartzen ditu, eta %30eko desgrabazio fiskala du. Beharrezkoa da dirulaguntza eskaera erosi aurretik egitea, bestela ez du dirurik jasoko.

Norbanakoek kotxe elektrikoetarako laguntzak 7.000 euroa artekoak izan daitezke; %100 elektrikoaren kasuan zazpi urte baino gehiagoko ibilgailu bat txartategira eramanez gero. Bestetik, 5.000 euroko laguntza hibrido entxufagarria bada, eta ibilgailu zaharra txartategira eramaten bada. Ibilgailu zaharrik ez bada txartategira eramaten, hibrido entxufagarrietan 2.500 euroko laguntzak daude eta 4.500 eurokoak ibilgailu elektrikoetan. Udaletan, kasuan kasu, badaude hoberiak udal zergetan.

#### Ikasketa fasean

Bolubarrin aitortu dute ikasketak fasean daudela oraindik. Gainera, azaldu dute ez dela erraza dirulaguntzei buruzko informazioa erraz lortzea: "Halako argibideak emango dizkizun norbait falta da". Ibilgailu elektrikoak gomendatuko luke ten galdetuta, dio ikusi egin behar dela zertarako den: "Hemen inguruan ibiltzeko bada balio du. Norberak karga-puntua etxean ez badu, zaila da".

## ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ASTEA Garaia Parke Teknologikoan

Garaia Parke Teknologikoak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak azaroaren 13tik 17ra Zientzia eta Teknologia astea ospatzera gonbidatzen dituzte Euskal Herriko ikastetxeetako LH6tik Batxilegoko 1. mailara arteko ikasleak, irakasleak eta orientatzaileak.



**Arrautza Jaurtiketa Txapelketa izango da.**

#### Azaroaren 13an: PRESENTZIALA

- MONDRAGON ZTIM HUB-en aurkezpen saioa (enpresei zuzendua).

#### Azaroaren 14an, 10:00-11:00: PRESENTZIALA

- ZTIM arloko pertsonekin elkarriketak (speed dating)
- Enpresetara bisitak: Kiro Grifols, Galbain, Saiolan, eta abar.
- Kahoot lehiaketa.

#### Azaroaren 15ean, 10:00-11:30: PRESENTZIALA

- Garaia Parke Teknologikora bisita.
- MGEPen taller praktikoa.
  - Euskal Herriko parke naturalien aplikazio bat diseinatzen ikasiko da, no code-an oinarrituta.
  - Google kontua edukitzea beharrezkoa.

#### Azaroaren 16an, 10:00-11:00: ONLINE

- TWITCHetik gertuko ekintzaileen *startup*-ak ezagutu.

#### \*Gazteleiaz

#### Azaroaren 17an, 10:00-11:00: PRESENTZIALA

- Mahai ingurua ZTIMeko profesionalekin.
- Arrautza Jaurtiketa Lehiaketaren sari banaketa.



IZENA EMAN HEMEN





# Jaurlaritzaren legezko aitortza Iñaki Etxaberi

Eusko Legebiltzarreko Polizia Gehiegikerien Balorazio Batzordeak beste 66 biktima aitortzea eta erreparatzea proposatu du. Horien artean, Iñaki Etxabe, Valentin Agiriano eta Maria Angeles Barandiaran. Pozik hartu dute berria senideek

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE  
Polizia gehiegikerien 12/2016 Legearen bidez, Eusko Legebiltzarrean sortutako Balorazio Batzordeak hirugarren txostena argitaratu du. Txosten horretan, 66 espediente proposatu ditu batzordeak. Horietako 49k polizia-etxeetan tratu txarrak edo torturak jasan zituzten, eta zazpi Espainiako Poliziak edo eskuin muturreko taldeek -Batallon Vasco Español, Tripe A...- tiroz hildakoak dira.

## 1975ean eta 1982an

Azken horien artean daude Iñaki Etxabe arrasatearra, eta Victoriano Agiriano eta Maria Angeles Barandiaran senar-emazte bergararrak. Lehenengo 1975eko urriaren 5ean hil zuten tiroz Kanpanzarren, bertako jatetxean. Batallon Vasco Español erakunde parapolizialak bere gain hartu zuen erailketa. Agiriano eta Barandiaran, ostera, polizia kontrol batean hil zituzten Gasteizen, 1982ko urriaren 16an.

## "Azkenean, badator aitortza"

"Oso pozik hartu dugu berria. Azkenean, badator aitortza; ekonomikoa ere bada, gainera. Estatu Espainiarrak eta Espainiako gobernuak ez digute, oraindik,



Iñaki Etxabe, Luis Otaño txirindulariarekin, Kanpanzarren, 1960ko hamarkadan. O.E.

biktima izaera aitortu; Eusko Jaurlaritzak bai, ordea". Adierazi dio GOIENARI Olatz Etxabek, Iñaki Etxaberen alabak. Ildo beretik erantzun dio Iñaki Agirianok, Valentin eta Maria Angeles semeak, GOIENAREN deiari. "Berandu dator, 41 urteren ostean, baina pozik gaude. Bada zerbait".

## Ekitaldia, martitzenean

Eusko Jaurlaritzako Biktimen Zuzendaritzak biktima horiei aitortza egiteko ekitaldia anto-

latu du Kursalen datorren martitzenean, 18:30ean. Olatz Etxabe eta Iñaki Agiriano han izango dira. Olatz Etxabek, gainera, hitza hartuko du. Agirianok zera adierazi du: "Halako aitortzak eta ekitaldiak oso eskertzeak eta beharrezkoak dira. Orain, Estatu Espainiarraren aitortzaren zain geratzen da. Uste dugu zerbait ari dela mugitzen, eta itxaropentsu gara". Goizean, Polizia Gehiegikerien Balorazio Batzordeak txostena aurkeztuko du Eusko Legebiltzarrean.



Aretxabaletarrak, erreka zaborra batu ostean. MARTXI PEREZ

## Errekak Bizi egunaren ostean, esker hitzak besterik ez

Oinak urez bete zituzten debagoiendarrek zaborra batzen eta gure inguruak ezagutzen aritu bitartean

### J.M.M. DEBAGOIENA

Joan den asteburuan izan zen Errekak Bizi eguna bailarako herri guztietan. Antolatzaileek adierazi dute guztira 600 pertsona inguru aritu zirela Debagoiena osatzen duten erreketako zaborrak batzen. Hala ere, ekimenaren helburua zaborrak batze hutsetik harago joan da, eta Iker Agirre antolakuntzako kideak gaineratu du "gure inguruaren ezagutza eta gure herrikerien ezagutza" ere sustatzen dituen ekimena dela.

### Batutakoaren inguruan

Urtetik urtera zabor asko batzen da bailarako erreketan, eta aurtur ur asko ez izateak zabor horien garraioa txikitu ahal izan badu ere, Arianne Kareaga Bergarako Erreka Batzordeko kideak adierazi du "aurten ere zabor asko" batu dela. Gainera, Kareagak aitortu du badaudela

zabor kantitate asko metatzen diren toki zehatzak: "Puntu beltzak direla esaten dugu, eta horiek dira lantegi inguruak, supermerkatuetako biltegi inguruak edota aisialdi gunak, esaterako".

Beste urte batzuetan baino zabor gutxiago batu dutela azaldu dute antolatzaileek, eta horri gehitu dio Agirrek "gero eta erreka garbiagoak" dituela bailarak. Hala ere, "egunerokotasuneko zaborrak gero eta mairago" aurki daitezkeela ere aitortu dute.

### Esker hitzak

"Pozik" daudela adierazi dute antolatzaileek joan den zapatuko parte-hartzea ikusi ostean. Haien helburua "erreken egoera bistaratzeko eta horren kontzientzia hartzea" dela eta debagoiendarrek "bide horretan urratsak ematen" ari direla aitortu dute.

## Zaintza duinaren aldeko aldarria egin zuten Seminarixoan

Zaintzak bizitza osoan zehar beharrezkoak direla nabarmendu zuten batzarrean, besteak beste

### J.M.M. BERGARA

Euskal Herriko Emakume Pentsiodunek III. batzarra antolatu zuten joan den barikuan Bergarako Seminarixoan. Lurralde ezberdinetatik etorritako 140 emakume batu ziren batzarrean,

eta "oso harrera ona" izan zuela adierazi zuten, garrantzi handiko batzarra izan zela adierazteaz gain. Zaintzak nolakoa izan beharko lukeen ere azaldu zuten batzarrean Itziar Usandizagak, pentsiodunen mugimenduko

kideak: "Zaintza publikoak, duinak eta kalitatezkoak eskatzen ditugu".

### Azaroaren 30eko greba

Grebarako deia ere egin zuten; azaroaren 30ean izango da, eguenean, eta adierazi zuten gizonezkoak, komunikabideak edota instituzioak interpellatu nahi dituztela. Horrez gain, batzarrean izan zirenek nabarmendu zuten grebak garrantzi handia izango duela ideologikoki, eta borrokan jarraituko dutela.



Begarako Seminarixoko batzarrean elkartu ziren emakumeak. ARANTZAZU EZKIBEL



# MULTIÓPTICAS

MULTIÓPTICASen PUNTAKO TEKNOLOGIAREN aldeko apustua egiten dugu beti. Gure optikak **ESSILOR EXPERTS** akreditazio-zentroak dira, eta, horri esker, gure bezeroei merkatuko azterketa bisual zehatzena eta **VARILUX XR** azken belaunaldiko lente progresibo pertsonalizatuak eskaintzen dizkiegu, Adimen Artifizialarekin diseinatuak.



essilor

EXPERTS


## VISION-R800

### KRISTAL LIKIDODUN FOROPTERO DIGITALA, AURRETIK INOIZ EGIN EZ BEZALA GRADUATZEKO

Eskaintzen dituen abantailak:

**ZEHATZAGOA:** giza garuna 0.25 dioptria baino gutxiagoko graduazioekiko sentikorra da, ohiko azterketa bisuala da. Orain milimetrora graduatu dezakegu, 0,01 dioptriako pausoetan.

**AZKARRAGOA:** ikusmen-azterketan, kristal likidoarekin egiten dira graduazio-aldaketak, bizkortasuna eskainiz eta ikusmen-nekea saihestuz.



## varilux XR series

### ADIMEN ARTIFIZIALAREKIN DISEINATUTAKO LEHEN VARILUX LENTEA

VISION - R800-k eskaintzen digun graduazio ZEHATZASUNAREKIN fabrikatu daitezke lenteak.

Puntako teknologiarekin eginda daude eta erabiltzailearen begiaren fisiologia eta **PORTAERA BISUALA** hartzen dituzte kontuan, begi- mugimenduetara azkar eta zehatz egokituz.

Irudien prozesamendua aurreratzen dute, **BAT-BATEKO GARBITASUNA** eskainiz, baita **MUGIMENDUAN** ere.



**Bizi ezazu lenterik pertsonalizatuenak erabiltzearen esperientzia GRADUAZIO ULTRAZEHATZAREKIN!**

SOILIK AZAROAN

ESKAINITZA - ESKAINITZA - ESKAINITZA - ESKAINITZA - ESKAINITZA  
**2x1**

ZURE VARILUX XR  
LENTEEKIN  
%20-KO DTUA.  
ETA ERAMAN 2. PAREA

**DOAN**

ESKLUSIBOKI gure zentroetan :

**MULTIÓPTICAS**

Tel.: 943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE



Tel.: 943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA

eskatu hitzordua Whatsapp bidez





ZABALIK

EDORTA ARANA

## Gainezka egin

Informazioa ekoiztu egiten da. Prozedura ezaguna da: notiziagarria den lehengai erosi edo sortu, interpretazio marko bat zirriboratu eta jendearengana heltzeko kanal egokiena zein izango den aukeratu. Horrela egiten da ekonomia, kirol, entretenimendu eta nazioarteko berriekin.

Niri, benetan, esandakoetatik bigarrena da gehien interesatzen zaidana. Albistegietan, egunkarietan eta sare sozialetan zabalduko diren notizien markoa nola eraikitzen duten. Marko horrek, komunikazioa aztertzen dutenek *framing* izendatzen duten horrek, sekulako indarra dauka, ez bakarrik orainaldia ulertarazteko bidean, baizik eta etorkizuna aurreikusitako dezagun.

Aktualitateko berri bat hautatu. Badakit Palestinako kolonizazioaren azken kapituluaren pentsatuko duzula – komunikabide guztietako lerroburretan dago– eta, konturatu gabe, medioetan ezarria zaigun markoarekin egingo duzula topo. Notizia zer den eta zer ez, non eta noiz

## MARKOA ZURRUNA DA, INFORMAZIOAREN JARIOA BIDERATZEKO GAI IZAN BEHAR DUELAKO

Markoa zurruna izaten da, informazioaren jarioa bideratzeko gai izan behar duelako. Baina, askotan, lapikoa sutan jarri eta esneak gainezka egiten du, une batetik bestera, ia-ia konturatu gabe. Eta ordura arteko markoa kraskatu egiten da.

Uste dut hori bizitzen ari garela Palestinako sarraskiaren kontura. Mundu mailako hainbat tokitan, geurean ere bai, txikioaren eta bortizkeriaren kontrako eragile berriak agertzen hasi eta aliantza berriak sortzen ari dira. Jendeak komunikabideetako hitz potoloen gainetik berea plazaratu gura du.

Orain arteko markoak balioa galdu du, eta hori nabaria da begiak eta belarriak zabalik dituenarentzat.

Eszeptikoek esango dute komunikabideak trebeak direla marko berriak sortzen eta helarazten. Eta halaxe da. Baina enpatiak, elkartasunak eta amorruek etengabeko bulkadak birsortzeko ahalmena daukate.

kokatzen den, aktualitatearen subjektuak eta objektuak zeintzuk diren eta ondoriozkoak diren. Horiak notiziagarritasunaren markoak ezartzen ditu. Horretan datza bere boterea.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Aitona-amonak

**ONINTZA ENBEITA**  
**'BERRIA'-N ARGITARATUA**  
[HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/PAPEREKOA/1881/014/002/2023-10-26/AITONA-AMONAK.HTM](https://www.berria.eus/paperekoa/1881/014/002/2023-10-26/aitona-amonak.htm)

Zer gertatzen zaie gure gurasoei aitona-amonaren ditugunean?

Gurasoengandik jasotako tratua ez daukat, baina gure amak azkar konpontzen zituen gatazkak, eta gutxitan lehenesten zuen alde biko komunikazioa.

Aitak lan asko izaten zuen, eta beti ezin izaten zigen gure laguntza onartu.

Orain han ikusten dut baratzean umea eskutik duela: harrapatzen dizkio piper txikiegiak, apurtzen ditu porruak ez daukalako ateratzeko indarrik, zapaltzen ditu azenarioak... eta ez da ezer gertatzen.

Sekulako pazientzia esplikatzeko dio nola eta zergatik ez duen berriz egin behar egin duena.

Eta umeak berriz berdin egiten badu, dena errepikatzen dio lasaitasunez.

Ama sekula ez dut ikusi oraingo kemenez sukaldetan: ume batentzat makarroiak, bestearentzat arrautza gosiak, haragia, oilaskoa...

Guk "zer dago jateko?" galdetzen genuenean, amak "asto zaharraren apatxak!", esaten zigun.

Zegoena jaten ikasi genuen, jakina.

Pentsatzen dut langile ziren artean gurekin egoteko denbora justua izango zutela gure gurasoek.

Gure belaunaldiak ez luke gauza bera egin behar; baina etxe txikia saldu eta handia erosten dugu, furgoneta txikia saldu eta autokarabana handia erosi, eta horiek ordaintzeko lan egin behar da, eta azkenean, guk ere, aitona-amonaren garenan gozatuko dugu umeekin eta umeez.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.500 ale  
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## BERBAGAI

# "Gure zerbitzua beharrezkoa izango da etorkizunean ere"

IRAIA SOLA ZUBILLAGAKO HILTEGIKO GERENTEA

**Julen Murua Mesonero OÑATI**  
Legegintzaldi berriko lehen Batzar Orokorra egin du urriaren Zubillagako Hiltegi eta Zatitze Zerbitzuak, eta, bertan, haien gobernu organoa berregituratu dute. Hori aitzaki hartuta, Iraia Solarekin (Arrasate, 1980) izan da GOIENA, hiltegiaren egungo egoeraren eta etorkizun hurbilaren gainean hitz egiten.

## Zein da hiltegiaren gaur egungo egoera?

Azken urtetan nahiko egoera orekatuan aurkitzen da gure hiltegia. Okelaren kontsumoa dezente jaitsi da azken urteetan, baina aurreikusten genuen jaitsiera bat da, gizartean dagoen tendentzia bati jarraitzen diolako. Beste industria batzuekin alderatuta, gure ekoizpena mantentzea lortu dugu, eta horrek laguntzen digu gure bezeroei zerbitzua eskaintzen jarraitzeko. Hala ere, ekoizpenaren jaitsiera errealitate bat da, eta



Iraia Sola, Zubillagako hiltegiaren. IRAIA SOLA

baserritarren eta harakinen artean dagoen errelebo faltari erantzuten dio horrek. Atzetik ez dute jarraipen bat; beraz, adibidez, harategi bat ixten denean, zaila da berriro ere irekitzea. Faktore horiek

eragin dute kontsumoaren jaitsieran.

## Batzar Orokorraren ostean berrikuntzarik izango duzue?

Hasiera batean, egitura eta zerbitzuak mantendu egingo dira, uste dugulako zerbitzu

publiko hau mantentzea egin beharreko apustua dela. Hala ere, erronka berri batzuk ere planteatuko dira, beti ere, sektorearen egoerak eta egoera ekonomikoak baimentzen badute.

Etorkizunean, produktu landuak egiteko toki bat jartzea eskatuko da, baserritarrek jarraitu ahal izateko haien salmenta egiten. Beste alde batetik, araztegia berritzea ere eskatuko dugu.

## Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Alde batetik, abereak hil eta prestatzeko zerbitzua daukagu, eta, bestetik, zatitze zerbitzua. Azken horren barruan, hiru zerbitzu ezberdintzen ditugu: harategiei eskaintzen zaien zerbitzua, baserritarrei autokontsumorako eskaintzen zaiena eta, azkenik, salmenta zuzena egiten duten baserritarrei eskainitakoa.

## Zeini bideratutako zerbitzuak dira?

Gure bezeroen %70 harategi tradizionalak dira, eta %30 baserritarrak. Autonomia erkidego guztiari eskaintzen diogu zerbitzua. Erkidegoan lau hiltegi gaude, eta Gipuzkoan daude lau hiltegi horiek. Beraz, bertako baserritar edo harategiei lauen artean eskaini behar diegu zerbitzua. Hori dela eta,

guretzat oso garrantzitsuak dira bezero bizkaitar zein arabarrak, haien probintzian ez daukatelako hiltegirik eta gu oso ongi kokatuta gaudelako haiei zerbitzua eskaintzeko.

## Urtean zehar aldatzen da eskari kopurua?

Bai, aldatzen da. Normalean, gure lan sasoi garrantzitsuena urrian hasten da, eta maiatzera arte irauten du. Udan, nabaritzen da komertzio asko itxi egiten direla edo jendeak beste elikagai batzuk erosi eta okela gutxiago kontsumitzen duela. Ardi azienden kasuan, adibidez, gure lana pilatzen da abenduan (Gabonetako kanpaina dela eta) eta martxotik hasita maiatzera arte.

## Nola ikusten duzu etorkizuna epe motzean?

Egia da lehen sektorearen egoera zaila dela. Lehengaien prezioak gora egin du, eta horrek sektorea kinka larrian jar dezake. Hala ere, gure zerbitzuari dagokionez, behar-beharrezkoa den zerbitzua dela ikusten dugu, eta, ondorioz, etorkizun ona izatea espero dugu. Baserritar, ustiategi edo komertzio txikiei zerbitzua ematen diegu, eta hori oso beharrezkoa iruditzen zaigu.



## Realaren eta Bartzelonaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Bartzelona norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reala-Bartzelona: azaroaren 4an, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 29.



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm:  
batzen gaituen  
distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!







Erdiguneko alkatetza osatuko duten ordezkariak, udaletxe azpian. ARRASATEKO UDALA

## Bost auzo-alkate berriak izendatu dituzte asteon

Erdiguneko auzo-alkatea Eneko Fernandez izango da (EH Bildu); Musakolako, Ione Arizabaleta (EH Bildu); Santa Marinakoa, Victoriano Fuentes (PSE-EE); San Andreskoa, Pepi Gorosabel (EAJ-PNV), eta Uribarrikoa, aldiz, Ion Petreñas (EH Bildu)

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Arrasateko Udalak dagoeneko osatu ditu udalerriko bost auzo-alkatetzak. Ohi moduan, udal hauteskundeetan auzo bakoitzean izandako emaitzen arabera osatu dituzte auzo-alkatetzak ere. Mainer Morras Arrasateko alkateak azaldu duenez, herrian "mugarri garrantzitsua" da alkatetza horien eratzea, herritarren parte-hartzea "indartzeko" prozesuan. "Konpromiso irmoa adierazten dute herritarren aho-tsarekin eta partaidetzarekin, tokiko erabakiak hartzerakoan".

Era berean, alderdi politiko bakoitzak auzoetako alkatetzetan bere ordezkariak izendatu du, "udalerriko aniztasuna islatuz". Aste honetan gauzatu dute prozesua eta, ordezkariak izendatu ondoren, auzo bakoitzeko alkatea hautatu dute bozketa demokratikoaren bidez, "auzo-organo horien legitimitatea eta ordezkagarritasuna bermatuz".

Modu horretan, Erdiguneko auzo-alkatea Eneko Fernandez

izango da (EH Bildu); Musakolako, Ione Arizabaleta (EH Bildu); Santa Marinakoa, Victoriano Fuentes (PSE-EE); San Andreskoa, Pepi Gorosabel (EAJ-PNV), eta Uribarrikoa, aldiz, Ion Petreñas (EH Bildu).

### Herritarren entzuteko tresna

Herritarren entzutea eta haiek parte hartzeko gune eta tresna izatea da auzo-alkatetzaren helburua, Morrarak adierazi duenez. Hori dela eta, daukaten garrantzia azpimarratu du: "Auzoetako alkatetzak bizilagunen parte-hartzea areagotzeko tresna izatea nahi dugu, herritarren entzun eta udalarekin bitartekotza egitea. Auzo bakoitzari dagozkion aukerak eta arazoak identifika-

**FUNTSEZKOAK IZANGO DIRA TERRAZEN ORDENANTZA SORTZEKO ETA TAO-N ALDAKETAK EGITEKO**

tzeko elkarriketa-tresna izatea nahi dugu. Beraz, hurbileko tresna izango da, iritziak eman eta udal-jardura ezagut dezaten. Gainera, herritarren beharrak identifikatzen lagunduko digu".

Hala, Gobernuak konpromisoa hartu du herritarren parte-hartzea indartzen jarraitzeko, "tokiko gobernuaren eta arrasatearren arteko lankidetzak estu eta eraikitzailea sustatuz".

### Terrazren ordenantza eta TAO

Alkatetza horiek "eraginkorrak" izan daitezke, Udalak Auzoetako zinegotzia ezarri du, Mikel San Miguel, hain zuzen, eta lehen bi proiektu parte-hartzaileak azaldu ditu: "Auzokideen iritzia entzun gura dugu. TAO sistemaren egin beharreko hobekuntzak eta tabernetako terrazetarako buruzko ordenantza sortzea garrantzi handikoak dira gure udalerritarren artean. Bizilagunen eta ostalaritzako profesionalen arteko adostasuna dugu helburu, bizikidetzak hobetzeko".

## Musakolako gaztetxokoari agur esango diote gaurko ekitaldian

Aurpegi-margotzea, Rebel Noise eta Hankaz Gora taldeen kontzertuak, eta afari musikatua izango dituzte

### E.A.B. ARRASATE

Hainbat urtez 12 eta 17 urte arteko nerabe askoren bilgune izan da Musakolako gaztetxokoa, baina eraikina bota beharrean dira, Arrasate Herri Eskolaren proiektu berria dela eta.

Hori dela eta, agur ekitaldia egingo dute gaur, 17:30ean aurpegi-margotzearekin hasita. Gero, 18:00etan, Musakolako gaztetxokoarekin lotura zuzena eta berezia duten Rebel Noise eta Hankaz Gora taldeek kontzertu akustikoak eskainiko dituzte, eta, 19:00etan, afari musikatua

egin dute. Ekintzak auzotar guztiei zuzenduta egongo dira, ez bakarrik nerabeei. "Urte askotan zehar gaztetxokoaren inguruan hainbat eta hainbat gaztek bizi izan dituzten momentu berezi asko gogoratzeko unea izango da ostiraleko jaia. Beraz, auzotar guztiei parte hartzeko gonbidapena luzatzen diegu", azaldu dute Udaletik.

Udal Gobernuak azaldu du hainbat aukera aztertzen ari direla gaztetxoko berria jartzeko, baina oraindik ez dutela erabaki ez lekua, ezta data ere.

## Jardunaldi feministak gaur eta bihar, urteurrena ospatzeko

Emakume Txokoaren 20. urteurrena borobiltzeko, *Nahinorana* jardunaldiak egingo dituzte. "Ospatzeko erabili gura ditugu, badugulako zer ospatu eta zer goraiatu. Era berean, 20 urtek ematen dute hausnarketarako eta mahai gainean dauden gaien inguruan eztabaidatzeko", dio Maite Barreñak, Arrasateko Udaleko Berdintasun Saileko arduradunak. "Gaur, politika publikoetan eta deskolonizazioan zentratuko gara nagusiki eta LGBTIQ+ politikari buruzko tailerra eta omenaldia ere egingo ditugu. Bihar, berriz, justizia feministaz, adin txikikoenganaiko abusuez, sindikalgintzaz eta politikaz ariko gara gehienbat".

## 'Haurren aurrean helduok heldu' bukatzeko jaia Biterin

Urriaren 19an hasita, kartelak jarri, ikastetxeen kanpoaldean informazioa eta txapak banatu, haurrekin euskaraz jolasteko tailerra, eta bestelakoak egin dituzte. Asteburu honetan bukatuko dute ariketa soziala, eta, bukaera emateko, helduentzako abilezia jolasak eta txokolate jana egingo dituzte Biteri plazan, 17:30ean hasita.

## Asteazkenean bilgune berria inauguratuko du EH Bilduk

Azaroaren 1ean, Herri Batzarra egitearekin batera, bilgune berria inauguratuko du EH Bilduk, 11:00etan hasita. "Lehen aldiz Zurgin kantoiko 3. zenbakian elkartuko gara Herri Batzarrean, eta, ostean, mokadutxo egingo dugu bilgune berriaren alde topa egiteko", azaldu dute.

Herri Batzarren dagokionez, hiru gai nagusi landuko dituzte: "Batetik, kokapen politikoa, egungo egoera politikoari erreparatu eta ikasturte honetarako ditugun erronkak aztertuz; bestetik, udalgintza, Udal Gobernu berreskuratu genuenetik, udalaren analisi eta asmoak azalduz; azkenik, herrigintza, estrategia eta berregituratzea landuz".

## Azaroaren 30eko grebaren lanketa herrira zabaltzen

Denon Bizitzak Erdiguneko taldeak azaroaren 1ean egingo du hurrengo asanblada, 18:30ean, Etxaluzen. Edozelan ere, lanke-ta herritarrei zabaltzeko asotan, Seber Altuben elkartuko dira gaur, alde zaharreko taberna eta komertzioetara joateko. Astelehenean, halaber, gauza bera egingo dute San Andresen eta Musakolan.



# Krisi ekosozialaz ariko da Unai Pascual ikerlaria

Harreman dendaren 25. urteurreneko ekintzak borobiltzeko, Ikerbasqueko ikerlariak *Klimaz haratago, krisi ekosoziala* hitzaldia egingo du urriaren 30ean, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean. "Ingurumen krisiaz gain, krisi soziala ere bizi dugu", dio

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE *Klimaz haratago, krisi ekosoziala* hitzaldia egingo du ikerlariak astlehenean. Adierazi duenez, egungo gizartearen eta ingurumenak bizi duen egoeraren diagnostiko bat egiten saiatuko da. "Ingurumen eta bioaniztasun krisiaz gain, krisi soziala ere bizi dugu, eta elkar elikatzen dute. Gizarte eta ekonomia eredu baten agortze fase batean gaude, eta norbanakoen balioak ere aztertuko ditugu. Izan ere, klima-aldaketa aipatzen dugu, baina gizarte moduan gabezia eta arazo potoloak ere badaude", nabarmendu du. Gabezia eta arazo horiek azaleratu ezean,



Unai Pascual ikerlaria. ANDONI CANELLADA/FOKU

dio zaila izango dela hori iraultzea: "Ez badugu arazoaren jatorria ulertzen, nekez jakingo dugu hori nola konpondu, eta ez dugu jakingo ze etorkizun gura dugun. Horregatik, jakin behar dugu zergatik heldu garen honaino, eta hausnarketa betaurreko egokiekin egin behar dugu". Arazo globalez gain, Euskal Herriko egoeraz ere egingo dute hausnarketa, politika energetikoez, esaterako.

## Esperientzia handiko ikerlaria

Unai Pascual Ingurumen Ekonomian doktorea da (Yorkeko Unibertsitatea, Erresuma Batua, 2002). Gaur egun, Ikerbasqueko ikertzailea da klima-aldaketari buruzko euskal zentroan (BC3), eta Bernako Unibertsitateko Garapen eta Ingurumen Saileko kidea da. Lehenago, irakasle titularra izan zen Cambridgeko Unibertsitatean 10 urtez, eta Manchesterreko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean eman ditu eskolak. 25 urte baino gehiagoko esperientzia du ekonomiaren eta ingurumen-aldaketa globalen arteko erlazioari buruzko ikerketan.

## 1967koak azaroaren 4an elkartuko dira; 1961ekoak, abenduan

1967an jaiotakoek Hilarion jaietxean bazkalduko dute azaroaren 4an. Izena emateko, 65 euroko ordainketa egin beharko dute Laboral Kutxako kontu honetan: ES07 3035 0044 88 0440040295. 1961ekoak, aldiz, abenduaren 2an Oñatira joango dira, egun osoko plana egiteko (80 euroko ordainketa, hemen: ES688 3035 0001 5600 1117 7328).

## OHARRAK

### Garbiketa Txetaan

IMMEk deituta, auzogunea garbituko dute etzi, 11:00etan hasita, bizikidetzaren sendotzea helburu hartuta.

### Mondravember

Gaur, egubakoitza, 17:30ean elkartuko dira King's ile-apaindegian, bibotea prestatzeko. Ostean, azaroaren 4an hasita, hilabete osoko egitaraua antolatu dute.

# Ondo dago gauzak ondo lotzea

## FALTA GARENERAKO

Gure doluminak helarazi nahi dizkiegu urtean zehar hildakoen senideei, eta bereziki San Felipeko bazkideenei.

Alfontso X Jakintsua 3, Arrasate • [www.sanfelipe.eus](http://www.sanfelipe.eus)  
 24 ordu: 943 532 910 • Bulegoa: 943 773 022



# Gaba Baltza, urtez urte indartzen ari den festa

Ekin Emakumeak Elkarteak, Doke Antzerki Eskolak, Amaidolua elkarteak, Ttak gazte taldeak, Ibai-arte elkarteak, Txatxilipurdi Elkarteak eta Arrasateko udal ludotekek zein gaztetxokoek elkarlanean antolatu dute egitaraua, dagoeneko martxan dagoena

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Urtez urte, gehiago dira Gaba Baltza antolatzen duten eragileak, eta aurten ere egitarau zabala antolatu dute, astelehenean hasita. Batetik, erakusleho lehiaketa martxan dute, Ibai-arteren eskutik. Honako komertzio hauek atondu dute erakuslehoak: Altuna lurrindegia, Arrasate optika-optometria, Bea lenteria, Beinke, Elkoro osagarriak, Eneka, Intersport Loramendi (Garibai), JG inpresio digitala, Kapikua, Kids&Us, Kili-Kolo, Kolore, Milar Elkoro, Portaloi optika, Resusta Karrikiri, Sustrai eta Toñi & Sandra.

Botoa emateko, 688 73 41 49 telefonora idatzi beharko dute herritarrek. Erakusleho onenaren saria 300 euroko bonua izango da, eta bigarren saria, berriz, 200 eurokoa. Halaber, bozkatzen dutenen artean 100 euroko bonua zozkatuko dute.

Bestalde, ludoteketan askotariko ekintza bereziak egin dituzte aste osoan, eta, 12 urtetik gorako nerabeentzako, Ihes bidea eta Beldur-etxea egingo dituzte tren geltoki zaharreko gaztelekuan, bihar eta etzi.

## Martitzena, egun berezia

Antolatzaileek aurreratu dute urriaren 31 egun berezia izango



Gaba Baltza iragartzeko egindako agerraldia, Monterronen. TXATXILIPURDI

dela. "18:00etan hasita, Arimen Biltzarra egingo dugu, Arrasateko kaleak girotuz. Biteriko plazan hasi eta Monterronera ibilbide bat egingo dugu Ilargitxo eta bere lagun kukumarruekin. Hori horrela, herritarrek animatzen ditugu kukumarruz edota baserritarrez jantzi eta kalera ateratzeko, guztion artean herria alaitu eta jai giroan gozatzeko", azaldu dute.

Ostean, Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik, Bizitzaren Jaia egingo dute 21:00etan, Son-yaguar Fuegoekin, elkartearen

lokalean (Pablo Uranga, 4). "16 urtetik gorako emakume\* eta genero disidenteentzako espazioa izango da", azaldu dute. Izena emateko, lokalera bertara joan edota 651 70 79 36 telefonora deitu beharko da, urriaren 30era arte. Kontuan hartu izen-emate mugatuak izango direla. Amaitzeko, AEDren Ttak gazte taldearen eskutik, herritar guztientzako disko-jartzaileak egongo dira gaztetxean, 22:30ean hasita: DJ Karapaixo, DJ Expuela eta DJ Pibikens. Sarrera doakoa izango da.

## Dulantzin izango da Doke Antzerki Taldea hilaren 10ean

Doako autobusa egongo da Arrasatek eta sarrera ere ez da ordaindu beharko, izena emanda

### E.A.B. ARRASATE

Hamazazpigarren edizioa izango du Dulantziko (Araba) jaialdiak, eta estatu mailako bederatzita talde hautatu dituzte jaialdian parte hartzeko. "Jaialdian parte hartzeko aukera izatea sari bat da guretzat", azaldu du Mainer Alcelayk, Doke Antzerki Taldeko kidea. Izan ere, Madrilgo, Valentziako, Alacanteko, Castelloko, Pontevedrako, Bilboko eta Gasteizko taldeekin ariko dira lehian.

Euskarazko emanaldi bakarra izango da Dokerena. "Horrek are eta harroago sentiarazten gaitu", gaineratu du Alcelayk. "Gure hizkuntza lan eta jolas lanabestzat hartu zuten duela hogeit urte antzerkia sortzeari ekin ziotenean, eta horri eutsi diote zintzo".

Arrasateko publikoa Dulantzin izatea gura dute. "Gure publikoaren babesa asko eskertuko dugu". Hala, autobusa antolatu dute, eta izena eman beharko da, 665 11 85 72 telefono zenbakira Whatsapp mezu bat bidalita, edota [dokeikastaroak@gmail.com](mailto:dokeikastaroak@gmail.com) helbidera mezu bat idatzita. Azaroaren 10ean izango da emanaldia, 19:30ean, Txema Blasco Kultura Etxeko auditoriumean. Sarrera ere doakoa izango da.



NIRE USTEZ

OIANA SANCHEZ

## 'Xanduli, manduli...'

Urriaren 31 hor bertan daukagula gogoeta egin dut. Mundu mailan geroz eta ospetsuagoa egiten ari den Halloween ospatzen da, gurean betidanik Gaba Beltza edo Arimen Gaua deritzona. Hau da, beldurraren gaua, ezustekoak ematekoa, antzinatik hildakoen gaua dena. Hala ere, argi daukat gaur egungo munduak eta bizi dugun errealitateak beldur gehiago ematen dutela Gaba Beltzak baino.

Umeak ikaratu nahi baditugu, ez dugu beste ezer egin behar; telebista aurrean jarri eta albistegia jartzearekin nahiko dugu. Palestinako genozidioa azkeneko adibidea dugu, baina egunero munduan gertatzen direnak ulertezinak iruditzen zaizkit. Besteak beste, gerra, hilketak, bortxaketa eta injustizia oro. Inoiz ohituko al naiz?

Gizakia planeta mehatxatzen ari da eta, aldi berean, espezie modura mehatxatuta dago. Laster Ama-lurrak beretik botatzeko, edo berekoikeria eta basakeriagatik desagertzeko aukera errealitate bihurtuko da. Bitartean, baina, telebista amatatu eta alai kantatuko dugu: *Xanduli, manduli, kikiriki... eman goxokiak guri!*



**Gualbi**  
aholkularitza  
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • [erana@aserana.com](mailto:erana@aserana.com) • [www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



# MUK Ibarako kantxan hartuko du Tabirako

Arrasateko senior mailako emakumeek aurrerantzean Aretxabaletako kiroldegian jokatu dituzte etxeko partiduak. Domekan 18:00etan jokatu dute durangarren kontra: "Pozik hartu dugu leku aldaketa", adierazi du Iñaki Ogarak

## Xabier Urzelai ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Tabirako Baque-ren kontra jokatuko du domekan etxean (18:00). Etxean jokatze hori, baina, aurrerantzean ez da Iturripen izango, eta bai Aretxabaletako Ibarra kiroldegian. "Ibarako kantxa oso ondo dago; zoru oso ona dauka eta lehenengo nazional maila moduko kategoria batendako oso kantxa egokia da; taldeak igarri egingo du. Neskak gogotsu daude bertan jokatzeke", adierazi du Iñaki Ogara kirol zuzendariak.

Hala, Ointxe!-koek oso modu positiboan baloratu dute Aretxabaletako Udaletik jaso duten laguntza. "Aurrerapausoa da guretako, Iturripen talde mordoak jokatzen dugulako; Ibarren jokatzeak arnasa emango digu". Eta domekako partidurako, Ointxe!-tik zaleak animatu nahi dituzte. "Zaleei esan nahi diegu aurrerantzean ere euren beharra izango dugula, eta Ibarra geraturatu daitezela".

## Tabirako, indartsu

Domekan moreek aurrean izango duten taldea ondo dabil ligan; durangarrak kontrario gogorra izango dira. Tabirako Baquek

jokatu dituen lau partiduetatik hiru irabazi ditu, eta aurreko bost taldeen multzoan daude sailkatuta. MURI, berriz, joan den astean Mesplet Trucs Unibasket-en kontra lortutako garaipenak (63-76) on egingo dio, azken hiru partiduak galtzetik zetozen-eta.

## EBAko taldea Palentziara

EBA mailako MUK, berriz, Palentzian jokatuko du zapatu arratsaldean (19:00). Arrasatekoek Grupo Inmapa izango dute aurrean, arrasatearrekin batera ligan bi garaipen batu dituen taldea, eta biak ala biak ondo-ondoan daude sailkapenean.

Hain zuzen, joan den astean arrasatearrek ligako oilarretako baten kontra – LBC Cocinas– galdu egin zuten (72-85), baina Berrocalen mutilak bi garaipen jarraian eskuratzetik zetozen.



MUKo jokalariek Lointek Gernikaren kontrako partiduan. GOIENA

## Elorrietakoren bisita, bihar

Joan den astean hirugarren postuan dagoen Gasteizko Aurreraren kantxan 4-4 egin eta gero, Mondratek Elorrietako hartuko du bihar Musakolan (16:15). Bizkaitarrak hamaikagarren postuan daude sailkapenean, eta Tolosan jipoia jasotzetik datoz (6-0); arrasatearrak, berriz, seigarren postuan daude.



GOIENA







# BEZa\*

oparituko dizugu

elikagaietan, freskoetan,  
drogerian, lurrindegian,  
parafarmazian eta maskotetan.

60 €-tik gorako erosketetan.



EROSKI App-a lehen aldiz deskargatzen baduzu

5€\*\* opari



Urriaren 31ra arte baina ez!



\*EROSKI klubeko bazkideak bazara, Euzkadiako, Nafarroako, Erikoako, Kantabriako eta Málagako EROSKI Hipermerkatuetan, EROSKI Club txartelean sar daitezkeen gehieneko zenbaterako: 250 €. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko dendan, baita supermercatu.eroski.es/eu webgunean ere.

\*\*Urriaren 24tik 31ra App-a lehen aldiz deskargatzen duten eta lehen aldiz izena ematen duten bezeroentzat. 5x40C erosketa-kupola App-a deskargatu denetik gehienez ere 7 eguneko epean egongo da eskuragarri.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE.

Tel.: 943 71 10 30





Joan den martitzeneko Giza Biblioteka saioan, elkarrizketa irekiak Kulturateko helduen bibliotekan. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

## Literaturaren alderdi humanoari gorazarre

Udal Bibliotekak "arrakastaz" garatzen dihardu beste urte batez Bibliotekaren Egunaren bueltako egitaraua. Azken bi asteotan, tailer, ikuskizun eta elkarguneak eskaini dituzte. Azaroaren 2an jarriko diote ginga haurrentzako poesia kontaketarekin

**Hasier Larrea** ARRASATE

Kultura eta elkarrizketak sustatzeko egiten dute lan bibliotekariak, obra guztien oinarrian egileak eta hartzaileak daudela aintzat hartuta. Urriaren 24ko Bibliotekaren Eguna baliatzen dute eguneroko lanari dimentsio handiagoa emateko, eta aurten ere asmatu dute ekitaldi desberdinen bitartez publikoa erakartzen. Tailer ludikoekin, esaterako, haurrei filosofia –beste hiru saio dituzte aurretik– eta familiei zientzia eta teknologia gerturatu diete. Musikak ere behar duen tokia hartu du, aurtengoan, ikus-entzunezko beretosetan oinarritutako Anonyme Popular ikuskizuna ekarrita.

**Bizipenak kontatzen**

Giza Biblioteka da, beharbada, Arrasaten egiten den ekimenik bereziena. Martitzenean garatu zuten bizi esperientzietatik abiatzen den elkarrizketa saio irekia. Sei herritarrek ondo baino hobeto ezagutzen dituzten errealitateen berri eman zieten 60 entzuleri. Asun Agiriano bibliotekariak azaldu du zein den dinamika: "15 minutu irauten duten eta aldi berean izaten diren solasaldiak dira. Entzuleek aukera dute kontalari batekin egon ostean beste batengana joateko; txanda guztiak beteta, gehienek hiru istorio ezberdinen berri izan dute, baina egon da guztiak entzun dituenik ere".

Liztor asiarrarekin dagoen arazoa, transexualitatea, ekintzailetasuna, saharar errefuxiatuen errealitatea, autismoa eta zuhaitzen egoera izan dituzte hizpide aurtien bosgarren aldia bete duen ekimenean.

**'Poltsikorako poemak', ahoz**

Egitaraua borobiltzeko, azaroaren 2an, eguena, *Poltsikorako poemak* ilustrazio-bilduman jasotako istorioak kontatuko dituzte Saroa Bikandik eta Amaia Egidazuk, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan. 4 urtetik gorakoentzako saioa izango da, eta bertaratzeko izena eman beharko da aurrez Udal Bibliotekan edo *Arrasate.eus*-en.

## Ziorla Fest jaialdia, herriko musikarien zuzeneko beteta

Asteburuan zehar tokiko kontzertu ugari egingo dira Musakolako tabernetan eta 'Sanisidrock' plazan

**H.L. ARRASATE**

Musakolako Jai Batzordeak bigarren antolatu du Ziorla Fest jaialdia. Apustu sendoa egin dute, guztira bederatzi musika emanaldi antolatu baitituzte asteburu honetarako, "Zigarrolari kolorea eta bizia emateko". Antolatzaileek esker ona adierazi diete jaialdian parte hartuko duten artista guztiei.

Egitarauari gaur, ostirala, ekingo diote Julene eta Unai musikariek, Gaindegina, 20:00etan. Bihar izango da egun handia, goizetik gauera etengabeko emanaldiak jarraitu ahalko baitira bertatik bertara; 11:00etan gaiteroen dianarekin hasi, eta 12:30ean Garazik eta Salak formatu akustikoan joko dute Iluna eta Josu kafetegiaren artean. Bazkalostean, 17:00etan, Jim TNT bakarlariaren txanda izango da Jew Juliwerren, eta, or-

dubete geroago, Hankaz Gora punk-rock talde gaztearena, Beberlyn. Bien bitartean gazte-txoendako disko-festa gidatuko du Goiko DJak, herri-eskolako aterpean.

**Plater nagusia, bihar iluntzean**

19:30etik aurrera *Sanisidrock* plazako karpa erraldoian bolumen betean joko duten bost taldek hartuko dute protagonismoa: Hauek azkoitiarrek, Oihu! aretxabaletar eta eskoriatzarrek, Zeker elorriarrek, Suzio 13 madrildarrek eta Des-kontrol arrasatearrek.

Domeka eguerdiko poteoan ere egongo da zuzeneko musika. Ibai-arteren egitarauetan parte hartutako Tolin mariatxiak Ziorla tabernan eskainiko du emanaldia 12:30ean, eta, ordu berean, Patxi Luque gitarra-jolea arituko da Txinatón.

## 'Nahinorahani' egitarauko kontzertua egingo dute bihar

Emakume Txokoaren eskutik, *Nahinorahani* jardunaldi feminista burutuko dute asteburuan –ikus 10. orria–, eta kultura kutsuko emanaldiek ere izango dute tokia. Zapatuan, hilak 28, 22:00etan, Belen Nevado Mendez aktoreak *Masa madre* bakarriketa eskainiko du gaztetxean, punk eszenako emakumei eta feminismoari buruzko mikro-an-

tzerkia. Jarraian, Alarma Morea musika taldeak hartuko du ohol-tza, runba doinuak maite dituztenen gozagarri. Bukatzeko, DJ LatxirOngak jarritako kantuei emango diete paso.

**Osteguneko Kooltur**

Datorren astean azaroko lehen kontzertua eskainiko du Kooltur Ekintzak, ohi bezala, eguenean, 22:00etan, gaztetxean. Not Scientists izango da gonbidatua, Lyongo –Frantzia– punk, indie eta rock estiloko banda.



**VITALDENT  
ARRASATE**  
Otalora lizentziaduna kalea 1  
**943 06 03 22**

(1) 200 €-ko deskontua TRATAMENDU HONETAN: INPLANTEA + KOROA. Eskaintza 2023ko urriaren 9tik azaroaren 30era bitartean (biak barne) kontratatuko diren tratamenduetan aplikatuko zaie. Ez da metagarria beste deskontu eta sustapenekin. RS: CS10715 (2) **Finantzaketa adibidea 3.000,00 €-ko zenbatekoa 36 hilabetetarako. Lehenengo kuota: 233,33 €, 83,33 €-ko 34 kuota eta azken kuota: 83,45 €. Formalizazio komisioa % 5 (150,00 € lehen kuotan ordaintzeko), ITN % 0,00, UTB % 3,40. Guztizko interesak: 0,00 €.** Kredituaren kostu osoa: 150,00 €. Zordundutako guztizko zenbatekoa eta epkakiko guztizko prezioa: 3.150,00 €. Eskurako erosketa-prezioa: 3.000,00 €. Amortizazio-sistema frantsesa. Banco Cetelem S.A.U. banketuek eskainitako finantzaketa. Sustapenaren irautaldia: 2023/12/31ra arte. RPS 43/21

**200€-KO**  
DESKONTUA  
INPLANTEA  
+ KOROA<sup>(1)</sup>

**3 URTETAKO  
FINANTZAKETA**  
INTERESIK GABE

ITN % 0,00 **UTB % 3,40<sup>(2)</sup>**





Urriaren 22an egindako irekiera ekitaldian, gaztetxoak. IMANOL SORIANO

# Nerabeendako Gazte Txokoa zabalik dago

Domekan egin zuten inaugurazio ekitaldia. Herriko 12 eta 16 urte bitarteko nerabeei zuzendutako gunea da; frontoian egokitu dute gela. Herriko lau gazte izango dira dinamizatzaileak, eta asmoa da domeka arratsaldetan zabalik egotea

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Nerabeei zuzendutako aisialdian zegoen hutsune bat betetzeko asmoz, Aramaio Udalak Gazte Txokoa zabaldu du. Kiroldegian egokitu dute gunea, 12 eta 16 urte bitarteko nerabeei zuzenduta. Domekan, urriaren 22an, egin zuten inaugurazio ekitaldia; 25 bat nerabe elkartu ziren.

Udalak Txirritola euskara elkarteari eskatu dio kudeaketaz arduratzeko. "12-16 urte bitartean aldaketa handiak izaten dituzte Aramaio nerabeek: Arrasatera ikastera joaten dira, Aramaion ez dira aisialdirako ekintzak eurentzat antolatzen, eta aste bukaeratan, ez dute elkartzeko gunerik", azaldu du Euskara eta Hezkuntza zinegotzi Amaia Pavonek. Garai hori izaten da herriarekin nolabait lotura apurten duten garaia, eta ez bakarrik herriarekin, baita euskararekin ere. Bada, egoera horren aurrean, beste herri batzuetan dauden moduko Gazte Txoko baten beha-

rra zegoela ikusi zuten Udal arduradunek.

Gazte Txokoa ez da bakarrik espazio bat izango: "Aisialdi programatua izango duen gunea izango da, edukiz betetako aisialdia; handitzen direnean eta erabateko autonomia dutenean ez dute horrelako beharrik izango gazteek".

## Txirritola eta hezitzaileak

Txirritola Euskara elkarrekin hartu du gunea kudeatzeko arduraduna. "Kuri osoa da nola Aramaio euskararen arnagunea den herria izanda, nerabeak Arrasatera joaten direnean gaztelarrik indarra hartzen duen", dio Txirritolako kide Aitziber Aginagalek.

## NERABEEK HALA ESKATUTA, DOMEKA ARRATSALDETAN ZABALDUK DUTE GAZTE TXOKOA

Udalaren eskaerari baiezkoa eman zion Txirritolako, nerabeen aisialdian euskarak izan behar duen tokiaz ohartuta. Hala ere, beldur pixka bat izan dutela dio: "Txirritola elkarrekin txikia da, eta honek lan-karga eta inplikazioa eskatzen du. Beldurra ematen zigan elkartera etorkizunean etorriko direnek ze lan-karga izango duten pentsatzeak".

Gazte Txokoa dinamizatze herriko lau hezitzaile hartu dituzte. Binaka egingo dute lan.

## Eskaintza, domeketan

Aginagalek 15 eta 16 urte bitartekoak animatu nahi ditu: "Gaztetxoagoak etorri ziren inauguraziora, baina guztiak etor daitezten animatu nahi ditugu. Hezitzaileak daude adin guztiei erantzuna emateko prest". Nerabeek hala eskatuta, domeka arratsaldetan zabalduko dute Gazte Txokoa. Gainera, espazio huts bat dena nerabeen inplikazioarekin dekoratu eta hornitu nahi dute.

## Askotariko postuak izango dira bihar Jubilatuen Egunean

11:00etatik aurrera produktu eta animalien azoka egingo dute, eta bazkaria 14:30ean izango da

### A.E.G. ARAMAIO

Aramaio Jubilatuen Eguna ospatuko dute bihar. Goizean animalien eta produktuen azoka egingo dute Nardeaga kalean: herriko nekazariek eta artisauek 20 postu jarriko dituzte, eta beste hainbeste jarriko dituzte Aramaio kanpo etorritakoek. Animalien azokan astoak, behiak, behorak eta oiloak egongo dira. Gaur arratsaldetan, parke pareko kale zatia itxi egingo dute, animalien azoka prestatzeko.



Azokako postua. GOIENA

### Meza eta bazkaria

Bizente Goikoetxea abesbatzak eta Papargorri abesbatzak lagunduta meza izango dute 12:00etan, San Martin elizan, eta, ondoren, Lagun Artean dantza taldearen erakustaldia eta trikiti kalejira izango dute. Erretiratuek bazkaria izango dute

14:30ean kiroldegian. Bazkariaren ondoren, opariak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean.

Trafikoari dagokionez, zapatu goizeko 08:00etarako, Nardeaga 30etik behera eta Pedro Ignazio Barrutia 7-9an aparkalekuak libre egon beharko dira.

## Gaba Baltza egingo dute herriko zenbait eragilek antolatuta

Aramaio Herri Eskolak, Elkartasuna guraso elkarrekin, Txirritola euskara elkarrekin, Aramaio Udalak eta Marrazkilo sormen akademiak elkarrekin antolatu dute Gaba Baltza. Martitzenean, 17:00etan, mozturro tailerra izango dute; 18:00etan, ipuin kontalaria; 19:00etan, kalejira beldurgarria, eta, ondoren, musika, plazan.

## Adingabeekiko sexu erasoei buruzko aurkezpena

Lolaren bizikleta ipuina aurkeztuko dute astelehenean kultura etxean. Adingabeekiko eraso sexualen prebentziorako eta detekziorako estrategiak emango dituzte. Aurkezpena zuzenduta dago gurasoei, familiei eta adingabeekin lan egiten duten profesionalari. Kultura etxean izango da aurkezpena, urriaren 30ean, 18:00etan.

## Eguzki taldearen erromeria, Goiena telebistan ikusgai

Irail amaieran erromeria egin zuen Eguzki taldeak Barajuen auzoko frontoian. Bada, ekitaldia grabatu egin zuen Abaok, eta asteburuan Goiena telebistan emitituko dute. Zapatuan 22:00etan botako dute *Eguzki taldea eta lagunak* ikus-entzuzkoak, eta domekan, 16:00etan. Ordu eta erdiko iraupena izango du saioak.

## Basoak kudeatzeko aplikazio aitzindaria aurkeztuko dute bihar

Tantai baso kooperatibak, Errez kooperatibak eta Agresta kooperatibak elkarrekin garatu duten Zuk.Tantai aplikazioa aurkeztuko dute bihar, 11:30ean, Sastiñan. Tantai bere bazkideekin komunikatzeko erabiliko duen aplikazioa da aurkeztuko dutena; erkidego mailan aitzindaria den aplikazioa da Zuk.Tantai.





Etxaniz, Iturbe, del Blanco, Beltran de Heredia eta Gomez, martitzeneko aurkezpenean. MIRARI ALTUBE

## Osasunean irabazteko, komunitatean eragin

'Ilusioa/inklusiua' ekimena bigarren jarriko dute abian Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek, Aretxabaleta kirol elkartearekin batera, bitza osasuntsua sustatzeko aldera; horretarako ekintza sorta antolatu dute bi herrietan

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Osasuna eta komunitatea batzen dituen *Ilusioa/inklusiua* ekimenaren bigarren aldia aurkeztu dute astean Aretxabaletako alkate Gari Iturbek, Maider Etxaniz Udaleko Gazteria teknikariak, Myriam Beltran de Heredia Prebentzio teknikariak eta Alvaro del Blanco eta Iker Gomez

UDako kideek –Eskoriatzako Udal ordezkariak ez zuten egotarik izan–. Bizitza osasuntsua sustatzeko gizartean antzematen diren hainbat arazo bistaratzea, horien gainean sentsibilizatzea, eta eztabaida mahai-gaineratzea da helburua, eta, horretarako, hainbat hitzaldi izango dira datozen asteetan.

**Ekimena "estrategikoa"**

Gari Iturbe alkateak balioan jarri du ekimena: "Ilusioa osasunarekin lotzen dugu, eta inklusiua, komunitatearekin. Programa hau komunitatean sortutako zerbait da, hainbat eragileren parte-hartzearekin, eta elkar-eragintzatik ekarpenak egin gura ditugu".

UDarentzat ere estrategikoa dela ekimen hori gaineratu du Gomez kudeatzaileak: "Kirol elkarteak antolatutako beste hainbat ekintza legez, hau ere, herriari begirakoa da, komunitate bat sortzeko".

**Futboleko bortizkeria**

Adin talde guztiei –haurrei, gazteei eta nagusiei– eragiten dieten "arazoak" landuko direla jakinarazi dute antolatzaileak; lau gairi helduko diete, hain zuzen ere: antsietatea, jazarpena, bakardadea eta futbol zelaietako bortizkeria. Eta formatu ezberdinetan jorratuko dituzte horiek. Guztiak izango dira irekiak, eta parte hartzeko ez da izenik eman beharrik egongo.

Antsietatearen gaineko hitzaldia Hariak proiektuko psikologo Leire Urria aretxabaletarrak egingo du. Gazteen ongizate emozionalean eragiten duten nahaste nagusiei buruz informazioa partekatzea eta gazteen osasun mentala zaintzeko ekarpenak egitea da horren xedea.

*Un pequeño mundo* (Belgika, 2021) filmak, oster, ikastetxe barruko jazarpena du gai. Eta bakardadearen gaineko esperientziak partekatuko ditu Hugo Agirrezabal hizlariak.

Mahai-inguruan, azkenik, futbol zelaietan izaten den bortizkeria eta presioa izango dute aztergai. "Azken bi-hiru urteetan hainbat arazo izan dira harmailetan, egoera bortitzak, baina ez

da landuko hori bakarrik. Gurasoek, esaterako, presioa eragiten dute gazteengan, eta uste dugu hori ez dela batere positiboa", azaldu du UDako Gomezek.

## Egitaraua

**Azaroak 7**

- **Hitzaldia:** *Sare sozialak, alkohola, janaria... Ba al dago antsietatea kenzeko beste modurik?*
- Hizlaria: Leire Urria.
- 18:00, Arkupe (Aretxabaleta).

**Azaroak 19**

- **Filma:** *Un pequeño mundo*.
- 19:00, Zaldibar (Eskoriatza).

**Azaroak 28**

- **Hitzaldia:** *Maneras de combatir la soledad*.
- Hizlaria: Hugo Agirrezabal.
- 18:00, Zaldibar.

**Abenduak 13**

- **Mahai-ingurua:** *Zergatik aldatzen gara futbol zelaietan?*
- Hizlariak: Agurtzane Elkoro, Jose Javier Barkero eta Futbol Mas elkarteak kide bat.
- 18:00, Arkupe.

## Euskararen aurkako epaia, "toki-autonomiaren aurkakoa"

Euskararekiko konpromisoaren eta euskararen erabilera sustatzeko kontrakoa dela diote Udal taldeek

**M.A.** ARETXABALETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak EAEko Udal Legeari buruz egindako epaia toki autonomiaren aurkako dela, eta hizkuntza arloko udal eskumenen garapen osoa mugatzen duela adierazi du Aretxabaletako Udalaren bozera-maile batzordeak –EAJ eta EH Bilduko ordezkariak osatuta– adierazpen bidez, Eudelen ildo beretik. Gaineratu dut udalek euskal herritarrei ematen dizkieten zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko oztipo

dela epai hori, eta herritarrek gonbidatu dituzte Kontseiluak deitutako manifestaziora.

**Autobusa manifestaziorako**

Azaroaren 4an izango da manifestazioa, Bilbon, *Oldarraldiaren aurrean euskararekin bat, euskaraz bat* leloarekin, eta Lora-mendi elkarteak ere bertara deitu ditu aretxabaletarrak. Horretarako, autobusa antolatu dute, eta, izena emateko, Lora-mendiren bulegora edo Urbaltz tabernara jo daiteke; azken eguna urriaren 31 da.



IRATXE BENGOA

## Batukada doinuak Aratzekoekin

Aratz elkarteak, Arrasateko Sanbamaña taldekoekin lagun eginda, batukada doinuekin bete zituzten herriko kaleak, joan den egubakoitzean. Atzegiren aurtengo kanpainaren berri emateko antolatutako ekitaldia izan zen. *Ni prest nago eta Gipuzkoa?* leloarekin adimen desgaitasuna duten pertsonen enplegurako eskubidea aldarrikatzen du kanpaina horrek.

## Erosketa-txartelen kanpaina jarri du abian Udalak

Bonuen aurtengo bigarren kanpaina jarri zuen abian Udalak, atzo, eguna. Erosleek 30 euro ordaindu eta 50 euroko balioa duen txartel-sorta eskuratuko dute, Aretxarte elkarteari atxikitako 40 bat establezimenduetan erabiltzeko. 16 urtetik gorako aretxabaletarrek eros ditzakete, nortasun agiria erakutsita, eta bakoitzak bakarra hartu ahal izango du. Arkupen salduko dituzte Aretxarte kideek, 10:00etatik 19:00etara bitartean, agortu artean.

750 bonu-sorta atera dituzte, eta bakoitzean datoz 20 euroko txartela eta 10 euroko eta 5 euroko bina. Azaroaren 20a da horien iraungitze data.





Neska-mutikoak, su-ziriak eskuetan dituztela, Herriko Plazan elkartuta, iaz. LORAMENDI ELKARTEA

# Arimak batuko dira, Gaba Baltza ospatzeko

Ihes gela, kontakizun ilunen lehiaketa, umeendako tailerra, kale-eskea eta beste hainbat kontu izango dira datozen egunetan; ekitaldi nagusia, 'Arimen gaua', urriaren 31n egingo dute Herriko Plazan, dantzek, argiek eta musikak bat eginda

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Gaba Baltza sendotzeko orain dela sei bat urte abiarazitako ahaleginak fruitua eman du, eta dagoeneko jaiaren zain izaten dira umeak, gaztetxoak zein helduak.

Atzo, eguena, zabaldu zuten udaletxe zaharrean kokatu duten *Arimen argia* izeneko ihes gela, eta azaroaren 8a bitartean 33 saio izango dira. Izen-emate epea zabaldu orduko bete dira txanda guztiak; hirugarren urtez egingo duten honek halako ikusmina sortu izanaren arrazoia azaldu du Loramendiko dinamizatzaile Ainhoa Sanchezek: "Misterioak, jokoak eta irtenbide bat topatu beharrak eragiten duten adrenalina dira gakoa. Gurea, gainera, oso etxekoa da, oso herrikoa, eta horrek ere badu xarma. Jende mordoak geratu da leku barik; hurrengo urtean izan beharko da". 17:30eko txanda guztiak 8 eta 11 urte arteko gaztetxoendako izango dira; horiek heldu batekin parte hartu behar-

ko dute, derrigorrez. 12 urtetik gorakoak, berriz, 18:30ean eta 19:30ean sartuko dira.

Astelehenean, ostera, umeek tailerrak izango dituzte ludoteketan 17:00etan; izarak eroateko eskatu diete horretarako.

## Kontakizun ilunen lehiaketa

Kontakizun ilunen lehiaketa ere abian da. 16 urtetik gorakoei bideratu diete, eta formatua librea da. Orri bakarrean -PDF formatuan- aurkeztu beharko dituzte kontakizunak, eta honako helbidera bidali: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus). Izen-abizenak eta adina zehaztu beharko dira hor. Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 28a da, eta martitzenean, Herriko Plazan

**'ARIMEN ARGIA' IHES GELAN PARTE HARTZEKO 33 TXANDA EGIN DITUZTE ETA GUZTIAK BETE DIRA**

egingo den ekitaldiaren bueltan, idatzitakoak irakurtzeko aukera emango diete egileei.

## 'Arimen gaua' ekitaldia

Ekitaldi nagusia hilaren 31n izango da, eta horregatik, herria apaintzeko deia egin dute, kalabazak, kandelak eta panpinak erabilia, esaterako. 18:00etatik 19:00etara bitartean kale eskea egingo dute neska-mutikoek, koplak abestuta. Ekimenarekin bat egin duten komertzioek identifikagarriak izango dituzte, eta saria emango diete trukean abeslariei.

*Arimen gaua* izeneko ekitaldia Herriko Plazan izango da, 20:00etan. Arimen bizitza, hildakoen eta bizien arteko harremana eta beste hainbat kontu irudikatuko dituzte dantzen eta musikaren bitartez, arimek, arima-zaintzaileek eta deaburtxoek. Loramendi elkartearen kideekin batera Jaikikoen, oihal-ikuskizunekoek eta kantu poteoek hartuko dute parte.

## HISTORIAKO PASARTEAK



Ume austriarrak jaunartze egunean. ARETXABALETAKO UDAL ARTXIBOA

## II. Mundu Gerraren amaieran europar umeak Aretxabaletan

Austriako sei gaztetxo hartu zituzten hainbat familiak, eta 1949ko irailean lehen jaunartzea ospatu zuten

### Goiena komunitatea

Aitor Antxia Leturia / ARETXABAETA

Bigarren Mundu Gerraren ondorioz, Europa gehiena (ia osoa) suntsituta gelditu zen. Giza bizitzaren galera eta herrien suntsipenetik aparte, albo kaltetu gertatu ziren hainbat umezurtz, ez laguntza, ez sorospen.

Gerra amaieran, 1945ean, Udalak Aldundiko presidentearengandik jaso zuen idatzia, eta honela luzatzen zuen eskaintza: "*Vista la generosa iniciativa de nuestro invicto Caudillo de brindar a la Europa devastada por la guerra la hospitalidad en España para 50.000 niños necesitados, la Corporación acordó por unanimidad contribuir a rasgo tan generoso de nuestro Caudillo, y se prestó a colaborar con la hospitalidad en esta villa de niños necesitados, de conformidad a las disponibilidades que se cuente*". Honela, Udalak onartu egin zuten

proposamena, eta familia batzuek austriar neska-mutikoak jaso zituzten etxean.

Guztira sei gazte heldu ziren: hiru neska eta hiru mutil. Gunter, Neiman, Helene, Karl eta beste bi. Eta hartu zituzten honako etxeetan: Bernardino Zubia, Toribio Elcoro, Romualdo Leñizbarrutia, Etxabe harategia eta Santixena.

1949ko irailaren 9an lehen jaunartzea ospatu zuten Aretxabaletako Jasokundearen Parrokian. Argazkian aita-ama ponteokoen agertzen dira: Jesus Alcorta, Consuelo Etxabe, Arantxa Ayestaran, Felisa Antonia Elcoro, Ramon Elcoro, Jesus Mari Ayestaran, Maria Esteban Abarrategui, Eustaquio Alcorta, X, Angel Garmendia, Toribio Elcoro, Cecilia Olabe, Crescencia Alcorta eta Ignacio Ayestaran, eta Gunter, Neiman, Helene, X, X eta Karl.

## Kepa Errastiren bakarrizketa iritsiko da Arkupera bihar

Kepa Errasti Gorroño gidoigile eta aktore aretxabaletarra protagonista duen *Postdatarik gabeko gutunak* antzezlanaren dator aste bukaeran, Zاراia aretoko oholtzara, Xake Produzioak konpainiaren eskutik. Bihar, zapatua (20:00), eta etzi, domeka (19:00), izango dira emanaldiak, baina sarrerak dagoeneko agortuta daude.

## 'Kuartela herrira!' ekimenaren azken kontzertuak zapatuan

Eten, Txerrikumeak eta Bixentak talde aretxabaletarren emanaldiak izango dira bihar, zapatua, Mitarte kalean, 18:00etan hasita. Irailean argitaratutako *Kuartela* diskoaren aurkezpena ere egingo dute, *Kuartela herrira!* ekimenari bukaera emateko.

Gauean, 21:00etan hasita, BRGS & Margu Mission DJek girotuko dute Kixkor taberna ingurua.



# Bidegabekeriak salatuz, giza eskubideen alde

'Arte para el buen vivir' izeneko jaia antolatu dute zenbait eragilek zapatu honetarako. Hain zuzen ere, giza eskubideen aldeko festa jardueraz betetako izango da, eta horietako zenbaitetan izena eman beharko da alde zuzenetik

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Bihar, zapatua, giza eskubideen alde eta bidegabekeriak salatuz eta ikusaraztearen alde lan egiten duten zenbait erakunde eta kolektibok jaialdi bat antolatu dute Eskoriatzan. *Arte para el buen vivir* izenburupean, egun osoan zehar ekintza artistikoak, kulturalak eta komunikatiboak egingo dituzte.

Jardueraz betetako eguna izango da, eta 10:00etan emango diote hasiera Fernando Eskoriatza plazan egun hau prestatu duten kolektiboetako ordezkariak; Debagoieneko Ezker Kultur Gunea, Bakea eta Elkartasuna Fundazioa, Lumaltik Herriak, Festivales Solidarios eta Munduko Medikuak. Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin antolatu da, eta antolatzaileek herritar guztiak animatu dituzte hitzorduetan parte hartzera.

## Murala Zubiateko paretan

"Prestatu dugun programak jarduera guztietan aktiboki eta aurrez aurre parte hartzera animatzen ditu Debagoieneko herritar guztiak, askotariko jarduerak baitaude: tailerrak, zinema, erakusketa, hitzaldiak, film laburrak, etab. Era berean, egun osoan zehar jorratu ditugun gai guztiak batzen dituen gai solidarioei buruzko mural bat egingo da Gaztañadi kalean, Zubiateko labearen ondoko fatxadan. *Land art* estiloko mural artistikoa egingo du Anabela Turlione (@anitanimala) artistak. Azpimarratzekoa da, halaber, egun osoan zehar Munduko Medikuak elkarteko Karina Senatoreren *Afrika (bir)kontatzen* erakusketa egongo dela kultur etxean, eta 15:00etatik 18:00etara bitartean Fernando Eskoriatza plazan, arteen eta komunikazioaren tailerrak (grabatua eta serigrafia, gazteentzako irrati-lokuzioa eta ehunen birziklapena) egingo ditugula Fes-



EskoZap-ekoek egindako muralaren alboan egingo da murala zapatuan. I.BELOKI

## CARLOS CANO-K HACKEO DIGITALAREN GAINEKO TAILERRA ESKAINIKO DU, KULTURA ETXEAN

tivales Solidarios elkarteko kideen laguntzaz. Eguna borbiltzeko, Eskoriatzako musikariak osatzen duten Ad Libitium txarangak herriko kaleak giro-tuko ditu", adierazi du *Arte para el buen vivir* jaialdia antolatzen aritu den Juan Luis Merinok.

## Izen-ematea, QR kodearekin

Jardueraren batean parte hartzen duen orok pintxo batzuk dastatu ahal izango dituela adierazi dute antolatzaileek. Gernika plazan, *Plaza Txiki*-n, jarriko dituzte, 13:30ak aldera eta 15:00ak bitartean. Hori horrela, jardueretan izena emateko, QR kode bat jarri dute programazioko karteletan.



Hitzordu batean parte hartzeko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

## Zapatuko egitaraua osorik

### Zapatua, urriak 28

- **10:00** Jaialdiaren hasiera, plazan.
- **11:00** 'El arte como herramienta de transformacion social' hitzaldia, kultura etxean.
- **11:30** Hackeo digitaleko tailerra, kultura etxean.
- **12:30** Gorputz kontzientziaren tailerra haurrentzat, Gernika plazan.
- **13:30-15:00** Pintxopotea tailerretako parte hartzaileentzat, Gernika plazan.
- **15:00-18:00** Arte eta komunikazio tailerrak, erakusketa.
- **18:00** Giza eskubideen inguruko film laburren proiektioak, Zaldibar antzokian.
- **19:00** Ad Libitium txaranga.

## "Gai sozialak lantzen ditugu ikuskizunean, lau pasartetan"

**MIKEL IZURRATEGI** ISLADAK ANTZERKI SOZIALA Antzerki-zaleentzat sortutako proiektua da

### I.B. ESKORIATZA

Bergaran sortu den *Isladak* izeneko antzerki proiektuak antzerkirako zaletasuna sortu nahi du herrian. Antzerki munduan sartzeko zailtasunak dituztenekin osatu dute taldea, eta orain arte hiru saio egin dituzte: Arrasaten lehenengoa eta bi emanaldi Bergaran. Oraingoa, laugarrena, urriaren 27an, Eskoriatzan izango da, Zaldibar antzokian, 19:00etan, eta sarrerak salgai daude bost eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian edo *Bibe.me* webgunean. Antzerki taldea Bergarako den arren, bi eskoriatzar daude *Isladak* proiektuan: Maren Bruña eta Mikel Izurategi; azken honek oholtzak ondo baino hobeto ezagutzen ditu, eta gogoz dago etxeko estreinarako.

### Zer da *Isladak* antzerki soziala?

Esaten dugu ez garela antzerki talde bat; honakoa proiektu bat da. Plataforma bat sortu eta gai sozialak erabiltzeaz batera, antzerki munduan zailtasunak dituztenek parte hartzeko eremua da. Taldean pertsona ezberdinak gaude. Talde bat emakume nagusiena dago, 80 urtetik gorakoena; eta, gero, bi neska gazte, bi gizonezko, Down sindromea duten beste bi, eta zuzendariak gain, beste hainbat kolaboratzaile ditugu eszenan ere agertzen direnak. Hamabost lagun inguru bagara. Talde oso zabala da. **Nortzuek osatzen duzue?** Talde oso zabala da, eta pertsona ezberdinak gaude. Talde bat emakume nagusiena dago,



Mikel Izurategi. GOIENA

80 urtetik gorakoena, eta, gero, bi neska gazte, bi gizonezko, Down sindromea duten beste bi, eta, zuzendariak gain, beste hainbat kolaboratzaile ere baditugu eszenan ere agertzen direnak. Hamabost lagun inguru bagara.

### Zer eskaintzen duzue?

Emanaldia lau zatitan dago banatuta, mikroteatro moduan, eta musika beti dago presente ikuskizun osoan. Lehenengo partean, erronka bat ezartzen dugu; bigarren zatian, lan harremanak; hirugarrenean, barkadadea lantzen dugu, eta, azkenik, gaur egun bizi dugun garaia irudikatzen dute bi neska gaztek.

### Taldea irekia da?

Bai. Guztiok gara amateurrak, eta ikastea da asmoa. Beraz, probatu nahi duenak zabalik ditu ateak.

## Bailarako Txistularien Eguna Eskoriatzan izango da, zapatuan

2010. urtean abiatutako ekimena da Bailarako Txistularien Eguna, eta txandaka antolatzen da Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatza artean. Bailarako hainbat herritako txistulariak gerturatuko dira, beraz, zapatu honetan, Eskoriatzara, eta herriko kaleak eta bazterrak giro-tuko dituzte txistu doinuarekin, 11:00etan hasita.

## Urriaren 31n izango da Gaba Baltzeko ekitaldi nagusia

Gaba Baltzerako arropa tailerra familian egingo da gaur, eta, astelehenean, Gaba Baltzerako apaingarriak egingo dituzte, hala, hilaren 31n egingo den ekitaldira prestatuta joateko. Ibilbide beldurgarria, eskea, gaztaina erre jana, Beldur Harropakariak eta Beldurrak Sutara, euskal dantzak, eta suzko zezena izango dira, hilaren 31n.



# Ingurumenarekiko errespetuan, urratsa

Eskoriatzako Udalak Aste Berdearen barruan antolatutako ekintzen balorazio positiboa egin du. Orokorrean, parte-hartzea ona izan dela azpimarratu arren, herrian ingurumenarekiko kontzientzia gehiago piztu behar dela nabarmendu dute

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Aste Berdea betea izan da, eta antolatzaileek prestatutako ekintzen balorazio positiboa egin dute. Hainbat eragilek hartu dute parte ekintzen programazioan, eta jardueren aurreikuspenak bete dira, zenbait kasutan gainditu ere bai. Helburu nagusia herritarrek naturarekiko kontzienteagoak izatea izanda, urrats bat eman dutela adierazi dute Eskoriatzako Udaletik.

## 30 lagun erreka garbiketan

2022an, Debagoieneko Errekak Bizirik Auzolanean ekimena sortu zen herritarrei eta batez ere belaunaldi berriei erreka biziaren garrantzia erakusteko. Aurtengoa bigarren edizioa izan da, eta batutakoa kontabilizatzea zaila den arren, 1.000 litroko bi edukiontzi bete zituzten joan den zapatuan auzolanera batu zirenek. "30 bat lagun izan ginen erreka garbiketan. Batez ere objektu txikiak izan dira jasotakoak: plastikozko zorro ugari, botilak, latak, edalontziak... Eta igarri da aurreko urteetan garbiketak egin direla; iaz eremu txikiagoan izan ginen garbiketa egiten eta zabor gehiago batu genuen. Hala ere,

beti dago garbiketarako beharra; izan ere, nire ustez, plastikozko zorro asko haizeak eramandakoak dira, baina botilak eta bestelakoak apropos botatakoak dira. Beraz, garbiketarako beharra badago, baina, batez ere, kontzientziazteko beharra dagoela azpima-

**ERREKA GARBIKETAN, 1.000 LITROKO BI EDUKIONTZI BETE ZITUZTEN; JASOTAKOAK PLAZAN JARRI ZUTEN**



Erreka garbiketan aritutakoak, plazan, batutakoarekin. SAIOA ALTZUA

rratuko nuke", adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak.

## Energia hizpide

Asteko programari amaiera emateko, martitzenean, Klima Aldaketaren Aurkako Nazioarteko Eguna izanda, Eskoriatzako Energia Berriztagarrien komunitateak deituta, energia komunitate bat sortzeko bile-merienda izan zen, Ibarraundi museoan. Bilerara joan ez, eta informazioa behar duenak, [eskoenergia.komunitatea@gmail.com](mailto:eskoenergia.komunitatea@gmail.com) helbidera idatz dezake.

# LEINTZ GATZAGA | 19



Leintz Gatzagako San Migel plazan joan zen domekan, Gatz Egunean. JUAN LUIS ZABALA

## Gatzari garrantzia emateaz haratago doan eguna, ospatuta

Askotariko ekintzak izan ziren joan zen domekan egindako Gatz Egunaren zazpigarren edizioan

## Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gatz Eguna ospatu zuten domekan Leintz Gatzagan, zazpigarren aldiz. San Migel plaza eta Gatz Museoa izan ziren bi gune nagusiak, eta askotariko ekintzak egin zituzten.

Leintz Gatzagako produktu izarrari, gatzari, garrantzia emateko asmoz, Gatz Eguna antolatu zuten beste urte batez Debagoieneko Mankomunitateak, Gatzagako Udalak eta Debagoaraia Landa Garapenerako Elkarteak. 10:00etan eman zioten hasiera egunari, hala nola produktu ekologikoen azokarekin eta bi mendi ibilaldirekin. Sukaldaritza eta gatz xaboiak egiten ikasteko tailerrak ere egin zituzten Gatz Museoa, eta baita bisita gidatuak ere. Jakoba Errekondo, berriz, landareen inguruko kontsultak argitzen izan zen. Horrez gain, jolaserako aukera ere egon zen, egurrezko jokoak izan bai-

tziren plazan Kalaka proiektuaren eskutik, baso kulturari keinu egiteko asmoz.

## Herritarrek, azokaren parte

Herritarrek ere jarri zituzten postuak Gatz Egunean. Alde batetik, bertako gatz, gatzarekin egindako txokolata, eta gatz espeziekin saltzen izan zen Rosa Urreta. "Salmenta egitea ez da erraza, konpetentzia asko dagoelako, baina gure herriaren historia da... Era artisaun egiten da, eta merezi du". Horrez gain, hanburgesak egiten aritu ziren Gurel Guraso Elkarte kideak Herriko Plazan, eta Toki-Eder jubilatuen elkartekoek, berriz, pintxoak eta edariak eskaini zituzten Gatz Museoa. "Gureletik, okela ekologikoarekin hanburgesak egiten izan gara, herriko gaztetxoentzat ekintzak prestatzeko dirua lortzeko", esan zuen Iosu Atxagak.

## Kontzientziazteko isun sinbolikoak

Aste Berdearen baitan, gaztetxoendako ekintzak ere izan dira. Horien artean, azpimarratzekoa izan da Eskoriatzako Tortolis ludotekako haurrek herritarrek kontzientziazteko burutu zuten ekintza. Hain zuzen ere, kalera atera ziren arratsalde batean eta gaizki aparkatutako zenbait ibilgailuri isun sinbolikoak jarri zizkieten ohartarazpen gisa.



Haurrak, Santa Ana auzoan, gezurrezko isunak jartzen. TORTOLIS LUDOTEKA

## Gaba Beltza ospatzeko gaur batuko dira

Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarte kideek antolatuta, Domu Santu bezperan barik, gaur, egubakoitza, urriaren 27a, batuko dira herriko gaztetxoak Gaba Beltza ospatzeko.

Gurelekoek 19:00etan batzeko deia egin diete hurrei, eta lehenbizi aurpegiak margotuko dituzte; asmoa era beldurgarrian margotzea izango da, bakoitzak

nahi duen moduan, gero, kalera atera eta herritarrek beldurtzeko helburuz.

Behin, egunerako *outfit*-a prestatuta eta aurpegiak ondo margotuta, etxeko gozoki eskaerarekin hasiko dira, eta horretarako ibilaldia egingo dute herrigunean zehar. Gozokiak batu ostean, amaitzeko, Gaba Beltzean aterako diren gaztetxoek, Gurel Gurasoen Elkarte kideekin batera, afari-merienda egiteko batuko dira Toki-Eder elkartearen.





Joxu Arana, Rosa Errazkin, Estepan Plazaola, Xabier Sabalza, Gorka Artola, Marije Unamuno, Oihana Garmendia eta Gotzon Arzelus. A.E.

## Ezagutza, iraganeko eta etorkizuneko giltza gisa

Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia (ZTB) jardunaldiek 20tik gora jarduera izango dituzte, eta ekintza esanguratsuenak azaroaren 4tik 17ra antolatu dituzte; ezagutzak Bergaran historikoki izan duen garrantzia etorkizunean ere gako izango dela diote antolatzaileek

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Urteko egutegian erroto den ekimena da Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia (ZTB) jardunaldiena. Aurtengoa bederatzigarren aldia izango da eta egitarauko ekitaldi aipagarrienak azaroaren 4tik 17ra egingo dira. Askotariko diziplinak daude aurten ere, bergararrei eta kanpotarrei ezagutzaren arloa ga-

ratzeko aukera ederra eskainiko diena 20tik gora jarduerekin.

### Bergara, "ezagutzaren herria"

Martitzenean egin zuten bederatzigarren edizioa aurkezteko agerraldia, Laboratoriumen. Gorka Artola alkateak esan zuen Bergara erreferenteetako bat dela Euskal Herrian zientzia, berrikuntza eta teknologiaren

arloan: "Ez gara bakarrak, baina ez dago soberan esatea halako ekimen batek Bergaran duen pisua ez dela makala. Askotan esan izan dugu Bergara ezagutzaren herria dela; askotan aipatu izan ditugu Elhuyar anaiak, Errege Seminarioa, Telesforo Monzon eta Olaso Dorrea, Telesforo Aranzadi, Justo Garate, UNEDA edota Laboratorium

moduko zientzia museo eder hau. Gaur egun ere bide horretatik jarraitu nahi dugu, eta uste dut ZTB jardunaldiak badirela horren adibide garbia".

Ildo beretik, jardunaldion garrantzia azpimarratu zuen Artolak: "Zientziaren, berrikuntzaren eta teknologiaren bitartez bergararron bizi kalitatea hobetzen, garapen ekonomikoa suspertzen, hezkuntza indartzen eta sormena lantzen saiatzen gara, eta balioan jarri nahiko nuke honek guztiak etorkizunean gure herrian izango duen garrantzia. Askotan esaten dugu erronka asko ditugula; bada, erronka horiei ezagutzatik egin beharko diegu aurre".

### Elkarlana oinarri

Komunitate zientifikoaren, enpresa sektorearen eta hezkuntza erakundearen elkarlanaren fruitu da ekimena, eta, besteak beste, arlo ezberdinetako profesionalak zein herriko ikastetxeetako ikasleak izango dira protagonista.

Ekintza batzuk martxan dira dagoeneko, adibidez, urtarrilaren 6ra arte Laboratoriumen egongo den *Emakumeak botanikan* erakusketa. Aurrera begira, hezkuntza eskaintzan badira ekintza aipagarri batzuk: azaroaren 8an, Creativitic enpresako Jorge Lopez eta Enara Artetxek hitzaldia emango dute Seminarixoan (10:00), Goienagusiko bazkideentzat eta Lanbide Heziketako goi mailako zein Batxilergoko ikasleentzat. Bi adituek berba izango dituzte, besteak beste, adimen artifiziala, errealitate birtuala, errealitate areagotua eta metabertsoak; errealitate berrietan modu interaktiboan murgiltzeko aukera egongo da. Euskaraz eta gazteleraz izango da. Gainera, "zero kilometroko

zientzia eskaintzaren barruan" nabarmendu beharra dago azaroaren 15ean Seminarixoan antolatu den hitzaldi-sorta (10:00), Bergarako gazte ikerlariak izango dituen protagonista: Amaia Iturrospe, Jokin Labaien, Gorka Kortabarria, Maider San Torcuato eta Itxaso Calbano. Polimeroak, adimen artifiziala, neurozientzia eta biomedikuntza izango dira landuko dituzten gaiak, besteak beste.

### Adimen artifiziala protagonista

Adimen artifiziala ere izango da protagonista azaroaren 9an enpresei zuzenduta Miguel Altuna berriantolatu den barne-tegi teknologikoan. MUKO ikerlari Iñaki Lakarrak gidatuko du, ChatGPTren erabilera praktikokoaren eta adimen artifizialaren erreminta sortzaileen inguruan. Barne-tegi gazteleraz izango da, 09:00etatik 14:30era.

Bestalde, publiko orokorarentzat antolatu dute, besteak beste, XX. mendeko ordenagailuen eta etxeko bideo kontsolen gaineko erakusketa Aroztegin, azaroaren 10etik 26ra. Edozeinendako beste bi tailer ere antolatu dituzte, energiaren aurriztearen bueltan: azaroaren 14an, hainbat gomendio emango dituzte San Joxepen (18:30), eta azaroaren 16an *Energia Argitu Kit kanpaina* aurkeztuko dute Seminarixoan (18:30).

Egitarau osoa eta hainbat informazio gehigarri dago [Ztbergara.eus](http://Ztbergara.eus) webgunean.

## ZTB JARDUNALDIEN EGITARAU OSOA ETA INFORMAZIO GUZTIA 'ZTBBERGARA.EUS' WEBGUNEAN DAGO

## Oinez gozatuz, sarea osatu

Paseo osasuntsuak sustatu eta harreman berriak sortu nahi dituen Bergara Oinez ekimena martxoan onen doa. Azken irteera urriaren 19an antolatu zuen Osasun Publikoak –argazkian–, eta azaroaren 2ko hurrengo irteera Goyeneche fundazioak antolatuko du (Agorrosin, 10:00). San Joxepen (943 76 21 40) edo Agorrosinen (943 77 70 95) eman daiteke izena.



EDURNE ARENAZA

## OHARRAK

### Kukubaso: deialdia

Ezkur bilketa egingo dute Agirretxeberrin. Miguel Altuna berriaren atarian elkartzeko dira bihar (10:00).

### Azaroak 4: autobusa

Azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa antolatu dute (Ibargarai, 15:15). Izena eman daiteke Ganbara eta Pol-Pol tabernetan edota Jardunen (605 71 24 69).



# "Zerbitzu publiko ona" bermatzeko, %4ko igoera

2024ko udal zergek eta tasek %4ko igoera orokorra izango dute, baina kiroldegiko tasa %10 igotzera "behartuta" dago EH Bildu, diotenez, Agorrosinen auto-finantziatorako gaitasuna "nabarmen" jaitsi delako. EAJ kontra dago, igoera "gehiegizkoa" dela iritzita

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA 2024ko udal zergek eta tasek %4ko igoera orokorra izango dute. Asteleheneko bilkuran EH Bilduren proposamenaren aurka bozkatu zuen EAJk, eta PSE-EEko Alberto Alonsok ezin izan zuen bilkuran egon.

## Inbertsio gaitasunak, behera

Ogasun zinegotzi Aitor Aranzabal arabera, azken bi urteetan tasak eta zergak KPIaren azpitik igotzeak kalitatezko zerbitzuak emateko "esfortzu handiagoa" egin beharra ekarri dio Udalari. Gorka Artola alkateak ere aipatu zuen, besteak beste, Udalak %5eko inbertsio gaitasuna galdu duela eta "ezinbestekoa" dela bere gaitasun ekonomikoa berreskuratzen joatea.

Horrez gain, Aranzabalek azpimarratu zuen "erantzukizunez" jokatzeko dagokiela: "Erantzukizunez jokatzeko eta bergararrei zerbitzu publiko onak ematea dira gure lehentasunak. Horretarako, baina, diru-poltsa mugatua dugu, eta gure betebeharra da diru publiko hori tentuz eta erantzukizunez zaintzea. Iaz aipatzen genuen elektrizitateaz eta gasaz gain, aurten lizitazio publikoko obrek ere izugarritzko igoerak izan dituzte".

## Kiroldegiko tasak %10 gora

Horrez gain, kiroldegiko abonuen eta ikastaroen tasa %10 igotzeak zeresana eman duela-eta, EH Bilduk azaldu du Agorrosingo zerbitzuaren defizita gero eta handiagoa dela: "Kostuaren igoera orain arte ez da asko igarri izan bazkideengan Udalak inbertsio garrantzitsua egin izan duelako, baina egoera jasanezina zen; esan behar da, besteak beste, Agorrosinen auto-finantziatorako ahalmena %86koa izatetik %53koa izatera pasatu dela urte gutxitan". Gainera, Udalak ezin izango die tasa gehigarria kobratu Bergaratik



Gorka Artola alkatea, EAJko eledun Mikel Leteri azalpenak ematen. J.B.L.

## AGORROSIN KIROLDEGIAREN DEFIZITA 800.000 EURO INGURUKOA IZAN ZEN 2022AN

kanpo bizi diren eta kiroldegia erabiltzen dutenei. Elgetar batek salaketa jarri eta Auzitegi Gorenak uztailean emandako epaiak arrazoi eman zion herritar horri. Hala, sententzia onartu beharko du Udalak eta 2010etik kobratzen zuen %30eko tasa gehigarri hori ezingo du kobratu aurrerantzean. Udalari 14.000 euro inguru gutxiago kobratzea ekarriko dio; 2022an Agorrosingo defizita 800.000 euro ingurukoa zela aintzat hartuta, ez da galera bereziki kezagarria.

## EAJk dio "gehiegizkoa" dela

EAJk uste du igoera orokorra eta kiroldegiko tasaren %10eko igoera "gehiegizkoa" dela: "Uste dugu tasa orokorretan %2,6ko igoera eta kiroldegiko abonuan eta ikastaroetan %5eko igoera aplikatuta Udalak bermatu ahal lukeela herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea. Are gehiago, foru funtsetik aurten baino 800.000 euro gehiago jasotzea aurreikusten dela jakinda", esan

zuen EAJko bozeramaile Mikel Letek. Letek gaineratu zuen ez dela negoziazio handirik izan EH Bildurekin. Pare bat bilera egon direla baina planteamendu ezberdinen artean ez dela akordioarako tarterik izan; hala ere, aurrekontuei begira, EAJren proiektuek aurrera egin dezaten lanean jarraituko du oposiziotik, Leteren arabera.

## PSE-EEren balorazioa

PSE-EEren ustez, "funtsezkoa" da egungo testuinguruan herritarren "tentsio ekonomikoa" saihestea: "Ezin ditugu onartu KPIaren batez besteko egoera erraz gainditzen duten tasak; bizitzaren kostua igo denaren inguruko igoera proposatzen dugu. Ez da demagogia; helburu horri eustea lortu dugu gobernatzen dugun udal gehienetan. Bestalde, Gasteizko kasua aipatu nahi dut, non EH Bilduk Gobernuak proposatutako azkena %2,5eko igoera zenean; Bergaran %4ko igoerari babesa emateko eskatu digute. Koherentzia funtsezko elementua da politikan". Bestalde, EH Bilduren prestutasuna aitortu du PSE-EEK: "Eseri eta hitz egin dugu. Hasieratik genekien akordioa ezinezkoa izango zela, baina eskertzen da ahalegina".

# "Landare inbaditzaileen arazoaz jabetzea, hori da lehen urratsa"

**IÑAKI MADINABEITIA** ERREKA EGUNEKO BOLUNTARIOA Espezie kaltegarriei aurre egitea "oso konplexua" dela dio

**J.B.L. BERGARA**

Urriaren 21eko erreka garbiketa baliatu zuten Bergaran lehen aldiz landare inbaditzaileen gaineko "lanketa txiki bat" abiatzeko. Iñaki Madinabeitia boluntarioa aritu zen gidari lanetan.

## Zergatik egin duzue landare inbaditzaileen gaineko lanketa?

Erreka ez da bakarrik ur-emia, baizik eta inguruan duen bio-niztasun osoa ere bada errekarren parte. Aurten lehen aldiz erabaki dugu landaretza identifikatzen joatea, gure errekarren bueltan dauden landareak zeintzuk diren ikasteko. Hor sartzen da landare inbaditzaileen gaia; izan ere, badira espezie batzuk gure errekar ez liratekeenak egon beharko dauden kopuruan eta tamainan.

## Ze kalte nagusi eragiten dute landare inbaditzaile horiek?

Kalte handiena da bertako landarea hazteko lekua okupatzen dutela; joera dute libre topatzen duten lekua hartu eta bertakoa itzalean edota azpian uzteko.

## Inbaditzaile asko dago gurean?

Asko dago, bai. Gurean lau espezie nabarmenduko nituzke: frantses patata, *Robinia*, *Buddleja* eta *Fallopia japonica*. Azken horrek, Japoniatik ekarri zen *Fallopia japonica* espezieak, Deba ibai osoa dauka hartuta, itsasotik hasi eta Leintz Gatzagaraino. Azken espezie horrekin, adibidez, egin dira saiakera batzuk; espezie japoniarra kendu eta berehala bertako bat landatu. Ez bada bertako espezie



Madinabeitia, joan den zapatuan. GOIENA

bat lehenbailehen landatzen inbaditzailea kendu den lekuan, arriskua dago berriro ere inbaditzailea nagusitzeko. Horregatik, zenbait urtez jarraipena egin behar zaio, landatutako bertako espeziea garatu arte, edo inbaditzailea desagertu zein behean geratu arte.

## Ez da lan erraza izango...

Oso lan konplexua da, plan orokor baten beharra duena erakunde ezberdinen partetik. Herritarrek hasi gara azken urteetan errekarri beste era batera begiratzen, eta uste dut badela garaia administrazioak ere hel diezaion; askotan gertatzen da erakunde batek besteari pasatzen diola ardura eta horrela ezingo zaio aurre egin. Lehen urratsa eman dugu, arazoaz jabetzea; lehen ez genien halakoei begiratzen. Norberak ikusten duenean gehiago ikasten da.

**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurrira  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihoak · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com



Enpresa Registrada N°90/025



# Hasi dira Gau Beltza ospatzen Bergaran

Herriko hainbat eragilek antolatutako Gau Beltza jaiko zenbait jarduera abian daude urriaren 20a ezkerre, eta hilaren 31ra arte badago zertan parte hartu; herriguneaz gain, Angiozarko eta Osintxuko ludoteketan ere ospatuko dute Arimen gaua



Misterioaren jolasa egin duen talde bat, joan den egubakoitzean. IRATI ALBERDI

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA Domu Santu eguna hurbiltzen ari da, baina dagoeneko nabari da Gau Beltzaren usaina Bergaran. Joan den egubakoitzean hasi ziren jarduerekin, eta datozen egunetan ere jarraipena izango dute. Bergarako Udalak, Jardun Euskara Elkarteak, Ugutz Toursek eta Bergarako Musika Eskolak hartu dute parte aurtengo egitarauan.

Iaz bezala, Aidau haur zerbitzuan Misterio jolasa egin dute urriaren 20an eta 25ean, eta izan duen erantzunaren balorazio positiboa egin dute: "Haurrek beldur pixka bat pasatu duten arren, gustura atera dira. Arimen gaua lehen nola ospatzen zen ikasteko aukera bikaina izaten da ekintza hau, eta aurrerantzean ere egiteko asmoa daukagu".

## Familiendako tailerrak

Gaur eta bihar -17:00etan eta 11:00etan, hurrenez hurren-, San Martin plazan Jardunek familiei zuzendutako tailerrak

antolatu ditu. Ohi modura, aurpegi margoketetan, mozorroak egiteko tailerrean edota kalabaza hustuketan parte hartu ahal izango da, esaterako. Berritasun modura, Gau Beltza gaitzat duen *oka* jolasean ibiltzeko gune bat jarriko dutela adierazi dute euskara elkartetik.

## Egunik indartsuena, hilaren 31

Ekintzarik gehien urriaren 31rako antolatu dituzte. Alde batetik, 17:00etatik aurrera, herriko saltokietan karameluak emango zaizkie *Xanguli, manduli, kikirriki, eman goxokiak guri* esaldia esanez gero. Ondoren, 18:15ean, Musika Eskolako talde instrumentalak nahiz abesbatzak kontzertua eskaini-

**GAU BELTZEAN HERRITARRAK KALERA MOZORROTUTA ATERATZERA ANIMATU DITU JARDUNEK**

ko dute eta, ostean, txokolatada egingo duten plazan. Aurten ere, Deabru Beltzak taldeak ikuskizuna eskainiko du; *Su á feu*.

Azken urteetan egun honetan hutsik egiten ez duena Bautista Leprosua da, eta aurten ere egingo du bisita gidatua. 21:30ean izango da euskarazkoa, eta 22:00etan gaztelarazkoa. Doakoa da, baina, plaza mugatuak direnez, izena eman behar da [ugutz-tours@gmail.com](mailto:ugutz-tours@gmail.com) helbide elektronikora idatzita edo 695 75 34 30 telefono zenbakira deituta.

Era berean, Jardunek herri-tarrak kalera mozorrotuta ateratzera animatu ditu, egun hauetako ekimena borobiltzeko.

## Angiozarko eta Osintxun ere bai

Angiozarko nahiz Osintxuko ludoteketan ere Gau Beltza ospatuko dute. Osintxun herritar orori zuzendutako ipuin-kontakteta egin zuten martitzenean. Aurpegi margoketak, mozorroak egiteko tailerrak eta kalabaza hustuketa egingo dituzte.

## Juantxo Madariagak 'Notitia Vasconiae' liburua aurkeztuko du

Azaroaren 2an izango da, eta 1.199 pertsonaia lantzen dituen lanaren egile eta zuzendarietako bat da bera

### I.A.A. BERGARA

Juantxo Madariaga historialariak Iura Vasconiae fundazioaren – Euskal Herriko Zuzenbide Historikoa eta Autonomikoa Aztertzeko Fundazioa– *Notitia Vasconiae*. *Baskoniako historialarien, legelarien eta pentsalari politikoaren hiztegia* proiektuan hartu du parte egile eta zuzendari gisa, eta azaroaren 2an egingo du aurkezpena Bergarako Irizar Jauregian, 19:00etan hasita.

### Bi liburukiren zuzendari

Lau liburukiz dago osatuta proiektua –denera, 4.000 orri baino gehiago– eta erromatarren garaitik gaur egun arte Euskal Herriko nahiz Euskal Herriari buruz idatzi duten 1.199 historialari, legelari eta pentsalari politiko jasotzen ditu. 105 unibertsitate, erakunde zientifiko eta hezkuntza-erakundetako 300 egile aritu dira lanean: "Argitalpenak eta teoria politikoak dituzten pertsonaia hartzen saiatu gara". Madariagak entziklopedia "erreferentzial" gisa definitu du: "Espero dezagun betirako edo urte luzez geratzea erreferentzia moduan. Gure asmoa zen zegoen zuloa betetzea. Alemaniarrak XIX. mendean hasi ziren halakoak egiten. Frantziar asko egin dira; Italian, Espainiar... Eta guk XXI. mendean egin dugu, oso atzetik goaz".

UNEDeko zuzendari ohiak azaldu du, hasieran, "egile" modura hartu zuela parte, baina hirugarren eta laugarren libu-

rakietan zuzendaria izan dela: "Pertsonaia aukeratuta, topatu egin behar dira horiek landuko dituzten pertsonak. Hasieran egilea nintzen ni, eta lehen bi liburuetan, bakoitzean, 12 pertsonaia idatzi ditut. Horien zuzendaria Roldan Jimeno izan da, baina beste lan batzuk ere bazituen. Ni jubilatuta egin nintzen, teorikoki astia neukan. Orduan, azken bi liburukiak koordinatzeko eskaintza jaso nuen, eta hori egin dut".

### Hiru hizkuntzatan egina

2004an sortu zen entziklopedia bat sortzearen ideia, baina finantzaketa arazoak medio, 2016ra arte ezin izan zuten kaleratu, orduan jaso baitzituzten Eusko Jaurlaritzaren, Petronor enpresaren eta Espainiako Gobernua- ren dirulaguntzak. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edizioak sortu dituzte, eta edizio bakoitzak ditu bere lau liburukiak. Euskarazkoei dagokienez, lehena kaleratu dute soilik: "Orain sartuko da inprentan bigarrena, eta hirugarrena abendurako egongo da". Gaztelaniazko laurak daude kaleratuta, eta ingelesezko lehen biak.

### Aurkezpena Bergaran

Esan bezala, azaroaren 2an egingo du Madariagak bildumaren aurkezpena Bergaran, eta proiektuaren garrantziaz, ezaugarriez eta bestelako xehetasunez gain, liburuan agertzen diren bergarrei buruz hitz egingo du.

## 'Udazken Semi-Fest' antolatu du Bedelkar merkatari elkarteak

Udazkeneko denboraldia aurkezteko jai berezia antolatu du Bedelkar merkatari elkarteak biharko, Seminarixoan. Eguerdiko hamabietatik ordu bietara nahiz arratsaldeko seietaatik zortzietara egongo da zabalik, eta egunean zehar era askotariko ekintzak antolatu dituzte.

12:15ean eta 18:15ean, kosmetika naturalen tailerra emango

du Eki-lurrek. 13:00ean, berriz, hipopresiboak; 13:30ean, 5P eta TAD; eta 18:30ean, Kstretch egingo dituzte, Felsineek lagunduta. Azkenik, eguna borobiltzeko, Musika Eskolako dantzariak emanaldia eskainiko dute 19:00etan. Denera Bedelkar elkarteak zazpi komertzio hartu dute parte; Jane Edertasunak, Felsineek, Lorea Albeniz estetikak, Bego & Marije ile-apaindegia, Eki-lurrek, Manso optikak eta Insituto Óptico Auditivok, hain zuzen ere.





Andoni Kortabarria iazko Bergarako boxeo jaialdian. GOIENA

# Herriko hiru ordezkari igoko dira ring-era

Udal pilotalekua boxeozalez beteko da bihar, zapatua, 18:00etan hasita, Sorabox taldeak Bergaran antolatutako bigarren boxeo jaialdian. Sarrerak alde aurretik erosteko aukera izan bada ere, egunean bertan ere erosterik izango da

**Julen Murua Mesonero** BERGARA  
Bigarrenez antolatu du Sorabox taldeak boxeo gaua Bergarako udal pilotalekuan. Aurrekoa, iazko utzailean izan zen. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da ekitaldia, eta guztira hamar borrokaz osatutako gaua izango da –euli-pisutik pisu astunera bitarteko borrokak izango dira–. Hamar borroka horien artetik bi emakumezkoen borrokak izango dira; gainontzekoak, berriz, gizonezkoenak. Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko ordezkariak elkartuko dira Bergaran, ikusleei boxeo gau ikusgarri bat eskaintzeko.

Ixa Rodriguez boxeo gaueko antolakuntzako kideak aitortu du antolakuntzaren hasierako ideia zela borroka bakoitza bi lurralde historikoren artekoa izatea: "Lortu nahi nuena zen

pisu bakoitzeko borrokan Gipuzkoako ordezkari bat Nafarroako ordezkari baten aurka borrokatzea, baina oso zaila izan da hori lotzea; beraz, beste baterako utzi beharko dugu". Hala ere, "maila handiko gaua" izatea espero du Rodriguezek, batik bat, "borroka garrantzitsuak" izango direlako.

## Bergarako ordezkariak

Herriko udal pilotalekuan jokatuko den boxeo gauean ez da faltako herriko ordezkariarik. Ibon Muniategiandikoetxea –60 kg-tan borrokatuko da–, Andoni Kortabarria –76 kg-tan– eta Iosu Zalakain –75 kg-tan– etxean borrokatuko dira David Guerreroren (Napar Sustraiak taldeko kidea), Asier Andreuren eta Adrian Romeroren aurka, hurrenez hurren. Hiru boxeolariak

diote "irrikan" daudela etxean jokatzeke eta "gogo handiz" ari direla igarotzen asteburua iritsi arteko egun guztiak. Badakite zale asko hurbilduko direla pilotalekura, eta horrek indarra ematen diela ere aitortu dute: "Oso berezia da etxean borrokatzea bertan izango direlako lankideak, lagunak eta familiarikoa kideak, eta ziur gaude haien babesa sentituko dugula". Zalakainek gaineratu du, akaso, "presio puntu bat" ere sentitu dezaketela, baina borrokatzen hasitakoan "erraz" ahaztuko

## "BERGARAN ASKO BIZI DUGU BOXEOA ETA ESPERO DUT JENDEA HURBILTZEA"

IXA RODRIGUEZ, ANTOLATZAILEA

dituztela kontu horiek guztiak. Hala ere, hiru bergararrak ez dira izango bailarako ordezkari bakarrak, beste bi arrasatearrek ere borroka egingo baitute zapatuko boxeo gauean: Jalil Lamsallak –76 kg-tan– eta Yassine Bouchar –91 kg-tan– Daniel Zuzarrenen (Ipar Box-eko kidea) eta Aritz Rekaloren aurka borrokatuko dira, hain zuzen ere.

## Oso harrera ona


Sarrerak aurrez salgai izan dira –15 euroren truke– pilotalekuko tabernan edo 676 86 69 22 telefono zenbakira deituta. Ikusleek ez dute denborarik galdu, eta dagoeneko 400 sarrera baino gehiago saldu dituzte antolatzaileek –eguneko datua da–. Hala ere, bihar bertan ere erosteko aukera izango da; 20 euroren truke, pilotalekuko tabernan.

Bertan bizitzen den giroa ere nabarmendu nahi izan du Rodriguezek: "Jendea eguna iristeko irrikan egoten da; harmailak bete egiten dira, eta oso giro ona bizitzen dugu bertan. Bergaran asko bizitzen dugu boxeo, eta Arrasaten ere bai, eta horrelako ekitaldiak antolatzen ditugunean jendeak sekulako giroa sortzen du ringaren inguruan". Horrez gain, antolatzaileak gehitu du Soraboxek antolatutako boxeo jaialdiek "hauspoa" ematen diotela taldeari: "Horrelako jaialdiak antolatzen ditugunean jende asko etortzen da ikustera, eta horietako askok ez dute inoiz boxeo probatu. Beraz, gu izan gaitezke haiei kirol honetan hasteko aukera emateko bidea, eta hori guretzat ere aberasgarria da".

## Aurretik, pisaketa


Edozein boxeo jaialdiren aurretik gertatzen den bezala, boxeolariak pisaketa saioa izango dute. Bergarako jaialdiko boxeolarien pisaketak egunean bertan egingo dira, 16:00etan hasita, Etxagi tabernako terrazan, Bergaran. Saio horretan, boxeolari bakoitzak haren borrokarako ezarritako pisu bera edo txikiagoa eman beharko du borrokan parte hartu ahal izateko.

## BERGARAKO HIRU ORDEZKARI ETA ARRASATEKO BI BORROKATUKO DIRA BIHARKO JAIALDIAN




**IBON MUNIATEGIANDIKOETXEA**  
SORABOXEKO KIDEA

"Boxeoko jaialdian lehiatzen hasi berria naiz; hau bigarren borroka izango da niretzat –lehenengo irabazi egin zuen, apirilean–. Etxean borrokatzea oso berezia izango da niretzat, eta espero dut gerturatzeko diren babesa sentitzea".



**ANDONI KORTABARRIA**  
SORABOXEKO KIDEA

"Oso motibatuta nago boxeo jaialdirako. Etxean jokatzeak oso berezia egiten du borroka, zaletasun handia dagoelako eta ezagun asko hurbilduko direlako. Aurkaria ez dut ezagutzen, baina borroka gogorra aurreikusten dut".



**IOSU ZALAKAIN**  
SORABOXEKO KIDEA

"Berotasun handia sentitzen da etxean. Agian, presio puntu bat ere bai, baina borrokan hasita hori ahaztu egiten da. Sasoi fisiko onean ez, baina mentalki nire momentu hoberenean iristen naiz. Oso berezia izango da etxean borrokatzea".



# "Debagoienean, euskal dantzak bizirik daude"

**JULEN MURGIONDO ETA SAIOA GALARRAGA** EH-KO DANTZA ASKATUKO IRABAZLEAK 10 urte daramatzate bergarrek elkarrekin dantzan, eta bost urtetan hirugarren aldiz irabazi dute Euskal Herriko Dantza Askatuko Txapelketa; "pozik" agertu da bikotea

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Joan den zapatuan Seguran jokatzen Euskal Herriko 47. Dantza Askatu Txapelketa irabazi zuten Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergarrek. Zazpi aldiz aurkeztu dira txapelketara, eta azken bost urtetan hiru garaipen lortu dituzte. **Azken bost urteetan, hiru aldiz irabazi duzue. Zelan sentitzen zarete?** Oso pozik gaude. Oraindik sinistu ezinik. Nork esango zigun guri dantzan hasi ginenean egunen batean hiru Euskal Herriko Txapelketa irabaziko genituenik. **Lorpen hau nori eskaini diozue?** Gure atzetik, txapelketaz txapelketa guri jarraika ibili diren guraso, familia eta lagunei. Eta nola ez; bikote hau sortu duen Maite Lazkano irakasleari. **Iazko irabazleak izanda, presio gehiago zenuten irabazteko?** Inguruko jendeak egiten dituen iruzkinengatik, agian, presioa bai, baina beti ateratzen gara ahalik eta ondoen egitera nahiz



Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga sari-banaketan. EH-KO DANTZA TXAPELKETA

gure buruarekin gustura gertatzen. Gero hortik datorrena ongi etorria izaten da. Helburu nagusia ez da irabaztea, baizik eta ondo egitea. **Zapatuko dantzaldia ikusi baduzue, badago zerbait hobetzerik?**

Bai, ikusi dugu. Normalean gurasoren batek telefonoz grabatzen du. Ondoren, ikusten dugu bideoa akatsak, gauza onak edota egindako aldaketak nola geratzen diren ikusteko. Nahiz eta irabazi, beti ikusten dira akatsak

edo hobetzeko gauzak, eta horretan zentratzen gara txapelketatik txapelketara hobetzeko. **Nolakoa izan da txapelketako astea?** Txapelketako astea beti da berezia. Konturatzen zara denboraldi hasieran urrun ikusten duzun data bat iristear dagoela. Jendea galdezka hasten da aste horretan al den, zer moduz gauden, animoak ematen dizkizute... Horrez gain, bestela, astea normal igarotzen da; ikasketekin eta entsegu batzuk egiten.

**Euskal Herriko Txapelketak puntu kritikoa izan zuen.**

Lehen bikote gehiagok hartzen zuten parte, eta urte batzuetan dezente baxua izan zen parte-hartzaile kopurua. Orain, poliki-poliki badoa gorantz, eta gainera, gaztetxoek mailako txapelketetan nahiko bikote daude jarraipena emateko.

**10 urte elkarrekin dantzan. Aldatu duzue dantzatzeko era?**

Lehenengo txapelketetan, errazagoak ziren pausoak sartzen genituen, hain teknikoak ez zirenak. Urteak pasa ahala joan gara zailtasun handiagokoak sartzen; gure indarguneak nabarmentzeko pausoak sartzen. Azkenean, dantza gure indagunetara moldatzen da. Gehien bat saiatsen gara nabarmentzen puntak eta gure arteko elkar-uleretzea. Dantza parean egiten dugu, eta uste dugu nahiko eleganteak garela dantza egiteko orduan. Saiatsen gara pauso berriak sortzen eta horiek entseatu eta

pauso horiek jendaurrean erakusten.

**Euskal Herriko Txapelketan parte hartu duzuen Debagoieneko bikote bakarra izan zarete. Bailaran ze egoeratan dago dantza askatua?**

Tradizio handia izan duen modalitatea da, eta horren adibide garbia dugu, Bergaran bertan, gure aurretik oholztan eta txapela buruan izan duten hamaiaka dantzariren kasua. Azken urteotan gu bakarrik egon izan garen arren, eskualdean euskal dantzak bizirik daudela agerikoa da. Hori erakusten dute herriz herri dantza-taldeen bizia ematen dieten dantzariak. Hortik txapelketetara dagoen jauzia azken urteotan ikusi ez dugun arren, euskal dantzak bizirik dirauen bitartean beti egongo da hazteko eta hedatzeko aukera. Gogoia bada, egitera bultzatu nahiko genituzke dantzari horiek guztiak. Esperientzia probatzea beti aberasgarria delakoan gaude.

**Datorren urtean jarraituko duzue?**

Oraindik ez dugu berbarik egin elkarren artean datorren urteari buruz, baina dena ondo joaten bada, uste dugu hamar urteko ibilbideari jarraipena emango diogula.

**"EZ DUGU BERBARIK EGIN ORAINDIK, BAINA IBILBIDEARI JARRAIPENA EMANGO DIOGULA USTE DUGU"**

## Bihar hasiko da Azaroa Gaztainatan ekimena, Osintxun

Duela zenbait urtetako Animen Eguneko ohitura aitzakia hartuta, kultura ekintzak antolatu dituzte

**I.A.A.** BERGARA

Tradizioa gogoan, Azaroa Gaztainatan antolatu dute Osintxun, eta bihar nahiz azaroko asteburuetan kultura ekintzak izango dira. Bihar, Frank Delgado kantautore kubatarrak emanaldia eskainiko du (20:00, Txuringo taberna). Azaroaren 10ean eta 19an, berriz, Telmo Iruretairen bakarrizketa eta Katarsia talde bergararraren kontzertua izango dira, hurrenez hurren (22:00, Txuringo). Azaroaren 19an, 17:30ean, Trakamatraka izango da ikusgai, eta 20an ospatuko

dute Animen Eguna. 19:00etatik aurrera, gaztainak eta sagardoa emango dituzte bolatokian, eta gero, afaria egingo dute Euskaldunan. 24an kantu poteoa egingo dute 19:30ean, eta 26an jubilatuen bazkaria izango da.

Antolatzaileek adierazi dutenez, ohitura zen Domu Santu eguna pasa eta hirugarren astelehenean koadrilek afaria egin eta gaztainak jatea. Usadioa galtzen joan zenez eta "azaroa hilabete iluna denez", azaroan kultura ekintzak antolatzea erabaki zuten duela zenbait urte.



JARDUN EUSKARA ELKARTEA

## Kantu-jira herrikoia, domekan

Jardun Euskara Elkarteak kantu-jira herrikoia antolatu du urriaren 29rako. 12:30ean hasiko da San Martin plazan, eta adierazi dute, ondoren, parte-hartzaileentzat mokadutxo egongo dela. Aurrez, ordea, eguaztenean, San Joxepe elkartearen egin zuten domekarako entsegua. Jardunek herritarrek kantura animatu ditu.

## Iñaki Jauregi 'Canse' gogoratze kontzertua gaur

2019ko irailaren 14an minbiziak jota hil zen Iñaki Jauregi *Canse*-ren omenezko kontzertu berezia antolatu dute haren lagunek gaurko. 22:00etan hasiko da, eta antolatzaileek jakinarazi dute kontzertu ordena aldatu egin dutela. Hortaz, hauxe izango da emanaldien ordena: *Fucking What* -ia 25 urteren ostean zuzeneko bat emateko elkartuko da - izango da oholztara igotzen lehena; ondoren, *Nightrains*-en txanda izango da, eta jotzen azkena Debeku izango da. *Nightrains*-eko kide zen *Canse*, eta taldeak adierazi du hasierako taldekideez gain, lagun asko pasako direla oholztatik. Sarre- ra doakoa izango da.



# 60€ emango dizkizugu zure Mugi Txartelerako

Orain, **Joven In** programako bezero egin eta Ongietorri Packa \* abenduaren 31 baino lehen kontratatuta baduzu, **60 € ordainduko dizkizugu** zure kontuan, garraio publikoa erabilia mugitzen zaren bitartean dirua aurrez dezazun.



Izan ere, **Rural Kutxa**n eta **Joven In** programan zurekin ez ezik, mugikortasun jasangarriarekin ere konprometituta baikaude.

**RURAL KUTXA BERGARA**  
Paseo Irizar 5 · 943 76 93 93  
oficina.0169@ruralkutxa.com

**RURAL KUTXA OÑATI**  
Foruen Enparantza 9 · 943 71 88 67  
oficina.0198@ruralkutxa.com

**RURAL KUTXA ARRASATE**  
Plaza Biteri 2 · 943 79 53 43  
oficina.0253@ruralkutxa.com





Ezkerretik eskuinera, Alatz Etxebarriarteun, Xabi Iñurrieta, Antxon Arregi eta Julen Garmendia. GOLDEN BLEND

## 'Bonben zaldunak' lana, Golden Blend-en eskutik

Hiru bergarrek eta antzuolar batek osatutako taldeak azaroaren 2an aurkeztuko du bere lehenengo diskoa. Duela hiruzpalau urte hasi ziren elkartzen, baina orain dela urte eta erdi erabaki zuten grabatzen hastea. Kanta "oso pertsonalak" biltzen ditu

### Amara Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Musika egiteko asmoz, duela hiruzpalau urte hasi ziren biltzen Xabi Iñurrieta –gitarra eta ahotsa–, Alatz Etxebarriarteun –gitarra eta ahotsa– eta Julen Garmendia –baxua eta koroak– bergararrak eta Antxon Arregi –bateria eta koroak– antzuolarra, aurrez elkar ezagutzen zuten arren. Ibilbidea, ordea, "oso irregularra" izan dute, geldialdiekin, duela urte eta erdi abesti batzuk zituztela ikusi, eta diskoa grabatzeko erabakia hartu zuten arte. Bada, horren emaitza da *Bonben zaldunak* lana. Azaroaren 2an aurkeztuko dute Antzuolako gaztetxean, 20:30ean. Aurretik, Jo Ta Be taldea izango da, 19:30ean.

Diskoak biltzen dituen abestiak "oso pertsonalak" direla adierazi du Arregik, hala nola "bakardadeaz, barruko kezkez eta beldurrez" hitz egiten dutela. Diskoaren izenak ere horrekin du lotura: "*Bonben zaldunak*

lehen kantaren izena da. Munduaren amaierari buruz hitz egiten du, nola harrapatuko gaituen gehienok erdian, zerikusirik ez izan arren horra bideratu gaituzten erabakiekin". Beste abestietan ere "antzerako ideiak" errepikatzen dira, eta horregatik erabaki dute lanaren titulutzat erabiltzea. "Ideia ondo borobiltzen du".

Musika estiloari dagokionez, "arazoak" dituzte sailkatzeko. "Bakoitzak gure erreferentziak ditugu, eta gure instrumentuak jotzeko eta ulertzeko modu ezberdinak. Hainbat generotatik pasatzen garelara entzun izan dugu: pop edo grunge estilotik, punk-rock klasikoagoraino". Arregiren hitzetan, "ihes" egiten dute or-

**INSTRUMENTUAK ETA AHOTSA DIRA HIZPIDE; "IHES" EGITEN DUTE ORDENAGAILUEN SOINUETATIK**

denagailuarekin sortutako soinu- etatik, eta gitarrek, baxuak, bateriak eta ahotsek osatzen dute entzuten den guztia.

### Kazalisen batera

Zarautzeko Fidelena estudioan grabatu dute diskoa, eta Arregik aitortu du grabaketak "beti" direla "zailak". "Batuzentzat lehenengo grabaketa izan ez den arren, instrumentu hauekin eta formazio honetan egin dugun lehenengoa izan da, horrek dakarren urduritasunarekin". Mikel Kazalis musikaria izan dute horretan bidelagun, eta "oso esperientzia polita" izan dela azaldu du antzuolarrak. "Kantuei buruzko iritzia, aholkuak eta iradokizunak eman dizkigu, eta osatzen lagundu digu. Gainera, tentsio momentutan lasaitasuna transmititu digu, prozesu guztia erraztuz".

Orain, beraz, diskoa aurkeztea besterik ez zaie falta. Asmoa da poliki-poliki martxan jartzea eta kontzertu batzuk egitea.

## Bihar ospatuko dute Aiherra eta Antzuolaren arteko senidetza

39. urteurrena ospatuko dute, ohi den eran; bazkari- az gain, arratsaldean ez dira kantua eta dantza faltako

### A.R.K. ANTZUOLA

Aiherra (Nafarroa Beherea) eta Antzuolaren arteko senidetza ospatzeko eguna dute bihar herri- tarrek, Antzuolan. 10:00etan egingo diete ongi- torria aiherra- tarrei, eta hamarretakoa izango dute 10:30ean, indarrak hartze- ko. 12:00etan, berriz, *Amatxi Lezafi* izeneko antzerkia ikus- teko aukera izango da, Torresoro- roa aretoan. Hain justu, Aiherra- rako gazteek eginiko ikuskizun bat da, eta lehen aldiz aurkeztu- tuko dute Antzuolan. 14:30ean bazkaria egingo dute eskolako

patioan; 119 lagun batzea espero dute.

### Kantua eta dantza

Ttipika taldearekin kantu eta dantza saioa izango da bazka- lostean eta, egunari amaiera emateko, 22:00etan, Lizartxo talde onatiarrarekin erromeria antolatu dute, gaztetxean. Amaitzeko, DJ Jo ta Txo arduratuko da musika jartzeaz.

Era horretan, harremanaren 39. urteurrena ospatuko dute, eta datorrenaren esperoan gel- dituko dira.

## Trekutz parke eolikoaren berri emango du Udalak astelehenean

Capital Energy enpresarekin batzartu ostean, alegazioak aurkeztuko ditu Udalak. Horren berri emango dute

### A.R.K. ANTZUOLA

Trekutz parke eolikoaren berri emateko asmoz, batzar irekia egingo du Antzuolako Udalak astelehenean, hilaren 30ean, Torresoroan, 18:30ean. Izan ere, Olatz Lezeta Antzuolako alkateak jakinarazi du pasa den astean batzarra egin zutela Capital Energy enpresarekin, Udalarekin harremanetan jarri ostean, eta adierazi zutela proiektuarekin aurrera egiteko asmoa dutela.

Hain justu, enpresak bi aero- sorgailu instalatu nahi ditu

Irimogainen: bata, Antzuolako lurretan, Meaka gainean; bestea, Urretxuko lurretan, Irimon.

### Alegazio epea

Orain, alegazio epea zabalduko dela esan du Lezetak; hilabete- ko epea egongo da horretarako. Udalak alegazioak jarriko ditue- la nabarmendu du, eta, beraz, egin ditzakeen urratsen berri emango du batzarrean. Hala ere, gaineratu duenez, Eusko Jaur- laritzako Ingurumen Sailak proiektua onartuz gero, enpresak aurrera egiteko eskumena du.

## Garapen pertsonalean jarriko dute arreta 'Nigan' saioan

Garapen pertsonaleko tailerra- ri ekingo dio *Nigan* egitasmoak azaroaren 3an, eta urtarrilaren 29ra arte luzatuko da; hamabost egunean behin egingo da. *Eske- rona, edo gauzak ziurtzat emateari uzteko praktika* izenpean, meditazio praktikak egingo dituzte, egunerokorako tresnatzat. Izena eman daiteke 669 132 900 telefono zenbakira deituta.

## Kontseiluaren manifestaziorako autobusa egongo da

Euskalgintzaren Kontseiluak antolatuta, azaroaren 4an manifestazioa egingo da Bilbon, *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean, eta Antzuolako Udalak autobusa antolatu du. Udaletxean eman daiteke izena: ikasle eta langabetuek bost euro ordaindu beharko dituzte; gainontzekoek, hamar. 15:00etan aterako da.



# Kontsumoaren %40 etxea berotzeko da

Foru Aldundiaren 'Energia Argitu' programaren eskutik energia aurrezteko lehenengo formakuntza egin zuten eguaztanean, Elgetan. Bederatzi herritar bertaratu ziren. Enerdom aholkularitza enpresako Pello Insaustiren argibideak entzun zituzten

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

"Energia aurrezten hasteko, lehenengo eta behin jakin behar dugu zenbat kontsumitzen dugun eta zertan kontsumitzen dugun. Horretarako, fakturak begiratu behar dira", esan zuen Insaustik. Kopuru borobil batzuk ere eman zituen erreferentzia gisa; gure inguru honetan eta etxebizitza estandar batean, batez beste, 9.000 kWh inguru kontsumitzen dira urtean; 6000 kWh gas, eta 3000 kWh argindar. Gas kontsumoaren %40 etxea berotzeko izaten da, eta %24 ura berotzeko. "Beraz, lauzpabost bat hila-beteko tartean, urteko kontsumoaren %40 joaten zaigu. Interresgarria izan daiteke aurrezten hasteko hor eragiten hastea".

**Negura begirako gomendioak**

Energia aurrezteko askotariko neurriak har daitezke, baina, negu atarian egonda eta batez besteko kontsumoa zein den ikusita, berogailu sistemen kontrol neurrietan eta isolamendu aukeretan egin zuen azpimarra. "Neguan, egunez, 19-21 gradu arteko temperatura gomendatzen da; eta gauez, 15-17 gradu artekoa. Gradu bateko aldeak kontsumoaren %8 suposa dezake", ohartarazi zuen. Leihoen eta hormen isolamendua zaintzeko,



Pello Insausti hitz egiten, eguaztanean, Elgetan. L.Z.L.

## ANTZERAKO FORMAKUNTZA GEHIAGO EGINGO DIRA; HURRENGOA, AZARO HASIERAN

pertsianen kutzak ondo isolatzeko, ateen ihesbideak saihesteko eta galdaren eraginkortasun neurriak aztertze gomendatu zuten. Horrekin batera, tenperatura eskaera wifi bidezko kromo-termostato bidez kontrola-

tzeko aukeren inguruan aritu zen. Kontratututako tarifak eta potentziak errebisatzeko ere gomendatu zuen.

Ur beroketan ere har daitezke neurriak. "Gradu bateko gorabeheran aurrezpen handia egon daiteke, eta ur beroa hotzarekin nahasteko erabiltzea ez da eraginkorra", esan zuen. Salbuespenak salbuespen, etxea berotzeko nahikoa izan daitezke 45 gradu. Gomendio hauek eta beste hainbat jasota daude *Energia Argitu* web atariko *Gidak* atalean.

## "Ligatzeko aplikazioekin egoera surrealista asko sortzen dira"

**ANDONI MUTILOA** AKTOREA ETA GIDOILARIA

'Sex sua' ikuskizuna egingo du domekan, 18:30ean

**L.Z.L.** ELGETA

Umoretik heldu dio gaiari ikuskizuneko aktorea eta gidoilaria den Andoni Mutiloak. Sarrera doan izango da Espaloian.

**Zer da Sex sua?**

Abiapuntua ligatzeko aplikazioak dira, eta horien bueltan sortzen ari diren harreman kodigo berriak. Aplikazioen zurrumbiloan sartu gara, baina oso ondo jakin gabe nola funtzionatzen duten, zer nolako eragina duten gudan... Aktualitate handiko gaia dela-koan nago.

**Umoretik heldu diozu gaiari, baina gogoeta eragiteko asmoarekin.**

Gaia potoloa da eta hausnarke-ta sakona eskatzen du, baina uste dut umorea dela jendearengana heltzeko tresnarik eraginkorrena, eta ez nuen gauza dramatiko bat egin nahi. Egia da, bestalde, ligatzeko aplikazioekin egoera surrealista asko sortzen direla. Nire eta nire laguneren esperientzietan oinarritu dut ikuskizuna, eta pasarte serioak ere badauden arren gure buruaz barre egiteko gaitasuna baliatu nahi izan dut.

**Bi pertsonaia nagusi ditu Sex sua-k.** Bai. Hiruki eta Imanol. Hiruki pertsonaia oso xeblea da eta



Mutiloa 'Sex Sua' antzeztan. A. M.

aditua da ligatzeko aplikazioetan, eta horien erabileran trebatzeko gida bat atera du. Imanolek erabaki du gida erabiltzea, eta denetarik gertatuko zaio, noski. **Izan ere, gauza bat da teoria eta beste bat praktika, ezta?** Zalantzarik gabe. Atrakzio kontuak daude halakoetan, eta, hori horrela, gauza bat da teoria eta beste bat praktika. Denok daki-gun moduan, sarri ez datoz bat. Bereiz, helduendako obra moduan sortu genuen, baina konturatzen ari gara nerabeekin ere oso ondo funtzionatzen duela.

## Puska batzea eta beldurrezko ipuinak, Gau Beltzean

Badator Gau Beltza eta hainbat ekintza izango dira Elgetan hileren 31n. Taldeka egingo da puska batzea 18:00etan. HH2-HH4 adineko umeak Emakume Erresistenteen plazatik abiatuko dira; HH5-LH1 adinekoak, Bolatokitik; LH2-LH3koak, Torrealdeako plazatik; eta LH4-LH5ekoak, hilerri aurretik. Amaitutakoan elkartuko dira guztiak plazan festa egiteko. Nagusieneko beldurrezko ipuin saioa izango da 20:30ean hilerriko aldapan. Liburutegia, gurasoak eta herri eskola ari dira antolaketan lanetan. Ludoteka zerbitzuan kalabaza prestatuko dute Gau Beltzerako. Aurpegiak ere mar-gotuko dituzte.

## OHARRAK

### Irakurpuntu lehiaketa

'Liburutegi magikoa' ideia abiapuntu hartuta irakurpuntuak aurkezteko epea astelehenera ixten da.

### Gu ere kontalari

Azaroaren 3an egingo da umeak ipuin kontalari izango diren saioa liburutegian. Izena emateko epea zabalik da astelehenera arte.

### Astrotopaketa

Eguenean, azaroak 2, astroargazkilaritzari buruzko saioa, 18:30ean, liburutegian.

### Errigora kanpaina

Saskiak eskatzeko kanpaina zabalik da. Goibeko elkarteak dihardu Elgetan.

## Bi edukiontzi betetzeko beste zabor

Ingurumenaren zaintzarekin lotuta, zapatuan 35 bat herritarrek hartu zuten parte Udalak, gazte asanbladak eta Kantsatzeke mendi taldeak antolatutako auzolanean. Errekak Bizi ekimenaren barruan eskualde mailan egindako auzolana izan zen. Elgetan pare bat orduz aritu ziren Aixola erreka garbitzeko lanetan. Gehienbat plastikoa atera zuten.



Amaitutakoan, taldea zabor poltsaz beteriko ibilgailuaren ondoan. L.Z.L.





Urriaren 21ean aurkeztu zuten Burrunda Faktoria kultura elkarte Antixena gaztetxean. MIREN ARREGI

# Kultura proposamenekin dator Burrunda Faktoria

Musikan batez ere baina kulturako beste alorretan ere ekarpenak egin gura dituen Burrunda Faktoria kultur elkarte sortu da Oñatin, eta aurkeztu dute abendura bitarteko egitaraua. Gaur, egubakoitza, diskoa aurkeztuko du zuzenean, Sukenak

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Burrunda Faktoria izeneko kultura elkarte berria sortu dute Oñatin. Kultura arloan ekarpenak egitea du helburu, musikan batez ere, baina bestelako kultur proposamenei aterik itxi barik. Abendura arteko egitaraua aurkeztu dute; musika kontzertuak ez ezik, liburu baten aurkezpen ekitaldia ere jaso dute, adibidez.

## Talde irekia

Taldea irekia izango dela diote Burrunda Faktoriako partaideek, eta taldean edo antolatutako ekintzetan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak. "Jende eta ideia desberdinek aniztasuna sortzen dute, eta aniztasun horretatik, aurkeztu dugun urritik abendurako lehen denboraldiko egitarau honetan as-

kotariko musika estiloak daude". Azaldu dute hainbat balio edo oinarriren gainean lan egingo dutela; zentzu horretan, musika taldeekiko baldintza eta tratu egokiak bermatzea, eta euskara eta emakumeen presentzia nabarmendu dituzte.

Lehenengo denboraldian musika kontzertuak izango dira kultur talde berriaren ardatz

nagusia, baina, ez bakarra, tartean liburu aurkezpen bat egongo baita: Jon Urzelairen *Su festak* saiakeraren aurkezpena. Gainera, herrian zehar banatuko den fanzine bat ere sortuko dutela aurreratu dute. Bestalde, ez diote aterik ixten bestelako kultur ekitaldiak ere antolatzeaz. "Aipatu dugun moduan, Burrunda irekia eta dinamikoa izatea nahi dugu, eta bera osatzen duten kideen proposamen eta nahien arabera mugituko da".

Horrekin batera, gauzak egiten jarraitu ahal izateko finantziazio iturri gisa eta Burrunda herrian zabaltzeko asmoz, kamiseta, garagardo, poltsa eta abonua desberdinak jarriko dituzte eskuragarri.

## Bi abonua mota

Abonua kontzertuetan salduko dituzte, eta gaur, egubakoitza, salgai egongo dira. Prezio desberdinak dituzten bi abonua mota egongo dira eskuragarri, bata soldatadunentzat eta bestea soldatadunentzat. Erosten duenak denboraldiko kontzertu guztietarako sarbidea izango du, eta, sari gisa, kontzertu baterako sarrera doan aterako zaio. Abonuekin batera, Burrunda garagardoa izango dute opari.

## Sukenaren disko berria

Hain zuzen ere, Oñatiko Sukena taldearen diskoa aurkezteko kontzertuak inauguratuko du Burrunda Faktoriaren egitaraua. Duela bi urte sortu zen Sukena taldea eta *Guztia gordetzea ezinezkoa da*, taldearen lehenengo diskoa, aurkeztuko du gaur. 22:00etan hasiko da kontzertua, Antixena gaztetxean. Hantxe egingo dira Burrunda Faktoriak antolatutako gainerako ekintza gehienak ere.

## Abendura arteko eskaintza

### URRIAK 27

- 22:00 Sukena. Doan.

### URRIAK 28

- 22:00 Bayou La Batre + eta Lee-Kore. Sarrera: 8 euro / 3 euro.

### AZAROAK 3

- 19:00 Jon Urzelai idazlearen *Su festak*. *Euskal musika jaialdiak XXI. mendean* saiakeraren aurkezpen-ekitaldia. Doan.

### AZAROAK 18

- 19:00 Ramada Inn eta Arima. Sarrera: 8 euro / 3 euro.

### AZAROAK 26

- 19:00 Arima Soul taldea. Sarrera: 5 euro / 3 euro.

### ABENDUAK 16

- 19:00 Malammär + iragarri gabeko taldea. Sarrera: 8 euro / 3 euro.

Oharra: Ekitaldiak Antixena gaztetxean dira.

## DENBORALDIKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK ETA SARIA IZANGO DUTE ABONUA EROSTEN DUTENEK

## 90 bat lagun elkartuko dira bihar Oinherriren jardunaldian

Parte hartzearen inguruko esperientziak ezagutu, eta zalantzak partekatuko dituzte goizean, Santa Anan

### O.E.G. OÑATI

*Parte hartzea haurtzaroaren kulturatik (bir)pentsatzen* izenpean, goiz osoko jardunaldia egingo du bihar, zapatua, Oñatin Oinherri. Profil askotako 90 bat lagun dira elkartzekoak,

eta orain arteko esperientziak ezagutu eta zalantzak eta galderak elkarbanatuko dituzte.

Oinherri argi du parte hartzea dela "herri hezitzaileak eraiki eta sustatzeko oinarritzko tresna". Azken urteetan, parte hartzearen

inguruko marko berri bat osatzeko beharra eta nahia sentitu dutela diote: "Parte hartzea haurtzaroaren kulturatik birpentsatzeko behar eta nahi bat". Horrela, Antzuolako Herri Eskolaren inguruan hitz egingo dute, adibidez, eta nazioarteko esperientziak ere ezagutuko dituzte, Argentinako bat kasu.

Hamar urte bete ditu Oinherri Elkartek eta 40 bat Udalek osatzen dute sarea egun. Horien artean daude, adibidez, Oñati eta Bergara.

## Udaltzainek zaintza indartuko dute hilerrian eguaztenean

Kanposantura bisitan joateko eguna izan ohi da azaroaren 1a, eta aurten ere udaltzaingoak zaintza areagotuko du hilerriaren inguruan egun horretan. Gertatu izan da egun horretan lapurretak egotea kanposantura doazen ibilgailuetan joan den urtean bi izan ziren, eta hori ez gertatzeko lagundu gura dute udaltzainek. Horrela, ibilgailue-

tan kanpotik ikus daitezkeen ezer ez uzteko mezua irakur daitezkeen oharra jarriko ditu asteburuan hilerriaren inguruan eta zaintza areagotuko du egunean bertan, eguaztenean. Normalean baino maiztasun handiagoarekin egingo dituzte joan-etorriak udaltzainek kanposantura.

Bestalde, jai egunetako autobus zerbitzuak kanposanturaino egin ohi izan ditu bidaiak azken urteetan, eta aurten ere horrela izango da, aldaketarik ezean.



# "Pandemia aurreko ideia dira argazki hauek"

**ASIER EGAÑA HERRAN** ILUNPETAN TALDEKO ARGAZKILARIA

Oñatzeko dantzarietara ateratako 33 argazki jarriko ditu ikusgai domekan parrokiako klaustroan zabalduko duten erakusketan. Dantzako hamaika pauso erretratatu ditu

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Digitalizazioarekin batera sartu zen argazkigintzan Ilunpetan taldeko Asier Egaña Herran (Oñati, 1980) eta ez du alboratu oraindik. Oñatzeko dantzarietara egin zuten argazkien erakusketa zabalduko dute domekan, parrokiako klaustroan.

**Parrokiako klaustroan egongo dira ikusgai argazkiak. Ezohiko tokian.**

Bai, kultura etxeko erakusketa gela ohikoagoa da egia esan, baina iruditzen zitzaigun hara propio joan behar dela eta denon pasadizoan dagoen toki batean erakutsi argazkiak. Eta parrokiako klaustroa egokia izan daitekeela iruditu zitzaigun.

**Asteburuetan egongo da zabalik.**

Hori da. Domekan zabalduko dugu eta abenduaren 3ra arte, zapatu eta domeka goizetan ikusi ahal izango dira argazkiak, 11:00etatik 14:00etara. Argi naturala behar da erakusketa ganoraz ikusteko; ordu aldaketarekin arratsaldeak ilunagoak izango dira aurrerantzean, eta horregatik egongo da bakarrik goizez.

**Meza entzutera eta erakusketa ikustera doazenean topo egingo dute.**

Batzuetan bai, horrela da. Eliza aldera dauden klaustroko bi beira handiak, baina, estali egin ditugu espazio biak bereiziz.

**Zenbat argazki daude ikusgai?**

Guztira, 33 argazki daude, hiru-naka banatuta. Azken finean, dantzako hamaika pauso ezberdin ikus daitezke argazki horietan.

**Nolakoak dira? Zer ikusten da?**

Tamaina bera dute argazki denek, 50x75 zentimetro, eta, oro har, bertikalak dira. Dantzari bakarra ageri da argazki gehienetan, dantzan, baina bikoteak ere ageri dira. Hain zuzen ere, bikoteko argazki horiek dira horizontalean jarrita daudenetako batzuk. Guztira, hamahiru pertsona ageri dira dantzako hamaika pauso desberdin egiten.



Asier Egaña argazkilaria parrokiako klaustroan. A.E.

## "ENTSEGUKO UNETAN, ARROPAK JANTZITA ETA MUGIMENDUAN ATERA DITUT DANTZARIAK"

**Zergatik daude hiru-naka banatuta?**

Dantzako pausoa hiru egoera ezberdinetan erakusten dutelako. Normalean dantzari arropak jantzita ikusten ditugu Oñatzekoak, baina entseguko momentuak ere erakutsi gura nituen nik. Dantzari jantzita, denak txukun doaz, goitik beherako arropekin, ondo orraztuta... Baina gura nituen dantzariak entseguetan erakutsi: praka moztetan, ilea batu barik, bizarrarekin... Horrela ageri dira lehen argazkian. Bigarrenetan ikusten da dantzaria pauso bera egiten baina dantzako arropak jantzita. Hor ere, ahalik eta arropa edo elementu desberdin gehien erakutsi gura izan ditut. Eta hirugarrenean, dantzako arropekin eta mugimenduan, pauso hori ematen duten uneko mugimendua erakusteko.

**Non atera dituzue argazkiak?**

Buruan nuena zen estudioan ateratzea argazkiak, denak hondo beltz baten aurrean. Eta horrela egin dugu.

**Nolakoak izan da lana?**

Pandemia aurretik dator ideia. Konfinamenduak atzeratu zuen gero proiektua, eta poliki-poliki gauzatu da harrezkero. Argazkiak egin, ordenagailuan ikusi gustukoak diren edo ez, aukeraketa egin... Duela hiru bat urte hasi genuen, eta urte eta erdi edo bada argazkiak eginda eta aukeratuta nituela, eta erakustea pentsatu dugu orain.

**Eta elkarlana?**

Oso ona. Oñatzeko dantzariak oso ondo portatu dira nirekin. Sekulako pazientzia izan dute; ni gustura gelditu arte atera dizkiet argazkiak. Saio pare bat errepikatzea ere tokatu zitzaigun... Esker hitzak baino ez ditut euren dako. Eta baita Ilunpetan taldeko argazkilarientzako ere; asko lagundu didate eurek ere proiektu honetan.

**Txistularien musika entzuten zen argazki saioetan?**

Musikaririk ez, baina batzuetan ez dira bakarrik etorri eta elkarri isilik kantatu diote pieza, pausora heltzeko eta egiteko.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

## Ordua

Ordua aldatuko da asteburuan. Larunbatetik igandera ia ez da aldaketarik egongo eguzki ordutan, baina igandean ariko gara esaten arratsalde motzagoa izango dugula hemendik aurrera. Arratsaldearen hasiera noiz jartzen dugun, hortxe koska. Erlojuak markatzen digu erritmoa, ez naturak; neguko edo udako ordutegia eduki, ordu jakinean jaikitzen gara, bazkaldu, lan egin... Hori ez dugu aldatzen. Adostasun zabala sumatzen dut ordu aldaketarekin bukatu eta urte osorako ordutegi bat ezartzeko. Europatik ere ahaleginu dira horretan, baina ez da adostasunik lortu ordutegi bat aukeratzekoan, eta iruditzen zait urteetan jarraituko dugula horrela. Niregatik balitz, neguko ordutegia urte osorako. Munduko hainbat lekutakoei ordu aldaketak ez die asko eragingo, bizirik irauteko ahaleginak markatuko die hemendik aurrera ere erritmoa; ahal dutenean jatea eta edatea, zauritutakoan mediku arretarik jasotzeko ziurtasunik ez izatea, airetik etorritako lehegailu baten eztanda pairatzeko beldurrarekin lo egitea, ordu hori biziko duten azkenekoa izan daitekeela sentitzea.

## Sorginen bueltako ikuskizuna egongo da domekan gaztelekuan

Goiena komunitatea

Verduri Hall / OÑATI

*Sorginak eta sorginkeriak* izeneko ikuskizuna egongo da domeka eguerdian, 12:30ean, gaztelekuan. Sorginei eta mitologiari buruz pentsarazi eta hunkitu gura duen ikuskizun literario-musikala da. Toti Martinez de Lezeak sorginei buruzko jakintza jarriko du lehen lerroan bertan, eta musikaz lagunduta "zer ziren, edo hobeto esanda, zer ez ziren" azalduko du. Idazlearen testuek hegan egingo dute Gorka Hermosak konposatutako musikan barrena, akordeoilariak berak eta Edurne Zabalo klarinete jotzaileak interpretatuta. Zortzi euro da sarrera.

## Autobusa egongo da azaroaren 4ko manifestaziorako

*Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa egongo da Oñatitik. 15:00etan aterako da postetxetik, eta 20:00etan, bueltakoa, Bilbotik. Arrano eta Eltzia tabernetan daude txartelak salgai: bost euro ikasle eta langabeek, eta hamar besteek.

## Festa giroan ospatuko dute bihar Eltzia Eguna

Eltzia Eguna ospatuko dute zapatuan, urriak 28. Eguerdian hasiko dituzte ospakizunak; 12:00etan, plazatik Eltzia iragorera girotua egingo dute Potx eta Lotxekin, eta 12:30ean, Eltzia ikusteko eta ezagutzeko bisita. Eltzian bertan bazkaldu ostean, bertso saioa egongo da Urko Arregirekin eta Beñat Ormaetxearekin, eta kontzertua, 19:00etan, Aiert musikariarekin.

Eltzia dinamizatu, indartu, harreman-sarea sendotu eta Topagunea eltzekideen eta herritarren elkargune bilakatzea du helburu Eltzia jardun berriak, eta egoki ikusi dute Eltzia Eguna berreskuratzea, eltzekideendako zein gainerakoendako.

## Oñatiko Laburmetrai Rallyrako izen ematea zabalik dago

Azaroaren 4an egingo da aurtengo film laburren rallya, eta izen ematea zabalik dago. Izena ematen duten lehen 20 taldeak lehiatu ahal izango dira bakarrik. Hamaika orduan burutu behar dituzte lanak, egunean bertan emandako gaia, generoa eta objektua landuz. 21:30ean Santa Ana antzokian eta streaming bidez proiektatuko dira lanak.





Oñatiko Musika Bandaren denboraldiaren aurkezpeneko irudia. IÑIGO BARRENA

# Musikarekin gozatzeko eta ikasteko 'Topagunea'

laz bezala, sei kontzertuz osatutako denboraldia aurkeztu du Oñatiko Musika Bandak, non hainbat eragilek parte hartuko duten. Horretaz gain, ikasturte berrirako, aurretik martxan zituzten proiektuei jarraipena emateaz gain, berriak abiatuko dituzte

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Oñatiko Musika Bandak 2023-2024 ikasturteko kontzertuen denboraldi berriaren aurkezpena egin du. Aurten ere sei kontzertuz osatuko dute denboraldia, eta *Topagunea* izena jarri diote. *Top* eta *gune* hitzak erabilita, 6 gai ezberdin lantzea izango du helburu denboraldiak. Era berean, publiko desberdinak

erakartzeko helburua jarri dute, batez ere, haurrak eta gazteak, etorkizuneko publikoa izango direnak. Gainera, beste urte batez, hainbat eragilek hartuko dute parte denboraldi honetan. "Aurreko urteetan bezala, banda izango da protagonista nagusia, baina gurekin batera beste eragile batzuk izango ditugu kontzertuetan.

Musika Eskolako ikasle gazte-  
txoak, Oñatiko Banda Gaztea, Camdem Town dantza taldea, Potx eta Lotx pailazoak eta Izaskun, Ganbara Abesbatzako bakarlari batzuk, eta Gimnasia Erritmikoko taldea. Azken horiek lehen aldiz arituko dira", adierazi du Aitor Biain Bidarte Oñatiko Musika Bandako zuzendariak.

Kontzertuen denboraldia dato-  
rren azaroaren 19an abiatuko da *Nobela Gunea* kontzertuarekin. Abenduaren 17an egingo dute urteroko Gabonetako kontzertua, denboraldiko zerrendatik kanpo dagoena, eta urtarri-  
laren 6an izango da denboraldiko bigarrena, *Top Zartzuela*, hain zuzen. Gainontzeko kontzertuak *Dantza Gunea*, *Zirko Gunea*, *Top Kondairak* eta *Top Williams* izango dira, hilabete bakoitzean bat, maiatza kenduta, baina horien datak zehazteke daude oraindik.

Kontzertuen tokiari dagokionez, guztiak kiroldegiko pilotalekuan egingo dira, azkena izan ezik, eta sarrera doan izango da, nahiz eta alde aurretik hartu beharra egongo den. Horrez gain, Musika Auzoetan ekimenearekin ere aurrera jarraituko dute, eta erabakitzeke dauden herri barneko bi auzotan ere kontzertua eskainiko dute.

## Valentziara, elkartrukean

Kontzertuen denboralditik kanpo, ikasturte berriko proiektuen artean dago Valentziako Burjassot herriko bandarekin egingo duten elkartrukea. Biainek aitortu du aukera "ezin hobea" dela aurrean dutena: "Valentzia banden ondare handiena duen lurraldea da; beraz, gonbidapenak interesa piztu zizun. Horrelako elkartruke batek aukera emango digu bertara joan, Valentzia ezagutu eta gure musika eurei erakusteko, eta alderantziz".

## Herriak Herriarentzako Banda

Beste berrikuntzetako bat etorkizuneko banda bermatzeko asmoa duen proiektua da. Azken urteetan martxan dihardu proiektu horrek, musika eskolarekin elkarlanean, bertako kideak

erakartzeko. Hala, Banda Gaztea sortu zen, eta, aurten, Gabonetako kontzertuan eta kontzertu pedagogikoan jotzeaz gainera, bi kalejiratan parte hartuko dute bertako kideek.

Oraingo honetan, ordea, proiektu honekin nagusiagoa den profila erakarri nahi dute Oñatiko Musika Bandako kideek, instrumentuak berrartzera animatuz edo instrumentu berriak ikasteko gonbita eginez. "Beti uste izan da bandan sartzeko txikitatik hasi behar zarela instrumentua jotzen, eta guk estereotipo horrekin amaitu nahi dugu. Badago nagusiagoa den profila bat, musika instrumentu bat jotzen dakiena edo ikasi nahi duena, eta bandan jotzea gustatuko litzaiokeena. Horregatik, musika instrumentua berrartu edo hartu, urte batzuetan trebatu, eta bandan sartzera bulztatu nahi dugu jendea", dio Biainek.

## Instrumentuei bizitza eman

Ikasturte berriaren barruan esanguratsua den beste proiektu bat Eman Beste Bizitza Bat Zure Instrumentuari ekimena da. Horrekin, herritarrek euren etxeetan dituzten eta erabiltzen ez dituzten instrumentu zaharrei erabilera ematea da helburua. Horretarako, instrumentu horiek Oñatiko Musika Bandari dohaintzan emateko aukera egongo da; [oinatikomusikabanda@gmail.com](mailto:oinatikomusikabanda@gmail.com) helbidera idatz daiteke horretarako.

## KONTZERTUETAKO SARRERAK DOAN DIREN ARREN, ALDEZ AURRETIK HARTU BEHARKO DIRA

## Karoi antzerki jaialdiak bi ekintza izango ditu asteburuan

Kamera aurreko hastapenen ikastaroa eta 'Anbotoko Mari' antzezlanak izango dira Eltzian egingo diren biak

### I.B.K. OÑATI

Joan den astean hasi zen Karoi antzerki jaialdia, eta asteburu honetan bigarren geldialdia izango du Oñatin. Bi ekintza daude aurreikusita domekarako, biak Eltzian; kamera aurreko

hastapenei buruzko ikastaroa eta *Anbotoko Mari* antzezlanak.

Lehenari dagokionez, Itsaso Pol zinegile eta casting-egileak aktoreei kamera aurrean antzezteko oinarrikoak diren kontzeptuak eta gakoak eraku-

tsiko dizkie. Ikastaroak 20 euroko prezioa du, eta ordutegia hau izango da: 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Izena emateko, [dantzerkiplat@gmail.com](mailto:dantzerkiplat@gmail.com) helbidera idatzi behar da.

Bigarrenaren kasuan, ikusle klubaren barruan, Logela antzerki taldearen *Anbotoko Mari* antzezlanak landuko dute lehenengo, 16:00etan, Eltzian. Gero, 17:00etan, Santa Ana Antzokira joango dira antzezlanak ikustera. Amaieran berriz elkartzeko dira, ikusle klubari itxiera emateko.

## Literaturazaleek zita bikoitza dute gaur Udal Liburutegian

Udal Liburutegian urrirako antolatutako agendaren barruan, haurrentzako eta helduentzako ipuin kontaketa izango dira gaur. Etxeko txikienei dagokionez, Xabier Olasok *Tximeletrak airera* izeneko ipuin kontaketa egingo du, lau eta sei urte bitarteko haurrentzako, arratsaldeko 18:30etik hasita, haur liburutegian. *Pupuan trapua* eta

*Tximeletrak* liburuak abiapuntu hartuta, ibilbide poetiko bat osatuko du.

Helduendako ipuin kontaketa, berriz, Tarana Karim azerbaijandarrak egingo du. Tolosan bizi da egun, eta ikasketaz abokatua baldin bada ere, aktibista nekazina da, eta atzerriatik etorritako emakumei laguntzen dihardu aktiboki. Berari eta anaiari txikitatik kontaktu izan dizkieten ipuin herrikoien bidez, beraien kulturara hurbilduko ditu ikus-entzuleak.



# Literatura emanaaldi *musikatua*

**Joseba Sarrionandia**  
eta  
**Joxe Mari Iturralde**  
idazleak

**Anne Etchegoyen**  
abeslaria

**Iñar Sastre**  
musikaria

**Olatz Prat**  
musikari eta kazetaria



**Azaroak 3, ostirala, 19:30,  
Arrasateko JAMEn**

Sarrerak eskuratzeko:  
[www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)

**Sarrerak 10 €**



Antolatzaileak:



**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Babesleak:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MENDRAGON



Gipuzkoako Foru Alundia





Iñigo Alzola, tontorrera iritsi eta hauspoa errekuaperatzen, zapatuan. MONDRAITZ

# "Marka horrek (39.24) norbait motibatzen badu, ederto"

**IÑIGO ALZOLA MENDI LASTERKARIA**

**MENDIA** Duela hiru aste Anbotoko kilometro bertikala irabazi ondoren, lasterkari arrasatearrak Udalatxen marka ezarri gura izan du; zapatuan 39.24ko denbora egin zuen, plazatik

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Udalatxera ahalik eta azkarren igotzea mendizale askoren buruan dago, eta askok izango dute erreferentziaren bat edo beste jasota, lagunartean komentatzeko ez bada ere. Ofiziala izan gabe, baina Iñigo Alzola arrasatearrak dagoeneko hartu du erreferentzia bat. Arrasateko udaletxe ondotik Udalatxeko tontorrera igotzeko 39 minutu eta 24 segundo erabili zituen zapatuan, eta bideoan jaso zuten igoera *-Goiena.eus-en* ikusgai-.

**39 minutuan gauza asko egin daitezke, baina Udalatxeko tontorreraino igotzea...**

Mondraitzekook sarritan komentatu izan dugu norberaren ataritik Udalatxeko tontorreraino igotzeko zenbat denbora beharko genukeen. Eta zapatuan erabaki genuen saiakera egitea, plazatik. Markak ez du halako garrantzirik, segundo batzuk gutxiago ala gehiago... Gehiago da erreferentzia bat jartzea, beste norbait egitera animatu dadin.

**Gutxi egongo dira marka horren bueltan ibil daitezkeenak, baina motibagarria izan daiteke beste askorendako.**

Hain zuzen, egunotan hainbatek esan didate eurek ere proba egin nahi dutela, erronka moduan

**"EGUNOTAN HAINBATEK ESAN DIDATE EUREK ERE SAIAKERA EGIN NAHI DUTELA"**



Udalatxera igotzeko Alzolak jarraitutako bidea. JOSU ELORZA

## Udalara, 15 minutu pasatxoan

Arrasateko plazatik Udalatxeko tontorrera 5,7 kilometroko distantzia bete zuen Iñigo Alzola. Hala, erlojua 39.24an geratzeko kilometroa 6.54ra egin zuen, baina, noski, 908 metroko desnibela gaindituta. Udalara 15 minutu eta erdian iritsi zen.

## Ezpeletak 37 minutuan, Iturripetik

Alzolarena ez da Udalatxera azkar igotzeko egin den lehenengo saiakera, ezta gutxiago ere. Baina gutxi gerturatu dira marka horietara. Hamabost urte pasa atzera eginez gero, Zuhaitz Ezpeletak 38 minutu pasatxoan geratu zuen erlojua, lagunartean egindako apustu baten bueltan: "Unai Uribarren lagunaren kontra egin nuen apustua", dio Zegama-Aizkorriko podiumera igotzea zen badakien Ezpeletak. "Lehenengo pilotan egin genuen, eta 12 tantotara jokatu genuen partida. Tanto bakarra ere ez nuen egin, horrenbestez, Uribarren 12 minutuko abantailarekin abiatu zen Iturripetik gora. Gogoan dut orduan elurtuta zegoela bidea, baina gu gurutzera igo ginen. Eta bai, apustua galdu egin nuen [barreak]. Baina, entrenamenduren batean, 37 minutuan igo izan dut, bai".

hartu dutela. Seguruena denbora gehiago beharko dute, ala lasaia joango dira, baina Udalatxera joateko balio badie... Halako mendi tontor bat etxetik horren gertu izatea gauza handia da. Honek inor Udalatxera joatera motibatzen badu, gaitz erdi. **Duela hiru aste Anbotoko kilometro bertikala irabazi izanak erakusten du sasoi onean zaudela.**

Uda osteko helburua zen kilometro bertikalak ondo prestatzea, eta Ander Garmendia entrenatzaileak lagunduta lan ona egin ahal izan dut. Udalatxen egin dugun moduan, Anboton ere ibilbidea ikuskatzen ibili ginen, nondik igo erabakitzeke, eta lanketa horrek fruituak eman zituen lasterketan. Azken batean, 40 minutuko erritmo altuko esfortzuak egiteko entrenatu naiz, eta baliagarria izan da Udalatxeko marka egiteko, bai.

**Udalatxera nondik igo begiratzen ibili zineten?**

Bai, hainbat saiakera egin nituen. Esaterako, erabaki genuen Udalarara bidea lehenengo tartea errepidetik egitea. Ez da laburrena, baina asfalto gainean errazagoa da korrika azkar egitea. Gero, Udalatik Udalatxera hainbat igoera daude, baina igoera klasikoa da azkarrena. Ibili ginen begira, era berean, dronearekin grabatzeko nondik zen igoera egokiena.

**Arrasate-Udalatx lasterketa ez da tontoretik pasatzen. Eta ibili zarete horri buruz hausnartzen...**

Gauza batzuk irabaziko lituzke, baina beste batzuk galdu. Goialdea arriskutsua izan daiteke eguraldi txarrarekin, eta herri mailako kirolariendako, akaso, irabazi baino galdu egingo luke. Eta horiek guretako oso garrantzitsuak dira.



# Hurrengo geltokia, Antxintxika krosetan

**KIROL EGOKITUA** Joseba Azkaratek, Iñaki Igartuak eta Alfonso Lopezek erronkaz betetako hilabetea izan dute, Galdakaoko duatloia eta Donostiako 15k lasterketak egin dituztelako. Hurrengo hitzordua berezia izango da, etxean lehiatuko direlako

**Xabier Urzelai** BERGARA

Antxintxika taldeak gertu du azaroaren 4an egingo duten Antxintxika krosaren 17. edizioa, eta kirol egokituko saileko ordezkari Joseba Azkarate, Iñaki Igartua eta Alfonso Lopez gertu daude etxeko hitzordurako. Hala, *hiru mosketari*ek urria bete izan dute, Galdakaoko duatloian eta Donostiako 15k lasterketetan esku hartu dutelako, eta bi astez atsedean hartu eta gero, datorren asteburuan Soraluzeke irteera puntuan izango dira. "Urriaren 15ean Galdakaoko duatloi inklusiboan parte hartzeko aukera izan genuen. Lehen aldiz antolatzen zuten proba hori, eta bertan Antxintxikako kirol egokituko saileko ordezkariak gaitasun desberdinetako kirolariek parte hartu zuten. Eta gure klubeko fenomeno hauek beste behin erakutsi zuten kirola guztiondako dela", adierazi du Aitor Rementeriak.

Eta zapatuan, Donostiako kaletan batu ziren bi mila atletekin batera lehiatu ziren Antxintxikakoak, 15k lasterketan. "Goiz ederra pasatzeko aukera izan zuten. Bakoitza erronka propioarekin aurkeztu zen irteera puntura, eta hirurek bete zituzten helburuak. Talde bezala ere irudi ederra eman genuen".



Alfonso Lopez, Joseba Azkarate eta Iñaki Igartua, 15k lasterketan. ANTIXINTXIKA

## ANTXINTXIKAKO ORDEZKARIAK SORALUZKEKO IRTEERA PUNTUAN IZANGO DIRA AZAROAN 4AN

**Hurrengo, etxean**

Azkaratek, Igartuak eta Lopezek gertu dute hurrengo hitzordua, ohi moduan, azaroaren 4an egingo duten Antxintxika krosa kirol egokitukoak hasiko dutelako, eta Soraluzeke irteera

puntuan izango dira hirurak, hamar kilometroak egiteko gertu. "Orain atsedean apur bat hartzea tokatzen da, Soraluze eta Bergara arteko etxeko lasterketa berezia prestatzeko". Azaroaren 4ko lasterketara begira, ordutegien aldetik dago aparteko nobedaderik. 16:30ean handbikekoek eta gurgildun aulkikoek hasiko dute lasterketa; 16:45ean, patinatzaileak irtingo dira; eta 17:00etan, korrikalariak. Aurten ere Mikel Crespo eta Oliver Hernandez gogoan izango dituzte.

## Izen-ematea, azaroaren 3ra arte

Azaroaren 4an egingo duten Antxintxika krosaren izen-ematea martxa onean doa, dagoeneko 250 lagunek eman dute-eta izena *Kirolprobak.com* webgunean. Azaroaren 3a da, lasterketa bezpera, izena emateko azken eguna – lasterketa egunean ezingo da izena eman-. Hala, lasterketan parte hartzeko 16 euro ordaindu behar dira.



David Gartzia iazko helmuga gurutzatzen lehena izan zen. GOIENA

## Soraluce BKEk Mugarri Ingou hartuko du bihar, 17:15ean

**ESKUBALOIA** Bergarrek dagoeneko bi garaipen eskuratu dituzte; arrasatearrek lehenengoa nahi dute

**X.U. BERGARA**

Seguruena ez da amestutako liga hasiera izan, ez bergarrendako eta ezta arrasatearrendako ere, baina poliki-poliki txapelketari neurria hartzen dabilta bi talde horiek, eta asteburuan izango dute urteko hitzordu politetako bat: debagoiendarren arteko derbia. Hala, lehenengo itzulikoa Labegaraian jokatu dute, zapatuan 17:15ean. Mahoneroak sailkapenaren erdian daude, jokatuak lau partidutatik bi irabazita, eta arrasatearrak bederatzigarren daude, bi partidu berdindu eta gero.

**Fagor Professionalek etxean**

Euskadiko txapelketan diharduen Fagor Professionalek etxean jokatu du bihar, zapatua. Ander Arrizabalagaren mutilek oraindik ez dute partidurik ira-



Begarako azken derbia. GOIENA

bazi, baina jokatuak hiru jardunaldietan sailkapenak erakusten duena baino gertuago izan dute garaipena, bereziki lehenengo eta bigarren jardunaldietan. Hala, bihar (18:00) Alcorta Forging Elgoibarkoak izango dira Zubikoan.

## Derbi bikoitza asteburuan, Mojategin eta Azkoagainen

**FUTBOLA** Lider dagoen Mondrak Antzuola hartuko du, eta Aloña Mendik Bergararen bigarren taldea

**X.U. ARRASATE**

Gorengo mailan bina derbi izango dira asteburuan. Batetik, zapatu arratsaldean indartsu dagoen Mondrak –jokatuak partidu guztiak irabazi dituzte– sailkapenaren atzealdean dagoen Antzuola hartuko du Mojategin (16:30), eta bestetik, hirugarren dagoen Aloña Mendik Bergararen bigarren taldea hartuko du domekan (16:30).

**Bergara eta UDA, etxean**

Ohorezko erregionalean, Bergarak eta Aretxabaletak etxean jokatu dute. Hirugarren dauden mahoneroek bosgarren dagoen Mutrikuren bisita izango dute zapatu eguerdian (12:00), eta bigarren dagoen Aretxabaletak, berriz, ezohiko ordutegian jokatu du Hernaniren kontra (zapatua, 16:30). Datorren eguaztengan partidua izango dutenez,



Mondra eta Antzuola, 2018an. GOIENA

erabaki dute etxeko partidua domekatik zapatura aurreratzea.

Emakumezkoetan, berriz, Debagoiena Bailarak joan den astean lortu zuen ligako lehenengo garaipena, 1-0 Oiartzunen kontra. Domekan, 18:15ean jokatu dute Elgoibarren.



# "Gazteak gonbidatu gura nituzke, bereziki, saiora"

OLATZ PRAT KAZETARIA ETA MUSIKARIA

'Literatura emanaldi musikatu' ikuskizuna egingo dute Joseba Sarrionandiak, Joxe Mari Iturraldek, Iñar Sastrek, Anne Etchegoyenek eta Olatz Pratek azaroaren 3an

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**

ARRASATE

Musika eta literatura uztartzen ditu azaroaren 3an Arrasateko Juan Arzamendi Musika Etxeo -JAME- auditoriumean eskainiko duten ikuskizunak; Olatz Prat (Azpeitia, 1984) kazetariak eta musikariak gidatuko du.

**Zelako ikuskizuna da?**

Betidanik uztartuta egon diren bi genero dira musika eta literatura, eta uztarketa hori aprobetxatu nahi izan dugu, gure xumetasunetik, Joseba Sarrionandia eta Joxe Mari Iturralde bi literatura munstro batuta, denok horietaz gozatzeko, bai literatura eta bai musika aldetik.

**Nondik eta zergatik abiatutako proiektua da?**

Tolosako Lizardi Kultura Elkarateak eta Galtzaundi Euskara Elkarateak sortutakoa da. Euskal literaturari buruzko hitzaldiak antolatzen dituzte, eta hasierako planteamendua izan zen piano-jotzaile batekin errezitaldia konbinatzea. Pixkanaka forma hartu zuen eta hitzaldi soil hartatik osatu zen emanaldi hau. Urtarrilaren 27an estreinatu genuen Tolosan, arrakastaz; harrezkero hiru emanaldi egin ditugu, eta urte bukaera bitartean zortzi gehiago eskaniko ditugu herri ezberdinetan.



Olatz Prat kazetariak eta musikariak gidatuko du ikuskizuna. O.P.

## Komunitatean eragiteko

Goienak eta AED elkarateak antolatu dute "euskararen eta euskal kulturaren transmisioa oinarri duen" ikuskizuna, bazkideendako eta interesa duten guztiendako.

*Arrasate.eus* atarian daude eskuragarri sarrerak, hamar eurotan.

**Zelako egitura du?**

Ordu eta erdiko iraupena du eta zati ezberdinak ditu: badu literatura irakurritik, hau da, Sarrionandiak eta Iturraldek euren hainbat testu irakurritiko dituzte musikak lagunduta; abestiak edo poema musikatuak ere bada, eta idazleekin tertuliarako tartea ere bai. Euskaraz eta euskal literaturari buruz egingo dugu modu ezberdinetan berba, publikoak egin ahal ditzakeen galderetatik, idazleen anekdotetatik edo nik proposatutako ditudan gaietatik abiatuta.

**Bi idazleez gainera, hiru musikari izango zarete taularen gainean.**

Hala da; Iñar Sastre sentiberatasun handiko Irurako piano-joleak jazz doinu gozoezin jantzi-ko ditu idazleen irakurketa tarreak, eta Anne Etchegoyen Donapaleuko ibilbide handiko musikariak eta biok euskal literaturak eman dituen askotariko pieza ezagunak abestuko ditugu; esaterako, *Izotz ondoko eguzki* izeneko kantatuko dugu ikuskizunaren bukaeran.

**Polita litzateke ikusleek ere hitza hartzea eta zuekin batera abestera animatzea, ezta?**

Bai horixe! Aukera aparta da bi autore handi hauekin batera gure hausnarketa pertsonalak partekatze.

**Nor nahiko zenuke JAMEko emanaldira gonbidatu?**

Denentzako zabalik dagoen emanaldia dela esango nuke; izan daiteke euskara edo literatura mundutik datozenentzat eta garai bateko kantuekin konektatzea nahi duten helduentzat ere egokia, baina, bereziki, gazte jendea luzatu nahi nieke gonbidapena, euskal literaturan fokua jarrita, nondik gatozen ezagutzeko gure historiako askotariko pasarteetan murgilduta. Tamalez, literaturarekiko lotura galtzen ari da belaunaldi gazteetan, eta beti dago ondo euskal literaturaren leiho honetara gerturatzea.

**Euskara maila jasoa beharko litzateke saioa egoki jarraitzeko?**

Ez zait hala iruditzen. Modu lasaian egiten dugu berba tertuliaren tartean, baina edozer gauza edo zalantza argitu beharrik izanez gero, ez da arazorik izango. Saioan zehar hitza hartzen ausartzen ez dena, ikuskizuna bukatutakoan, hurbildu dadila guregana lasai asko.

## Migrazioak, gorputzen mugimenduekin azalduta

Aukeran dantza taldeak 'Migratzaileak' ikuskizuna eskainiko du bihar Amaia antzokian, 19:30ean

**A. Aranburuzabala** ARRASATE

25 urteko ibilbidea du Bergarako koreografo Edu Muruamendiarek gidatzen duen Aukeran dantza konpainiak eta urteurrena ospatzeko abiatu zuten, iaz, *Migratzaileak* ikuskizuna. "Sorkuntza prozesuan buru-belarri ari ginela hurbildu zitzaigun Senegaletik etorritako kale-saltzaile bat euskaraz berbetan. Bat-batean han ikusi nuen ikuskizunaren muina izan zitekeen haria; bere bizitza kontatzeko eskatu genion, eta hala osatu genuen gero *Migratzaileak*", azaldu du Muruamendiarek.

Taularen gainean zortzi dantzari gazte daude. "Euskal dantzak oinarri, estilo garaikidearekin eta klasikoarekin uztartutako koreografiak egiten dituzte Xabi Aburruzagak sortutako musikaren gainean, Oskar Armendarizek egindako jantziak soinean ditzutela eta Karlos Solanok egin duen argien diseinuak eta ikus-entzunezko muntaiak lagunduta".

Arrasateko emanaldiaren ostean, Argentinara eta Uruguaira joango dira bi astetarako. "Necochea hiriko Euskal Astera gonbidatu gaituzte *Migratzaileak* ikuskizuna eskaintzeko, eta Montevideora joango gara gero".

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

EGUZKI TALDEA  
ETA LAGUNAK:  
ERROMERIA

URRIAREN 28AN, ZAPATUAN, 22:00ETAN  
URRIAREN 29AN, DOMEKAN, 16:00ETAN  
NIKOLAS GARDOKIRI OMENALDIA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.







Iaz Aretxabaletan ospatu zuten Bailarako Txistulari Eguneko irudia. GOIENA

# Txistularien topagune izango da Eskoriatza

Hamabigarrenez ospatuko dute bihar Bailarako Txistularien Eguna, aurten Eskoriatzan. Kalejira eta emanaldi ezberdinak egingo dituzten herrian zehar, eta horretan laguntzen arituko dira Soralezetik eta Baionatik etorritako txistulariak

## Iñigo Barrena ESKORIATZA

Eskoriatza bailarako txistularien topagune bihurtuko da bihar, bertan ospatuko dutelako hamabigarrenez Bailarako Txistularien Eguna. Goizeko 11:00etan ekingo diote kalejirarekin herri osoan zehar, eta, ondoren, bi emanaldi egingo dituzten In-txaurtxuetan eta Olaetan; toki bakoitzean hiru pieza joko dituzte.

Emanaldi nagusia, aldiz, herriko plazan egingo dute eguerdiko 13:00ean, non zortzi pieza joko dituzten. "Kontzertu serio bat baino, plazako emanaldirako, zerbait alaia egitea pentsatu dugu. Dantzagarriak diren fandang, arin-arin eta bestelakoak

joko ditugu. Gainera, Eskoriatzan dantzan aritzen diren lagun batzuk izango ditugu bertan, eta polita izango delakoan gaude", dio on Errasti Eskoriatzako txistulari elkarteko kideak.

## Gonbidatu bereziak

Guztira 45 lagun inguru bilduko dira, tartean sei atabalari, eta, bailarako txistulariez gain, kanpotik etorritakoak ere izango dira: Soralezetik etorritakoak eta Baionatik etorritakoak. Errastiren hitzetan, eguneko "izarrak" izango dira azken horiek. "Ekainean bisitan egon ginen gu Baionan eta orain eurak etorriko dira gurera; zerbait ezberdina izango da", adierazi du Errastik.

## Txistulari egunaren garrantzia

2010. urteaz geroztik daramate txistulari eguna ospatzen, Eskoriatza, Arrasate eta Aretxabaleta artean, eta 45 lagun elkartzen diren arren, kontzientea dira errelebo gutxi dagoela. Gainera txistua musikaren mundu berrira ez dela "moldatu" aitortzen dute, eta horrek instrumentua "modan" ez egotea eragiten duela. Dena dela, egun hau ospatzen jarraitzearen garrantzia azpimarratu du Jon Errastik: "Elkarren berri bagenuen txistulariok aurretik ere, baina pentsatu genuen aberasgarria izan zitekeela elkartzea, eta aditua den jendeak ematen zizkigun erreperitorioak ikastea".

# Lau debagoiendar izango dira Tolosako Abesbatza Lehiaketan

Suhar gizonezkoen abesbatzan dihardute laurek, eta Tolosako 54. Abesbatzen Lehiaketan izango dira

## I.B.K. DEBAGOIENA

Esteban Urzelai oñatiarra da Suhar abesbatzako zuzendaria, eta Aitor Garitano bergararra eta Txomin Maidagan eta Inazio Olaizola arrasatearrak, aldiz, abeslariak. Denak izango dira

datorren urriaren 31n, martitzena, hasten den Tolosako 54. Abesbatzen Lehiaketan. "Bost urte dira SUHAR sortu zenetik eta horrelako lehiaketetan parte hartzea taldea ezagutarazteko beste modu bat da; beraz, ilusio

askorekin goaz", dio Urzelai. Tolosako lehiaketak munduko abesbatza onenak batzen ditu urtero, eta erreferentea da abesbatzen munduan; hor egotea "hunkigarria" dela ere gaineratu du.

Suharren txanda azaroaren lein iritsiko da, eta ikus-entzuleei abesbatzak duen onena eskaintzeko helburuarekin taularatuko dira. "Ez dugu urduritasun berezirik, baina gure musika onena erakusteko asmoarekin goaz", adierazi du Urzelai.

## Goienakideen txokoa

### URRIKO SARIAK

### Tableta

InnJoo Superb Plus tableta



Parte hartzeko sariaren izena: tablet



### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Inonon dagoen LPO 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bikoitza haren helburu bakarra da inonon dagoen sariarena gordinatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, baina zure datuak ezin dira ezabatu. Helbide honetan datuak: goienakide@goiena.eus

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko Udaleri esker

"Lati ederra" haur antzezlanerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amala Antzokia | Azaroak 4 | 17:00

### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Lati"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Inonon dagoen LPO 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bikoitza haren helburu bakarra da inonon dagoen sariarena gordinatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, baina zure datuak ezin dira ezabatu. Helbide honetan datuak: goienakide@goiena.eus

## Irabazi bi lagunendako otordua

### VENTI GASTRO ITALIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: urriak 31.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45 €  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 2. GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara, Ibargarai.** Kotxe ez oso handientzako edo motorrentzako garaje ibxia ematen da errentan. Garaje partekatua izango da eta sarrera errazduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 08 45 52

## Oñati, Kale Zaharra.

Errentan ematen da garaje ibxia. Ate automatikoa eta 18 metro karratuko azalera du. Oñatiko Kanpantxo kaleko 2. zenbakian dago kokatua. Deitu 627 09 27 01 zenbakira

## 4. LANA

## 402. ESKAERA

## Arrasate eta Aretxabaleta.

Astebukaeretan, orduka, nagusiak zaindu, garbitak edo bestelako lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut. 642 49 94 09

**Arrasate.** Etxean bertan bizi izaten, gauzez edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut eta esperientzia handiko emakumea naiz. 633 12 85 30

**Arrasate.** Gaztea lan ezberdinetarako prest: zerbitzu teknikoak, zaintza lanak, garbiketak eta tabernari lanak. Dokumentazio guztia egunean daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 08 45 52

**Burdiñate.** Garajea erosi nuke Burdiñaten edo inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 68 94 12

**Debagoiena.** Orduka, umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Deitu 672 95 00 91 zenbakira

**Debagoiena.** Astelehenerik ostiralera nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario titulua dut. Nagusien egoitzetan aritu izanaren esperientzia dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 46 91 11

**Debagoiena.** Astelehenerik ostiralera zein astebukaeretan nagusiak zaintzen, garbiketak egiten edo bestelako lanetan lan egingo nuke. Gauzez etxean edo ospitalean nagusiak zainduko nituzke. Beharrezkoa den ordutegira moldatu naite-

ke. Soziosanitario ikasketak ditut. 602 80 15 38

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko langile moduan, garbiketetan eta umeak zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Asteazken zehar edo astebukaeretan orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 19 08 26

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 42 64 84

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 34 22 25

**Debagoiena.** Garbiketa lanak eta nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak ditut. Orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 25 26 67

**Debagoiena.** Garbiketa lanak eta umeak edo nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldetan eta astebukaeretan edozein ordutan lan egiteko prest dagoen mutila. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 613 58 65 93

**Debagoiena.** Garbiketa lanak eta umeak edo nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldetan eta astebukaeretan edozein ordutan lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 613 58 64 68

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Asteazken zehar zein astebukaeretan orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 612 56 12 39

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen eta denetarik garbiketak egiten lan egingo nuke. Astelehenerik ostiralera edo astebukaeretan orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Goi-

zetan eta astebukaeretan orduka lan egiteko prest. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 94 30 78

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo bestelakoetan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestelako lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 15 78 12

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketak edo bestelako lanak egingo nituzke astelehenerik igandera bitartean, orduka, gauak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 19 08 26

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen 20 urteko lan esperientzia duen emakumea lan bila. Etxean bertan bizi izaten, orduka, astebukaeretan edo bestelako lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 64 68 17

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan egingo nuke, goiz zein arratsaldetan edozein ordutegira moldatu naiteke, baita aste-

bukaeretan ere. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 37 45 10

**Debagoiena.** Orduka nagusiak pasiatzeko edo konpainia egiteko gertu nago. Baserrietan eta egoitzetan ere bai. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 37 49 04

## 5. IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Bergara: Ingelesko klaseak ematen dira.** Bergaran, goizean, eguerdian zein arratsaldean, maila guztietako ingelesko klaseak ematen ditut, eta Cambridge-ko zein Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketetarako ikasleak prestatzen ditut. Talde txikiak. Interesatuok deitu 618 91 32 89 telefono zenbakira

## 6. MOTORRA

## 602. EROSI

**Kotxea erosi.** Kotxe bat erosi nahiko nuke. Hasi berri batentzat patatxo bat. Prezio altuena: 1500. Interesa izanez gero deitu edo idatzi: 689 09 09 97 zenbakira. Esker mila!

## URTEURRENA



## Jesus Agirre Igarza



2022ko azaroaren 2an hil zen, 92 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 29an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Andra Mari parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2023ko urriaren 27an.

## URTEURRENA



## Kepa Jauregi Olabe




2014ko urriaren 28an hil zen.

Bederatzigarren urteurreneko meza, zapatuan, urriaren 28an izango da, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian.

—  
*Zein amets politta zurekin bizi izana orain hegan zoaz, Kepa maitea baina gurekin egongo zara ametsik ederrenean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2023ko urriaren 27an.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



## INTERNET BIDEZ LIGATZEKO APLIKAZIOEZ

Arrasateko Sexologia Zerbitzuko Aritz Resinesen esanak eta herritarren iritziak jasoko ditu saioak.

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



## MUNLET TALDEAREN EMANALDIA

Mendaroko bikoteak Kooltur Ostegunetan, urrian, egindako kontzertua osorik entzuteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
**goiena.eus/telebista**

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK BEHAR DU  
**MAKETAGILEA**

**ESKATZEN DA:**

- Diseinu arloko ikasketak izatea.
- InDesign programak menperatzea.
- Lantaldean lan egiten jakitea.
- Euskaraz jakitea.

**KONTUAN HARTUKO DA:**

- Diseinu lanetan esperientzia izatea.
- Photoshop eta Illustrator jakitea.

**Curriculumak aurkezteko epea: 2023ko azaroaren 2ra arte**  
Nora bidali: [pertsonaia@goiena.eus](mailto:pertsonaia@goiena.eus)

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Garajea Saldu/Errentan.
- Lokala Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza eman.
- Motorra Saldu/Alokatu.
- Animaliak/Saldu.
- Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro
- 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagok argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
- Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

**Korosti**  
Inmobiliaria

**Bergara: San Antonio, 69m², 2 logela, igogailua, eguzkitsua eta garajea sotoko solairuan**  
210.000€

**Bergara: Ozaeta, 67m², 3 logela eta garajea sotoko solairuan.**  
175.000€

**Bergara: Bidekurutzeta, 152m², 4 logela eta aukera askorekin.**  
120.000€

**Ibargarai 3 BERGARA**  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

Informazio gehiago:



ESKER ONA

**Marcelina Santa Teresa Regatos**



Hinojosa de Dueron 1947/12/14 - Aretxabaletan 2023/10/19

*Ez dago gure artean agurrik, edonon zaudela, bihotzean eramango zaitugu.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2023ko urriaren 27an.

OROIGARRIA



**Daniel Aguiriano Barandiaran**



2023ko urriaren 20an hil zen, 70 urte zituela.

*Zintzoa eta bihotz onekoa izan zara beti. Jakinduriaraz betetako zenbat kontu eta momentu eder eskeini diguzun! Zure eskuzabaltasuna, zure kemena eta umorea gogoratuko ditugu beti maitasunez.*

*Bihotz-bihotzez eskerrik asko emandako danagatik, Daniel.*

Untzillako zure familia. Eskoriatzan, 2023ko urriaren 27an.

OROIGARRIA



**Daniel Aguiriano Barandiaran**




2023ko urriaren 20an hil zen, 70 urte zituela.

*Udazkeneko uso Gure bizitzen hegala Aita ezin hobe Amaren babesle*      *Zure maitasunaz betiko gozatzia izengo da gure amets... Gero arte Aitaxo... Begoña, Aitor eta Eneritz.*


Hiletara etorri eta egun hauetan gurekin egon zareten guztioi, bihotz-bihotzez familiaren izenean, eskerrik asko.

Eskoriatzan, 2023ko urriaren 27an.

ESKER ONA



**Libe Martinez Etxabe**



2023ko urriaren 22an hil zen, 52 urte zituela.

Lerro hauen bidez familiak eskerrak eman nahi dizkizue lagun eta bizilagun guztiei, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuelako.

Arrasaten, 2023ko urriaren 27an.

OROIGARRIA



**Libe Martinez Etxabe**




2023ko urriaren 22an hil zen, 52 urte zituela.

*Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeruan zure lankide Balta, Jon, Ander eta Amaia. Ez zaitugu ahazten*


**Arigara**

Arigara Iturgintza. Arrasaten, 2023ko urriaren 27an.

OROIGARRIA



**Libe Martinez Etxabe**




2023ko urriaren 22an hil zen, 52 urte zituela.


*Betiko gurekin.*

Txikipanda. Arrasaten, 2023ko urriaren 27an.

ESKER ONA



**Ines Maria Pozo Sanchez**



2023ko urriaren 23an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko urriaren 27an.

OROIGARRIA

**Jose Maria Zubia Telleria**



Andoni Goiti lankidearen aitagarinreba

2023ko urriaren 25ean hil zen, 80 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

**goiena**

Goiena Komunikazio Taldea. Bergaran, 2023ko urriaren 27an.

OROIGARRIA



**Rafael Arana Salinas**



2023ko urriaren 24an hil zen, Gasteizen, 77 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan, Rafa laguna.*

Zure kuadrilla. Arrasaten, 2023ko urriaren 27an.

ESKELA

**Mila Zubizarreta Arenaza**




2023ko urriaren 26an hil zen, 75 urte zituela.


Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, gure ondoan egon eta maitasuna eta elkartasuna erakusten diguzuen denoi.

Aretxabaletan, 2023ko urriaren 27an.

ESKELA



**Jose Maria Zubia Telleria**



'Bolu'

2023ko urriaren 25ean hil zen, 80 urte zituela.

*Zure familiak maite zaitu.*

Bergaran, 2023ko urriaren 27an.

**Oroilore**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Gari deitu zuzenean edo, nahingo baldin, jakinarazi zuen atseguru-kospainari gurekin nahi dituzela agurtu maite dituzene.*

*Mariozen, Ibanen, Mariboren eta Cristianen partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotz sendatzeko balo dute horietakoak. Guk baditugu gordera zuzentzeko, gure beharri ducenerako.*

**Marlo, Iban, Maribi eta Cristian**

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua ONATI • Tel.: 943 71 66 37



## ZORION AGURRAK



**BERGARA Eider Leturia Zurutuza**  
Azaroaren 1ean, 6 urte. Zorionak! Jarratxu gure etxeak alaitzen. Muxuak maitxe zaitxugunon partetik.



**ARRASATE Beñat Lezamiz Agirre**  
Urriaren 31n, 2 urte. Zorionak, Beñat. Bihotz-bihotzez maite zaitugu.



**ESKORIATZA Kimetz Karpio Azpitarte**  
30ean, 12 urte. Ondo pasa! Maite dotzuen osaba Gorka, amama Resu, aitita Txomin eta txakurtxo lon.



**ARRASATE Ekain Zabaleta Urteaga**  
30ean, 9 urte. Zorionak! Muxu bat anai Irai, aitaxo, amatxo, osaba-izeba eta aitona-amonon partetik!



**ARAMAIO Amets Beitia**  
Urriaren 29an, 11 urte. Zorionak! Ama, aita ta amaman partetik. Muxuak



**OÑATI Paul Anduaga Arregi**  
29an, 11 urte. Zorionak, txapeladun! Disfrutatun egunaz eta patxo haundi bat etxeko danon partetik!



**ESKORIATZA Jabier "Patatas" eta Lierni**  
Patasek urriaren 29an 59 urte, eta Liernik azaroaren 1ean 50 urte. Zorionak, bikote! Zuek dakizuen moduan ospatu zuen egunak, *a tope*. Besarkada haundi bat familia osoaren partetik.



**BERGARA June Iturrospe Arrondo**  
28an, 8 urte. Zorionak, neska haundi! Ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat danon partetik!



**OÑATI Ander Odriozola Larrañaga**  
Urriaren 28an, 7 urte. Zorionak, Ander! Oso ondo pasau zure egunian! Askok maitxe zaitugu!



**ARETXABALETA Jose Ignacio Isasmendi Zubillaga**  
27an. Zorionak, aitita! Besarkada bat, batez ere Oinatz, Xanet eta Inarren partetik!



**ESKORIATZA Nikole eta Pello Aranburu**  
26an, urtebete. Zorionak etxeko txikitxue! Muxu eta besarkada haundi bana familixako danon partetik!



**BERGARA Oihana Olasolo**  
26an, 40 urte. Zorionak! Oso ondo pasa eguna. Besarkada haundi bat familixako denon partetik eta batez ere Malen eta Inhar-en eskutik.



**OÑATI Aitor Barrena Agirrebalzategi**  
Urriaren 26an, 2 urte. Zorionak, politorri! Ia 2 urtetxo! Patxo bat etxeko danon partetik. Ondo pasau!



**BERGARA Olga Igartua Aziproz**  
26an, 11 urte. Zorionak, maitte! Egun zoriontsua pasatu eta ondo ospatu! Maite zaitut! Zu eta ni... Amatxo Muxuak!



**BERGARA Ailaiz eta Uxue Gonzalez Lete**  
Urriaren 25ean, 9 urte. Zorionak, prexiokas! Ondo ondo ospatu zuen urtebetzea! Muxu potolo bat danon partetik!



**ARRASATE Mikel eta Eneko Quintana**  
Mikelen urriaren 25ean 5 urte, eta Enekok 26an 3 urte. Zorionak familixako partetik! Muxu potolo bana!



**ARRASATE Oxel Souto Lasa**  
Urriaren 24an, 11 urte. Zorionak, txapeladun! Egun bikaina pasatu dezazula, pottoko! Bihotz-bihotzez maite zaitugu!



**OÑATI Aroa Castell Tejada**  
24an, 5 urte. Zorionak, Aroa! 5 urtetxo! Oso ondo pasa eguna eta disfrutau asko. Etxekoen partetik. Muxuak!




**DEBAGOIENA Paula Zubia Urkua**  
Urriaren 22an, 10 urte. Zure familia guztia partetik, belarri tirakada goxo bat. ZORIONAK!



**OÑATI Amalir Beitia Urkia**  
Urriaren 22an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako!



**BERGARA Axier Iardua Arteaga**  
20an, 8 urte. Zorionak! Jarratitu gure bizitzak alaitzen! Patxo potolo pila bat etxeko danon partetik.



**ARRASATE Kaiet Martin (38) eta Manex (5)**  
Urriaren 19an. Zorionak, bikote! Muxu haundi bat familixako guztia partetik. Bereziki Oier eta amatxoren partetik!!!

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 27

**ANTZUOLA 'Batetik bestera' antzezlan**  
3 urtetik gorakoendako, Karoi jaialdiaren baitan.  
*Torresoroan, 11:00etan.*

**BERGARA Gau Beltza: tailerrak**  
Familiendako.  
*San Martin plazan, 17:00etan.*

**ARRASATE Musakolako gazte txokoaren agurra**  
17:30ean, aurpegi margotzea; 18:00etan, Rebel Noise taldearen akustikoa; eta 19:00etan, aitari musikatua.  
*Musakolako gazte txokoan.*

**ESKORIATZA 'Isladak' antzerki soziala**  
Proposamen honek lau pieza ditu, antzerki laburreko formatuan. Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

**OÑATI 'Cuentos de una Azeri' ipuin kontaketa**  
Azerbaijandarren kulturara hurbilduko ditu entzuleak Tarana Karim-ek.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**OÑATI 'Tximeletrak airera' haurrendako poesia emanaldia**  
Poesia jostagarria eta gozagarria izan daitekeela erakutsiko die umeei Xabier Olasok.  
*Haurren liburutegian, 18:30ean.*

**ARRASATE Dantzaldia**  
Portalo Elkartearen eskutik.  
*Kulturolan, 18:30ean.*

**BERGARA Sorkuntza digitala**  
Amaia Santamariaren eta Jokin Guridiren eskutik sortutako pieza.  
*Seminarioan, 18:30ean.*

**LEINTZ GATZAGA Gaba Baltza**  
Aurpegiak margotu, egunerako outfit-a prestatu eta gozoki eskaerarekin hasiko dira.  
*Toki-Eder elkartearen, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Gure Zirkua**  
Trapezisten, pailazoaren eta ekilibristen emanaldiak.  
*Unibertsitate alboan, 19:00etan.*

**ARRASATE Ziorla Fest**  
Juleneren eta Unairen emanaldia.  
*Gaindegi tabernan, 20:00etan.*

**BERGARA Iñaki Jauregi 'Kanse'-ri omenaldia**  
Nightrains, Fucking What! eta Debeku taldeak. Debalde.  
*Kartzela zaharrean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 28

**BERGARA Ezkur bilketa Agirretxeberrin**  
Adin guztietarako, Kukubaso elkartearen eskutik.  
*Miguel Altunan, 10:00etan.*

**ANTZUOLA Aiherra-Antzuola eguna**  
Egun osoko egitaraua.  
*Antzuolan, 10:00etan.*

**ARAMAIO Erretiratuen Eguneko azoka**  
11:00etan, produktu eta animalien azoka; 12:00etan, meza; 13:00etan, Lagun Artean dantza taldearen emanaldia; eta 14:30ean, bazkaria.  
*Bizente Goikoetxea plazan.*

**BERGARA Gau Beltza: tailerrak**  
Ordutegia: 11:00-13:00.  
*San Martin plazan.*

**ARRASATE Ziorla Fest**  
Kontzertuak egun osoan zehar. Informazio osoa, 14. orrian.  
*Musakolan.*

**ESKORIATZA 'Arte para el buen vivir' jaialdia**  
Egun osoko egitaraua. Informazio osoa, 18. orrian.  
*Fernando Eskoriatza plazan.*

**ESKORIATZA Balarako Txistulari Eguna**  
11:00etan, txistularien kalejira; 11:30ean, txistu emanaldia Intxaurtxuetan; 12:15ean, txistu emanaldia Olaetan; eta 13:00etan, emanaldia plazan.  
*Eskoriatzan.*

**ARAMAIO 'Zuk.tantai' aplikazioaren aurkezpena**  
Errez, Tantai eta Agresta kooperatiben esku.  
*Sastiñan, 11:30ean.*

**BERGARA Pintura erakusketa**  
Ana Esther Fernandez eta Berta Barrosoren lanak.  
*Aroztegin, 12:30ean.*

**ARETXABALETA Gure Zirkua**  
Trapezisten, pailazoaren eta ekilibristen emanaldiak izango dira.  
*Unibertsitate alboan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Kuartela herrira!' jaialdia**  
Txerrikumeak, Eten, Bixentak eta BRGS & Margu Mission taldeak.  
*Aretxabaletan, 18:00etan.*

**ARRASATE Ihes-bidea eta Beldur Etxea**  
Gaba Baltzaren baitan, 12 urtetik gorakoendako.  
*Tren geltoki zaharreko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Postdatarik gabeko gutunak' antzezlan**  
Nerea Ariznabarreta eta Kepa Errasti aktoreekin. Sarrerak, bost euro.  
*Arkupen, 20:00etan.*

**BERGARA Frank Delgado kantautorearen emanaldia**  
Musikari kubatarraren zuzenekoak.  
*Txuringo tabernan, 20:00etan.*

## DOMEKA 29

**ELGETA Bisita gidatua Intxortako frontea ezagutzeko**  
Izena emateko: 943 79 64 63 edo [iturismo@debagoiena.eus](mailto:iturismo@debagoiena.eus).  
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**BERGARA Mendi ibilaldia**  
Haurren aurrean, helduok heldu ekimenaren baitan. Ostean, hamaiketakoak.  
*San Martin plazan, 10:00etan.*

**OÑATI Kamera aurreko antzezpeneen gaineko tailerra**  
Itsaso Pol zinegilearen eskutik, Karoi jaialdiaren baitan.  
*Eltzian, 10:30ean.*

**ARRASATE Garbiketa jardunaldia IMMeren eskutik**  
Bizikidetzatza sendotzea helburu.  
*Txaeta kalean, 11:00etan.*



XAKE PRODUKZIOAK

**ARRASATE Familia-meza**  
Katekesi familiarreko kideentzat.  
*Parrokian, 11:00etan.*

**OÑATI Lezesarriko kofradiaren urteko batzarra**  
Ostean, meza.  
*Lezesarrin, 11:45ean.*

**ARRASATE Ziorla Fest**  
12:30ean, Tolin El Mariachi Ziorla tabernan, eta Patxi Luque Txinaton.  
*Musakola auzoan.*

**OÑATI 'Sorginak eta sorginkeriak' ikuskizuna**  
Sorginei eta mitologiari buruzko ikuskizuna. Sarrerak, zortzi euro.  
*Gaztelekuan, 12:30ean.*

**OÑATI 'Anbotoko Mari' antzezlan**  
Antzezlan landu ostean, zuzenean ikusiko dute.  
*Eltzian, 16:00etan.*

**ARRASATE lhes-bidea eta Beldur Etxea**  
Gaba Baltzaren baitan, 12 urtetik gorakoendako.  
*Tren geltoki zaharreko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Yo, mi cuerpo y la comida' hitzaldia**  
Lurdes Martinezek egingo du berba.  
*Ibarraundi museoan, 18:00etan.*

**ELGETA 'Sex sua' musikala**  
Andoni Mutiloaren eskutik. Debalde.  
*Espaloian, 18:30ean.*

**ARETXABALETA 'Postdatarik gabeko gutunak' antzezlan**  
Nerea Ariznabarreta eta Kepa Errasti aktoreekin. Sarrerak, bost euro.  
*Arkupen, 19:00etan*

## ASTELEHENA 30

**ARAMAIO 'Lolaren bizikleta' liburuaren aurkezpena**  
Gurasoendako eta familiendako.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Trekutz parke eolikoaren inguruko batzarra**  
Irekia.  
*Torresoroan, 18:30ean.*

### ARETXABALETA 'Posdatarik gabeko gutunak' antzezlan

Mikelek (Kepa Errasti) bost urte eman ditu preso, eta ordubete geratzen zaio bizimodu berri bat hasteko. Ordubete hau inoiz parez pare ezagutu ez duen igorle misteriotsu bati eskainiko dio. Sarrerak, bost euro.  
*Zapatuan 20:00etan, eta domekan 19:00etan, Arkupen.*

**ARRASATE Krisi ekosozialaren gaineko hitzaldia**  
Unai Pascualek egingo du berba.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

## MARTITZENA 31

**ESKORIATZA Gaba Baltza**  
17:00etatik aurrera, familiendako ekintzak; 19:00etan, ekitaldi nagusia plazan; eta ostean, zezensuzkoa.  
*Eskoriatzan.*

**BERGARA Gau Beltza**  
17:00etan, gozokien banatzea; 18:15ean, musika emanaldia eta txokolate-jana; 20:30ean, *Su à feu* ikuskizuna; eta 21:30ean (euskaraz) eta 23:00etan (gaztelaraz), Bautista legenardunaren bisita gidatua.  
*Bergaran.*

**ARRASATE Arimen Biltzarra**  
Ilargitxo eta bere lagun kukumarruekin.  
*Biteri plazan, 18:00etan.*

**ELGETA Gau Beltza**  
18:00etan, puska batzea; 19:00etan, topaketa eta festa plazan; eta 20:30ean, ipuin kontaketa LH-5etik gorakoendako, hilerriko aldapan.  
*Elgetan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**  
Annie Ernaux idazlearen *Gertakizuna* liburuaren gaineko saioa, Itziar Ugartek gidatuta.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**OÑATI Manifestazioa**  
Palestinari elkartsuna adierazteko *Foruen plazan, 19:00etan.*

**ARRASATE Bizitzaren Jaia**  
Sonyaguar Fuegoaren eskutik, Gaba Baltzaren baitan.  
*Ekin-en, 21:00etan.*

**ARRASATE DJ emanaldiak**  
Gaba Baltzaren baitan. Debalde.  
*Gaztetxean, 22:30ean.*

## EGUAZTENA 1

**OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua**  
10:30ean euskaraz eta 12:00etan gaztelaraz. Izena: 943-79 64 63.  
*Arantzazun.*

## EGUENA 2

**ARRASATE 'Poltsikorako poemak' emanaldia**  
Saroa Bikandirekin eta Amaia Egidazurekin, 4-7 urte artekoendako. Izena, aurrez.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ELGETA Astro-topaketa**  
Astro-argazkilaritzari buruzko saioa, Ilatargi elkartearen eskutik.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Not Scientist**  
Frantziako taldearen zuzeneko saioa. Sarrerak, zazpi euro.  
*Gaztelekuan, 22:00etan.*

## ZINEMA

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**Las dos caras de la justicia**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Vacaciones sin mama**  
Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Sound of freedom**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Alimañas**  
Egubakoitzetik domekara eta martitzena: 19:15, 21:15. Astelehena: 19:00.

**Barbie**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Campeonex**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Divertimento**  
Egubakoitzetik domekara eta martitzena: 17:30, 22:00. Astelehena: 17:30.

**El chico y la garza**  
Egubakoitza eta martitzena: 17:00, 19:30, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:30, 22:00. Astelehena: 17:00, 19:30.

**La contadora de películas**  
Egubakoitza eta martitzena: 17:15, 19:45, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 19:30, 22:00.

**Mamacruz**  
Egubakoitzetik domekara eta martitzena: 17:15, 19:30, 21:30.

Astelehena: 17:15, 19:00, 21:00. Martitzena: 17:15.

**Me he hecho viral**  
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 17:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

**Mi otro Jon**  
Egubakoitza eta martitzena: 21:15. Zapatua eta domeka: 12:00, 21:15. Astelehena: 20:45.

**Patrulla canina**  
Egubakoitza: 17:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30. Astelehena: 17:00. Martitzena: 17:15.

**Sound of freedom**  
Egubakoitzetik domekara eta martitzena: 21:15. Astelehena: 19:15.

**Trolls 3: todos juntos**  
Egubakoitza eta martitzena: 17:15, 19:15. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 19:15. Astelehena: 17:00.

**Golpe de suerte**  
Egubakoitzetik martitzenera arte: 20:00.

**Los asesinos de la luna**  
Egubakoitzetik domekara eta martitzena: 17:00, 21:00. Astelehena: 17:00, 19:00.

**Un amor**  
Martitzena: 19:30.

**O corno (jatorrizko bertsioan)**  
Egubakoitzetik domekara eta martitzena: 19:00. Astelehena: 21:00.

### KRITIKA

#### Golpe de suerte

★★★★★

**Zuz.:** Woody Allen. **Herr.:** Frantzia (2023). **Aktoreak:** Lou de Laagê, Niels Schneider, Melvil Poupaud. **Iraupena:** 96 minutu.

### Zortea, funtsezko faktorea bizitzan

#### ANTONIO ZABALA

Woody Allenek zuzendutako film askok gizakien harreman sentimentalei buruz jarduten dute. Maiteminak, desamodioak, desleialtasunak, krisialdiak, sortzen eta bukatzen diren amodioak. Amodio sentimenduak sentimendu aztoratzaileak dira. Sentimendu horiek inbaditu egiten gaituzte, eta nahasmenetik ahalik eta ondoen ateratzen saiatzen gara. Eta maitasunarekin ikasten dena, orokorrean, bizitzara zabal genezake. Dena kontrolpean daukagunean espero ez dugun gertaerak sortzen dira, dena hankaz gora jarriaz. Zortea funtsezko faktorea da gure bizitzetan.

Allenek film batzuetan amodioa, bizitzaren pisua eta zortearen eragina erabiltzen

ditu thrillerrera hurbiltzeko. *Golpe de suerte* ikusterakoan, zuzendariaren bi film datozkigu burura. Alde batetik, *Match Point*, eta bestetik, *Misterioso asesinato en Manhattan*. Lehena, dramatikoa; eta bigarrena, komedia bat. *Golpe de suerte* horien tartean dago. Ez dauka *Match Point*-en indarra, ezta *Misterioso asesinato en Manhattan*-en grazia ere, baina gustura ikusten da. Egitura sendoa dauka eta ondo bideratuta dago; istorioak ukitu maltzurra du, eta bere erritmoa egokia da, baina maitasun-harremanari, neskaren amaren ikerketei eta elkarrizketei (agian, frantsesez daudelako eta Allenen berezko hizkuntza ingelesa delako) freskotatzen eta distira apur bat falta zaie.





AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Identitatea

Katalunian, egin berri duten inkesta baten arabera, gaztetxoek dira gutxien babesten dutenak independentzia. Era berean, belaunaldi horrek (1997 eta 2012 artean jaiotakoak) interes gutxi du politikarekiko.

Iruditzen zait gure inguruan ere antzera dela. Adibidez, ez zaie inportako orain dela 184 urte gertatutakoa: 1839ko urriaren 25eko lege espainiar batek euskal foruak berrestu zituen (baina) monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik egin gabe. Funtsezko momentua izan zen euskal historian, aurretik ez zegoen menpekotasuna ezarri baitzuen. Gaur ere bata bestearen azpian dago, nahiz eta 1978ko Espainiako Konstituzioak aipatutako legea indargabetutzat jotzen duen. Hain da egun seinalatua, ez baita kasualitatea Gernikako Estatutuaren erreferenduma egiteko (1979ko) urriaren 25a aukeratu izana.

Gaztetxoak zutabe hau mugikorrean irakurtzen hasi badira, ziur aspaldi baztertu dutela atzamarraren mugimendu txiki batekin. Bestalde, gizartea zahartzen ari da, eta, *gazteak nahi duena, zaharrak ahal duena* atsotitza egia bada, erdiko adin tartean dago euskal identitatearen ardura nagusia.

## BUKATZEKO



The boat obraren une bat. Pertsonaiak baltsa batean daude. THE BOAT COLLECTIVE


# Itsasoan bizi izandako drama, taula gainera

'The boat' antzezlanean jaso dute ehunka migratzailek egunero bizi izaten dituzten zailtasunak, egoera bizi izan dutenen laguntzarekin. Iman Alidoosti Shahraki zuzendaria eta Masume Hussein aktorea egon dira Oñatin egindako emanaldian.

**Mireia Bikuña Madrid OÑATI**

2021ean Greziako Lesbos uharterean sortu, antzeztu eta zabalteko asmoaren grabatutako antzezlan da *The boat*. Migratzaileen errealitatea erdigunean ipintzeko asmoarekin egindako lana da. Pertsona errefuxiatuek Europara iristeko egin behar duten bidaiaren nondik norakoak kontatzen ditu, berba barik.

Protagonisten gorputz-mugimenduekin eta aurpegi-adierazpeneekin, itsasoko ibilaldiak dituen une guztien gordintasuna helarazten diote ikusleari. Finean, aktore lanean diharduten pertsonak errefuxiatuak eta migratzaileak dira, eta guztiak pasa dira egoera gordin horretatik. Halaxe kontatu zuen Masume Hussein aktoreak, Erei



Hussein eta Alidoosti Shahraki. M.B.

elkarrekin gonbidatuta, Oñatiko Eltzian egindako aurkezpenean: "Egoera gordin eta krudela bizi izandakoak gara. Baina, antzezlanaren egiterakoan, ondo pasatu genuen. Istorio lazzagarria kontatu arren, disfrutatu egin genuen elkarrekin. Ni neu bizipen horrekin geratzen naiz".

## Ez dira profesionalak

2017an heldu zen Iman Alidoosti Shahraki zuzendaria Lesbosera, helburu zehatz batekin: hango egoera jasanezina erdigunean ipintzea. Bere iritzia ematearren bost epaiketa izan zituen. Hala, artearen diziplina ezberdinen bidez bere testigantza ematea erabaki zuen. "*The boat* antzezlanaren laguntza barik egin dugu. Guk sortu eta guk grabatu. Guk muntatu behar izan genuen agertokia. Guk topatu genituen atrezzoak eta jantziak. Oholtzara igotzen diren pertsonak ez dira aktore profesionalak. Ez nintzen horren bila joan. Proiektuan parte hartu gura izan zutenak daude. Antzezlan honekin erakutsi gura dugu Europako leku askotan bizi duten egoera itogarria", esan zuen Eltzian joan ziren oñatiarren aurrean.

## Ordubeteko lana

Antzezlanak ordubete inguruko iraupena dauka. Oñatin 25 minutuko emanaldia egin zuten. Errefuxiatuak txalupara nola igotzen diren eta txalupa barruan, itsasoan bizi duten unea. Bidaiaren zatietako bat, alegia. Laster, lan osoa muntatu eta bideoa osorik zintzilikatuko dute *Theboatcollective.org* webgunean, kontakizun osoa ikusi ahal izateko.



Goienakide 2024  
paretako egutegia  
**Debagoiendarron  
egutegi osatuena**

Debagoieneko egun seinalatu guztiak jasotzen dituen egutegia egin dugu **lehenengoz**, eta azaroaren 24an jasoko duzue **Goienakideek** etxean.



2 ale  
Goienakide  
bakoitzak

**goiena**  
**kide**

Okm: batzen gaituen distantzia